

# ttipi-ttapa



Xanti UTERGA LABIANO | Doneztebeko erremontista

**«EZ NAIZ ISILIK EGON  
ETA HORI EZ DA  
DENEN GUSTUKOA IZAN»**

Oriamendirekin izan dituen tirabirak alde batera utzita,  
ilusioz dago Nafarroan sortu berri den  
erremonte enpresan ibilbidea hasteko. / 8


## Bakardadeari aitzin eginez

Ezohiko egoera honen harira, bakarrik bizi diren 70 urtetik goitiko zortzi lagunen testigantzak bildu ditu TTIPI-TTAPAK. / 10

### SINADURAK



ZOKKETA / 52



**«Emakumeok bide luzea  
dugu futbolean  
baina lehen pausoak  
ongi eman dira»**

Hurrengo denboraldi-aurrea  
Osasunaren lehen taldean egingen  
du Uxo Bertiz Ayusok.  
Aukera aprobetxatzeko  
gogotsu dago  
Elizondoko futbolaria. / 38

**Lesakan parke  
eolikoa egiteko  
proiektuaren kontra  
Endara Bizirik / 18**

**Pirinioetako  
behi-aziendaren  
erakustaldia ere  
bertan behera / 41**



LESAKAKO  
UDALA

# Karririk bizirik, Lesakan errosiz!

HERRIKO KOMERTZIOAK SUSPERTZEKO  
EROSKETA-BONUA

**EROSI 20€ko bonua eta GASTATU 25€**

☺

20€ > 25€

☺

☹

**NOIZ-NON EROSI BONUA**

- Bonua Lesakako Herriko Etxean erosi behar da (07:30-15:00) astelehenik ortziralera.

**BONUA ERABILI AHAL IZATEKO**

- Lesakan erroldatuta egon behar da.
- Lesakar bakoitzak 2 bonu erosi ditzake gehienez (50€ guztira).
- 16 urtetik goitikoek hartu dezakete parte.
- Bonua erabiltzeko azken eguna: 2020ko uztailaren 31.



## Urteko Bono familiarra

Imajinatzen al duzu behin ordaindu eta nahi adina aldiz etorri ahal izatea?

**Baztan-Bidasoko familientzat 100 eurotan (familia osoa)**

Gainontzeko familiak 200 eurotan.








NIRE TXANDA

JON ABRIL OLAETXEA

## Normaltasunerantz

Normaltasun berriak gutti du normaletik, gehiago berritik. Haurrik gabeko eskolak. Itxitako mugak. Musukoak. Bestarik gabeko herriak. Bideo-deiak. Beldurra. Udalekurik gabeko uda. Hidrogela. Hustutako herriko dendak. Bi metroko distantzia. Manparak. Igerileku hutsak. Mikrofonoak eta fokuak itzalitako musikari eta artistak. Langabezia. Ukitu gabe egotea ostatuetan. Telelana. Aldi baterako lan-espedienteak. Herrialdeen arteko joan-etorriak (Beratik Cadizeko hondartzetara bai, Sararat, ordea, ezin). Erabili eta botatzeko kultura (hau ez hain berria, sobera normala).

Aldatuko ditugu aldatu beharrekoak? Normalduko al dugu zaintza? Duten balioa emanen al diegu zaintzaile, erizain, zeladore, mediku, garbitzaile, kutxazain, irakasle, sukaldari eta hain beharrezkoak zaizkigun bertze lanbide guztiei? Ordainduko al zaie behar bezala? Inbertituko al da osasunean, hezkuntzan, adinekoen egoitzetan, kulturari...? Hori litzateke benetako normaltasun berria. Gainerakoan, musuko baten giblean ezkutatuta, lehengo lepotik burua.

«MUSUKO BATEN GIBLEAN EZKUTATUTA LEHENGO LEPOTIK BURUA»



EZPALA

AITOR AROTZENA ALBIZU

## Parentesi artean

Matematiketan, eragiketa baten emaitza erabat aldatzen du parentesi artean dagoenak; literaturan, esaldi baten erranahia ez dute aldatzen, baina hobeki esplikatzen lagun dezakete. Sare sozialetan (emotikonoen faltan), irribarre bat, tristura edo konplizitate-keinua osatzen ahal dute. Oraindik ez dakigu hiru hilabete luzeotako parentesiak eragin diguna.

## NABARMENTZEKOAK



UXUE  
ARRIADA LARRALDE  
IGANTZI




MIELTXO  
SOBRINO ETULAIN  
ARIZKUN

Rikardo Ederra II. Mikro-ipuini lehiaketan saritua izan da Uxue Arriada Larralde Igantziko eskolako seigarren mailako ikaslea, *Berriro etxean* izeneko mikro-ipuinarekin.

Baztango Udalak ikasketak proiektuak garatzeko ematen duen beka baliatuz, Baztango kaparetasun unibertsala aztertu du. Egungo Baztan hobeki ulertzeko «funtsezkoa» egin omen zaio.

## ATZERA BEGIRA



2010-06-24 · TTIPI-TTAPA · 521 zk.

## Oihan Larretxea aizkolariarekin solasean

«9 urterekin hasi nintzen aizkoran baina serio 13 urterekin. Etxean betidanik ikusi izan dut aizkora eta gustatu egiten zait». Horixe bera kontatu zion Oihan Larretxea Berako aizkolariak TTIPI-TTAPAi duela hamar urte. Emaitza onak eskuratzen hasia zen. Urte hartan, erraterako, Urrezko Aizkolarien Binakako Txapela irabazi zuen Donato aitarekin eta Urrezko Aizkolarien Banakako Txapelketan, 23 urtez azpikoen txapela ere jantzi zuen. Aita ondoan izateak aunitz laguntzen ziola aitortu zuen: «ata ondoan izatea erosten ahal ez den zerbait da». Eta bere aholkuez ere mintzatu zen: «nerbiosegia naiz eta agudoegi hasten naiz. Attak beti lasai aritzeko erraten dit». Aizkora «kirol gogorra» dela zioen arren, «gustuko» zuela



erran. eus

TOKIKOM

### Argitaratzailea

Ttapi-Ttapa Fundazioa  
Koskontako bidea, 7 - 1.  
31770 LESAKA  
T. (+34) 948 63 54 58  
F. (+34) 948 63 54 57  
WhatsApp 744 48 43 61  
info@ttipi.eus

### Zuzendaria

Aitor Arotzena  
**Erredakzioa**  
Gurutze Pikabea  
Nerea Bazterrika  
Eneritz Iraola  
**Publizitatea**  
Amaia Odriozola  
Arantza Agirre  
Usua Vicente  
**Berriemalleak**  
Arkaitz Mindegia, Marifa Irazoki,  
Koro Irazoki, Nerea Aitzuri,

Arantxa eta Iraia, Iruñe Elizagoin,  
Maider Petrirena, Oihana  
Kalparsoro, Fermin Etzekolonea,  
Aintzane Leiza, Pablo Irastortza,  
Maite, Ana eta Itziar, Juan Mari  
Barriola, Marga Erdozain, Maitane  
Maritorea, Arantxa Iturralde,  
Arantxa Gamio, Jaione Ariztegi,  
Jaione Zabalo, Nerea Mortalena,  
Virginia Oteiza, Pierre Bastres,  
Ainhoa Astiz, Ganex E., Xabier  
Maritorea, Maialen Iantzi, Jaione  
Mindegia, Olatz Mutuberria.

### Fundazioaren Presidentea

Pello Apezetxea  
**Kudeatzailea**  
Joxemanuel Irigoien  
**Administrazioa**  
Amaia Goia

### Lege Gordailua

NA-1324/85  
**ISSN**  
1578-4673  
**Tirada**  
6.000 ale

### Erakunde laguntzaileak

Leitza, Goizueta, Arano, Areso,  
Baztan, Sara eta Senpereko udalak,  
Malerrekako Zerbitzuen Mankom.,  
Zugarramurdi Aklarre elkarteak

### 2020ko harpidetza sariak

Baztan, Urdazubi eta Malerreka	39€
Leitza	28€
Hego Euskal Herria	47€
Ipar Euskal Herria, Europa	86€
Amerika eta Australia	139€

Nafarroako Gobernua Gobierno de Navarra





## KOLABORAZIOAK

MIKEL RODRIGUEZ LANDA

## Ofentsibara

Botila beti erdi hutsik ikusteak eragin lezake botila arruntean hustea, ezkortasuna maiz bihurtzen delako errealitate egiten den zurrumbilo bat. Ruper Ordorikak kantatu zuen bezala, euskaldun izatea nekeza da. Agian, euskaldun izate hutsa baino gehiago, nekeza dena da euskaldun izan, eta erdaldun baten eskubide berberak nahi izatea. Euskal herritarrek bi hizkuntza jakin behar dituzte derrigor: arabarrek, bizkaitarrek, gipuzkoarrek eta nafarrek, gaztelania; baxenabartarrek, lapurtarrek eta zuberotarrek, frantsesa. Ez du inork bertako hizkuntza jakiteko obligaziorik. Euskara eta obligazioa, gaur egun, utopian edo fikzioan kokatzen dira kasik. Gaztelania eta frantses hiztunek haien hizkuntzak inposatu dituzten estatu bana eduki dituzte. Euskaldunok ez dugu gure eskubideak bermatzeko horrelako egitura bat; gehien jota, gobernu autonomikoak, diputazioak, herri elkargo bat eta herriko etxeak ditugu, Espainiak eta Frantziak uzten duten heinean zer edo zer arautu dezaketenak. Euskarak garai batean ez zuen presentzia du orain bizitza ofizialean, eta, hori, herri mugimenduei esker izan da. Erabakigarriak izan dira euskararen desagerpena eragotzi, euskararen prestigioa euskaldunen artean hobetu, eta harrotasuna berreskuratzeko, baina gaur egun horien ahalmena mugara ailegatzen ari da.

**«EUSKARAREN EGOERA BIDEGURUTZE BATERA AILEGATU DA, KOHETEA ERORTZEN ARI DA»**

Beharrezkoa da erakunde publikoetan ofentsiba handi bat egitea, neurri drastikoak hartzea euskara folklorismotik atera eta beharrezko bihurtzeko. Helburu jakinak dituen hizkuntza politika bat diseinatzea eskatzen du horrek, eta, Hego Euskal Herriaren kasuan, hori mahai gainean paratzea alderdi nazionalista espainolei eta Espainiako Gobernuari, haien erreakzioen beldur izan gabe. Ez da normala LTDan 60 kate egotea, eta gehienez horietako lau izatea euskaraz, eta gainerakoetan hizkuntza nazionalaren presentzia hutsaren hurrengo izatea. Ez da normala Nafarroa Garaian Euskararen Legeak ezartzen duena ere ez bete nahi izatea, eta funtzionario erdaldunak bidaltzea probintziaren iparraldera, edo euskarazko hezkuntza ez bermatzea mistoa erraten dioten eremuan. Erdalzalak seduzitu, konbentzitu eta ez gehiegi molestatzeko jarrerak eman du eman behar zuen guztia, inoiz zerbait eman badu. Ezker espainolarekin negoziatzeko abagunea eta beharra sortu badira, planto egin behar zaio, eta exijentziak gogor paratu mahai gainean. Euskararen egoera bidegurutze batera ailegatu da, frankismo ondorenean aireratu zen kohetea erortzen ari da, eta, berriz igo dadin, beharrezkoa da erakunde publikoen kontrol kabinak hartzea.



ELURRE IRIARTE BAÑEZ

## Ez dugu esperantzaren beharrik

Etxealdia edo konfinamenduak iraun duen udaberri osoan pisu guzietako haserreak izan ditugu, eta ez genuen arrazoirik falta: langileak, zaintzak, ikasleak, telelanak, baldintzak, jantaria, urruntzeak, debekuak, arauak, mugak... Momentu batean pentsatu genuen gauzak hobera aldatzeko balioko zuela egoerak, esperantza bagenuen, edo. Eta agian bai, agian gauza batzuk aldatuko dira, baina segur aski ez pentsatua genuen bezainbertze, edo nahiko genuen bezain fite. Akaso hurbilean gehiagotan erosten hasiko gara, agian ez dugu kapritxoz bidaiatuko, beharbada zaintza lanak bertze modu batez ikusiko ditugu. Baina segur aski gutti mugituko dira handien esku diren horiek: ERTEak akitu eta izanen ez ditugun bestetako suziriak bezain fite iganen da langabezia; lan prekarioa halatsua mantenduko da, edo prekaritatea ere galduko du lanbidearekin zaintzaileak. Hezkuntza sistemak bere horretan segituko du, merkatuaren menpe orain, ikasle, irakasle eta gurasoen datuak Googlek ongi bilduak etxealdian. Batzuk errateagatik.

Eta hala ere esperantza dugu, eta esperantzarekin biltzen omen dugu animoa. Baina kontuan hartzen badugu esperantza Pandoraren kutxan gelditu zen azken gaitza dela, atera gabe gelditu zen gaitza, ez dakit ez ote dugun baliatzen utzi behar. Edo zertarako erabili pentsatu. Ez ote dugun sobera

**«EGIN DEZAKEGUNA EGITEN HASTE DUGU HOBERENA, EDO EGITEN SEGITZEA»**

arin aipatzen, sobera sinesten eta egin beharreko aldaketak horren menpe uzten. Badakigu ez dela esperoan egotea edo esperantza gauzak lortzeko bidea. Aldaketak eman eta ez emate horretan, politika eta naziogintzan ez dakit ongi ezker, eskuin, goiti edo beheiti egiten ari garen. Inoiz baino gehiago egon gara Espainia eta Frantziara begira, normalki onartzen ez ditugun agintariek zer erraten duten erne. Agian presidenteak ez, baina osasun ministroak bai? Independentzia sena bigarren mailara pasatu da kezka hila bizikoa zelakoz. Euskararena berarekin batean.

Gure eskualde honetan preseski, konfinamenduak inposatutako mugak lehendabiziko egunetik ezarri zituen, aspaldiko barrera herdoilduak plastikoengatik ordezkatuak, polizi mingots haien ordezkari militarrekin. Gaurgero sinetsia genuen pixka bat European ginela, edo? Baina ez, baigorriarrak Erratzurat joateko Dantxarinean barna pasatu behar izan du, edo beratarak Zugarramurdira joateko alimaleko itzulia egin. Konfinamenduan izan ez garen bezala, deskonfinamenduko faseetan momentu bakar batean ez gara European izan. Keinu bat izan zen Izpegin maiatzaren akitzean, mugarik gabeko egonaldia batekin gozatuz harat hurbildutako guziena. Muga deitzen duten hori elkartzeko lekua dela ongi azpimarratuz.

Agian esperantza Pandoraren kutxan utzi eta egin dezakeguna egiten hastea dugu hobereana. Edo egiten segitzea, bakoitza etxealdia hasi aitzin zegoen tokitik. Hau da, guk egiten ahal ditugun aldaketak egin, eta zuzenean gure esku ez diren horiek karrikak okupatuz aldarrikatu, hartu eta lortu. Ez dugu esperantzaren beharrik

## 11 GALDERA LABUR

JULEN RETEGI URROZ DONEZTEBEKO GAZTEA

## «Okerrik ez bada, bestetan neurriak betez seinaleren bat izanen da»

### Nor da Julen Retegi?

Ahalik eta hobekien bizitzen saiatzen den Doneztebeko gaztea.

### Zein dira zure zaletasunak?

Lagun artean otordu eder bat egin eta trago batzuk hartzeaz gain, kirola aunitz gustatzen zait (futboleko jokatzeari, mendia...). Bertozealea ere banaiz.

### Gazte Burrenbako kidea zara. Noiztik?

Ez dakit zehazki, baina bizipahiru urte izanen dira. Doneztebeko gazteria pixka bat mugiarazteko intentzioa genuen talde bat elkartu ginelako sartu nintzen.

### Azken aldian ezin izan dira ekitaldiak antolatu...

Nahiko geldirik egon gara. Hala ere, Etxealditik Euskaraldira ekimenean parte har-

tu eta Doneztebeko gazteak parte hartzera animatu ditugu.

### Zer da orain esku artean duzuen?

Konfinamendua hasi aitzinetik sagardotegira joateko intentzioa genuen, baina, bertan behera gelditu zenez diru hori nola bueltatu pentsatzen ari gara. Oraindik nahiko geldirik egon arren, laster besta tikiak prestatzen hasiko gara.

### Normaltasunera bueltatzen garenako, baduzue ekitaldirik buruan?

Argi dago gauzak ongi badoaz besta tikiak aurretik zer bait antolatuko dugula.

### Herriko bestarik ez da izanen aurten... Nola bizi dituzu egun horiek?

Urteko egun politenetakoak izaten dira eta lagunartean eta kontent bizi ditut. Txosna eta plaza giro hori falta izanen ditut aurten.



### Bestak ez, baina seinalerik eginen duzue?

Udalak bestak bertan behera gelditu direla erran duenez, zaila izanen da zer bait antolatzea. Hala ere, gauzak ongi badoaz kuadrillak eta legeak errespetatuz otordu edo seinaleren bat ez da faltako.

### Zertan aldatuko zaizu uda aurten?

Orain arte ia uda guztian herrietako bestan ibiltzeko asmoa genuen. Aurten ez da horrela izanen eta bertze plan lasaia-

go batzuk egiteko aukera izanen dugu.

### Zer alternatiba dituzu buruan?

Beti dugu aukera naturaz gozatzeko eta uda honetan ere mendia inoiz baino gehiago zapalduko dudala uste dut. Igerilekua itxia egonen da, ea errekekin zer gertatzen den...

### Ekain bukaeran akituko da alar-

ma egoera. Irailan besta tikiak... Nahiz eta antolatzen ez garen hasi, okerrik ez bada besta tikiak ospatzeko intentzioa dugu.

**1951tik**  
**Casa Cambra**  
**lentzeria-etxea**

Tafalla, 13 · IRUÑEA · 948 230 634

*Albornozak*  
*Mantelak*  
*Kuxinak*  
*Edredoi nordikoak*  
*Ohe estalkiak*  
*Maindireak toailak*  
*Edredoi-azal nordikoak*

## IRAKURLEAK MINTZO

**Kudeaketarik gabeko landake-  
tekin ez goaz inora**

**JUAN MIGUEL VILLARROEL GARCIA** | MENDI  
INGENIARIA, FORESNA-ZURGAIA NAFARROAKO BASO  
ELKARTEKO KUDEATZAILA, ESPAINIAKO BASOZAIN  
ELKARTEEN KONFEDERAZIOAREN BARNE DAGOENA

25 urte baino gehiagotan bilerak, foroak, kongresuak egin ondok eta hainbatetan kudeaketarik gabeko mendiak arriskutsuak direla azaldu ondok, bertze behin harritu egiten naute lehentasunek, eta harritu gizarteak zuhaitz bat landatzea planeta salbatzea dela dioen ideia nola barneratu duen ikusteak.

Europar Batasunak biodibertsitaterako bertze estrategia bat luzatu du 2030erako, natura jasaten ari den suntsiketa geldiarazteko. Egindako proposamenetako bat 3.000 milioi zuhaitz landatzea izan da. EBk onartu du, lege, estrategia eta jarduera planekin ez dela natura babestea lortu. Nire iritzi xumean, ideia ez da txarra, baina egin beharko genituzkeen bertze neurri aunitz daude. Ezezagunak dira gizarteak, zuhaitz bat moztea krimena delako ideia erraietaraino sarrarazi dutelako. Egia da Asia, Afrika edo Amazonian ere hori horrela dela, baina Europako errealtatea bertzelakoa da.

Europar basoak handitzen ari dira, baina arazoa hori nola egiten den da. Landa eremuak jendez hustuak, artzaintza edo landa eremuetako bertze lanbideak desagertuak, motozerra lanaren degradazioa, inguruak eta inguruaren aukerak ezagutzen zituztenen biloben ezagutza falta, mendiak ez direla landu eta zaindu behar pentsatzen duen gizartearen ezjakintasuna... eta mendiak bazter batera utziz, erretzeko arriskua areagotzen duten eta udan su hartzeko prest uzten duten abar luze bat. Horrek guztiak gure ondare berdea galtzea dakar, eta suteak itzaltzen diru aunitz eta aunitz gastatzea.

Hondamendi natural horrez gain, badi-  
ra kontuan hartzeko bertze zenbait ohar:  
gero eta gogorrago jotzen duten izurriak  
eta gaixotasunak. Gure basoak gero eta  
ahulago daude eta aldaketa klimatikoak  
eragiten dituen tenperatura aldaketek ez  
dute laguntzen, eta badakigu. Honekin

guztiarekin hauxe da adierazi nahi dudana: zuhaitzak landatu behar dira baina are garrantzitsuagoa da duguna kudeatzen jakitea, eta hori modu jasangarrian egin behar dugu. Horretarako dirua behar da. Basogintza eta basoa planifikatzea epe luzera egin beharrekoa da eta politikoki hori ez da errentagarria. Aitzitik zuhaitzak landatzea errentagarria da, baita sute bat itzaltzea ere, errentagarritasun mediatikoa berehalakoa delako.

Europa mailako baso-politika bat behar dugu, bertako herritarrek pentsatu eta diseinatutako politika, behetik goitira egindakoa. Politikariek eta administrazioek ere gaiaren inguruko hausnarketa egin beharko lukete. Lagundu ordez lurraldearen dinamismoa eta lana zailtzen duten legeak ditugu eta erronkak, legeak sortu eta onartu beharrean, daudenak murriztu eta eraginkorragoak izatea behar luke.

Bertzetik, naturaren babesaren eta produktioaren arteko oreka horretan ez dugu atzendu behar industriak duen eta izan behar duen garrantzia. Basoko produktuak bultzatzeko eragileak dira, eta orokorrean, jasangarriak, ekologikoak, berriztagarriak eta natura errespetatzen dutenak. Horixe da gizarteak eskatzen duena. Areago, egungo krisi honetan, lanpostuak sor ditzake.

Ingurumena zaintzen duten produktuak nahi baditugu, dudarik gabe gure basoak zaindu behar ditugu, baina kudeatu ere egin behar ditugu. Horretarako politika ausartak behar ditugu, egiazko neurriak, eta batez ere aurrekontuak.

Behi-, ardi- edota zaldi-azienden artzainek haragia sortzetik haratago, mendiak garbitzen laguntzen dutela ohartuko bagina eta hori egiteagatik ordainduko balitz, beharbada lanbide bat berreskuratu ahal izanen genuke. Ongi egindako kudeaketa batek sute arriskua murriztuk balu, beharbada suteetara bideratzen den dirua prebentziorako erabili ahal izanen genuke. Bertako jendeak teknologia berriekin izurrite bat detektatu eta segituan hori jakinaraziko balu, baliteke pandemia bat saihestea. Mendiko lurren jabeak mendiak kudeatzen segitzera bultzatuko bagenitu, eta neurri batean horregatik saritu, lana erraztu eta gastua murrizteko neurriak

indartuko bagenitu, administrazioak dinamikoagoak eta eraginkorragoak izanen balira... Dudarik gabe, gure mendiak osasuntsuago izanen liriateke, aldaketa klimatikoaren aitzinean indartsuagoak, lana sortuko lukete, landa eremuetako populazioa mantenduko lukete, ekonomia berdearen eta bioekonomiaren alde egingen lukete...

Zuhaitzak landatzea aunitzetan hagitx beharrezkoa eta hagitx mediatikoa da, eta gure basoak ongi kudeatzea are zailagoa eta isilagoa da, fokoetatik urruti dagoena. Hala ere, Europako basoen biziraupenerako ezinbertzekoa da.

**Historia argitzen**

**ESTEBAN IRUSTA MALLEA**

Jakina da historia ofiziala, ikastetxeetan irakasten dena, agintarien interesen aldekoa izaten dela. Euskal Herrian berdin gertatu da. Gure historia Espainiaren interesen arabera kontatu da. Gaur egun ere, ikastetxeetan irakasten den historiak, neurri handi baten, Espainiak agindutakoa izan behar du. Hori, beste gaien artean, garbi ikusten da foruen kontaketa.

Ehunka urtetan, etengabe, euskal agintariek eta espainolek eztabaidatu dute foruen jatorria. Historialariek bi interpretazio kontrajarri dituzte. Espainiaren aldekoentzat, foruak erregeek emandako pribilegioak dira eta Euskal Herria, beti kanpotarren morroi izan da. Ez da inoiz burujabe izan. Ideia horiek defenditzen, besteak beste, Juan Antonio Llorente nabarmendu zen (Errioxa, 1756-1823). Manuel Godoy, Carlos IV.aren ministroaren aginduz, borts liburu idatzi zituen foruen kontra. Bere ideiak defenditzeko dokumentuak faltsifikatu, aldatu, eta beste trikimailuak erabili zituen, bere aurkako historialariek diotenez. Gero, damutu eta erre omen zituen.

Foruen aldekoek, berriz, jatorria herrien ohituretan jartzen dute, ezagutzen ditugun konstituzioak sortu baino lehenago. Tesi honen arabera, euskal lurraldeak, bakoitza bere desberdintasunekin, independenteak izan ziren. Eta egoera horretatik abiatuta, askatasun osoz egiten zituzten kontratuak

**IRAKURLEAK MINTZO**

Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 24 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. TTIPI-TTAPAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen-deiturak, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.



Koskontako bidea, 7 - 1, 31770 LESAKA

info@ttipi.eus



948 63 54 58

beste lurraldeekin. Foru-baimena izan daiteke horren adibide garbia; hau da, Espainiako agintarien dekreturen bat ez bazegoen ados foruekin, ez zuten betetzen.

Beste argumentu bat euskara bera galdu ez izana da. Gertaera horiek eta beste asko kontuan harturik, foruek euskal lurraldeei burujabetza eman zietela dioten historialarien artean, Antonio Morales (Cordoba), Luis Salazar y Castro (Valladolid), Rafael Floranes (Kantabria) eta Estanislao Labayru y Goikoetxea, (Filipinak) daude. Jose de Landazuri Romarate (1730-1805) gasteiztarrak 1798an argitaratu zuen *Historia civil de la M.N. y M.L. provincia de Alava* liburuan adierazten du Araba eta Bizkaia ez zirela inoiz izan inoren menpe. Geroxeago ageri da Pedro Novia de Salcedo (1790-1865) bizkaitar politikari eta idazlea, 1829an idatzi eta 1851ean argitaratu zuen foruen aldeko *Defensa histórica, legislativa y económica del Señorío de Bizkaia y Provincias de Alava y Gipuzkoa* libururakin. Gogor kritikatzan du Llorente. Novia de Salcedo euskaltzale ere bazen, eta hiztegi bitxi baten egilea da. Bizkaiko agintarien eskariz, Llorente eta bere tesiarren kontra idatzi zituztenak Francisco de Aranguren Sobrado (Barakaldo, 1754-1808) eta Fray Domingo de Lerín y Clavijo izan ziren, azken hori ezezaguna oraintxe arte. Arangurenek bi liburu idatzi zituen, eta bigarrena, debekatua, 1994an argitaratu zuten. Lerenen obrak 2015an argitaratu ziren. Gezurra dirudi baina obra hauek 200 urte egon dira ezkutuan. Ez da kasualitate hutsa. Kasu gehiago daude. Pedro Fontecha y Salazar (1673-1753) arabarren *Escudo de la más constante fe y lealtad* liburua bahitua izan zen foruen aldeko defentsa sutsua egin zuelako, eta Antonio Eguzkitza inprimatzaile bilbotarra espetxeratua. Elias Amezagaren *Los fueros, raiz de la basconidad* informazio ugari ematen du. Tartean aipatzen ditu itzal handiko Laramendi jesuita (1690-1766) eta Mateo Moraza gasteiztarra (1817-1878). Euskal Herriko egunkarietan Alfonso XII.a erregearen ezkontzak baino orrialde gehiago bete zituen egun berean egin zen Mora-

zaren hiletak. Foruei buruz liburu ugari argitaratu dira. Azkenengoen artean, J.M. Gorordoren *Bizkaia en la Edad Media*.

## George Floyd

JUAN JOSE PELLEJERO GOÑI

Enegarrenez poliziak gizaseme bat du akabatu;  
Mineapolis da hiria, Estatu Batuetan kokatu.  
Euren kontra oldartzeko delitua poliziak leporatu;  
egia, alabaina, bere azalaren koloreak salatu.

Esklabo den guziak behar du bere askatasuna eskuratu;  
Abraham Lincoln-ek hasitako lana ez da tamalez bukatu.  
Generoak, arrazak zein etorkinak maiz gaituzte bereizi,  
batzuek zapalkuntzak jasan dituzte nahiz inoiz ez merezi.

Ehun urte igarota Martin Luther King bera garbitu,  
*Denak berdinak sortu gara* amestea zen bere delitu.  
haiek gainean eta azpian gu ez du iraunen betiko;  
berdintasuna da gure borroka eta ez dugu etsiko.

*Gizonak, gizona otso* da arbasoek erakutsia,  
Ez ote da gure baliorik preziatuena emaniko bizia?  
George Floyd, basapiztia gisara, hatsik gabe utzia;  
Nola demontre sortu dugu holako gizarte higuin garria?

Bere indarkeria erabili dute eta gu izutzen saiatu.  
Herria gara, ordea, eta behar dugu etsaia garaitu;  
elkartasuna dugu indarra eta kemenez diogu eutsiko.  
Gure anaia eroriaren alde jar gaitzen belauniko.

## BOTA BERTSOA

ANE TELLETXEA IGOA  
LESAKAKO BERTSOLARIA



## Berdintasunetik urruti

Doinua: Amodioa gauza tristea

*Ameriketan pasatakoa  
horren zaila da erraten  
bertan hitz egin nahi dun orori  
nola\_arnasa ohi zaion ken  
nahiz eta bertze hainbat arlotan  
izan hamaika garapen  
ikus daiteke ze gizatasun  
urri ta\_eskasa daukaten  
argi dago han kolore batek  
zenbat baldintza dezaken.*

*Pensamendua jarri ezker  
haren lepoko kolpean  
injustiziak gailentzen dira  
oraindikan gizartean  
aldatzeko ta berdintasun bat  
sortzeko gure artean  
kalea\_hartzea gauza ona da  
protestara joatean  
baina ezin da dena gelditu  
erantzun bakar batean.*



## «Bi enpresen arteko elkarlana ona litzateke erremontearendako»

XANTI UTERGA LABIANO DONEZTEBEKO ERREMONTISTA

Hiru hilabeteko geldialdiaren ondotik gogotsu dago frontoietan bere onena emateko. Oriamendirekin izan dituen tirabirak alde batera utzita, Nafarroan sortu berri den enpresan eginen du itzulera

G. PIKABEA | DONEZTEBE

18 urte galtza zuriak soinean eta erremontea eskuan. Hala xe daramatza Xanti Uterga Labiano (Doneztebe, 1984) erremontistak. Aunitzerako eman dio ibilbideak, eta hasierako helburuak gaintututa, aitzinera begira segitzen du. Koronabirusa tarteko, hiru hilabetez frontoietatik kanpo egon ondotik, hilabete honen hondarrean itzuliko da. Hori bai, enpresa berriarekin eginen du plazarako itzulera. «Behartutako aldaketa» izanagatik, «ilusioz» mintzo da, «kantxara atera eta dena emateko gogoz».

**18 urte erremonte profesionalean. Nolako oroitzapenak dituzu?**

Hasiera arrunt polita izan zen eta oroitzapen onak ditut. Urteak neramatzen Euskal frontoian erremontean jokatzeko eta hantxe egin nuen debuta, duela 18 urte, uztailaren 7an. Herritik jende pila joan zen, sanferminak izanda frontoia bete egin zen eta giro ederra sortu zen.

**Orain artekoak nolako balorazioa eginen zenuke?**

Nahiko balorazio positiboa. Debutatu behar nuenean, nire helburua zein zen galdetu zidaten eta lehenbiziko mailako partidetan jokatzeko gero konforme izanen nintzela erantzun nuen. Urteak pasatu dira eta urte dezente daramatzat partida nagusietan. Binakako lau txapel ere lortu ditut eta binakakoan hiruzpalau urtez hortxe ibili naiz. Nik uste mai-

la polita eman dudala. Lesioen aldetik, berriz, frontoian ez dut lesio larriarik izan. Lan-istripua izan nuen eta horrek hamar hilabetez geldirik egotera behartu ninduen, baina bertzela, kontent nago.

**2012an, lan-istripuaren ondorioz erremontea uztekoan egon zinen...**

Zalantza aunitz izan nituen, ez bainekien besoa nola geldituko zitzaidan. Nahiz eta eskuinarekin jokatu, ezkerreko besoak beti laguntzen du edozein mugimendu egiterakoan. Nire kasuan, ezkerreko besoa erdi hilik nuen, baina errehabilitazio saio luzearen ondotik erremontea probatzen hasi nintzen. Ez dakit gogoagatik edo zergatik baina bueltatu ondoko hiru hilabeteak beharbada kirol mailan egin ditudan onenak izan ziren.

**Momentu onak gehiago dira?**

Txarrak beti izaten dira. Joko aldetik gaizki zaudenean, hainbertze gozatzen ez duzula ikustean... Baina orokorrean momentu onekin gelditzen gara eta txarrak agudo atzentzen dira. Urteotan lagun pila egin ditut, jende aunitz ezagutu dut frontoian eta frontoietatik kanpo eta horrek bertze guztia alde batera uzten du.

**«DESEROSO SAMARRA IZAN NAIZ ORIAMENDIKO GESTOREENDAKO»**

**Baduzu bereziki gogoan gelditua duzun momenturen bat?**

Binakako lehenbiziko txapela janztea izan zen berezietariko. Ordurako urte aunitz neraman profesionalean, eta palmaresean lekua izanen ote nuen edo ez zalantza hasia nintzen. Azkenean, lesio horren ondotik, bueltatu eta urte hartan binakakoa irabazi nuen. Hura arrunt berezia izan zen, zama gaintetik kentzea bezala. Gerora bertze txapel batzuk etorri dira eta denak bereziak diren arren, lehenbiziko hura gehixeago maitatua izan da.

**Zure zein ezaugarri nabarmen- duko zenuke?**

Aurrelari alaia naiz. Ez dut golpe handirik eta defentsan badirani baino dezente hobeak, baina tantoak akitzen abila eta pilotari erasokorra naiz. Urteekin lasaiago eta buruarekin jokatzeko ere ikasi dut.

**Koronabirusaren eragina erremontistek ere sumatu duzue.**

**Nola pasatu duzu egoera?**

Etxean geldirik, fisikoki mantentzeko ahal nuena eginez, baina aukera handirik gabe. Ateratzea baimendu zutenean, lasterka eta ariketa gehiago egiten hasi nintzen eta duela aste batzuk frontoian jokatzeko

**«EZ NAIZ ISILIK EGON ETA HORI EZ DA DENEN GUSTUKOA IZAN»**

hasi ginen, hasieran banaka eta gero binaka. Nahiz eta normaltasunera ez garen bueltatu, poliki-poliki ari gara.

**Oriamendik martxoaren 31 n eten zizuen kontratua. Nola hartu zenuen erabakia?**

Inguruan egoera nolakoa zen ikusita, bagenekien zerbait etor zitekeela. Gure kasuan, ia pilotari gehienak erremontean aparte bertze lan batean ari gara eta enpresak bertze lan bat izanda aldi baterako erregulazio espedienteak aurkeztea arrunt zaila zela jakinarazi zigun eta hori sinetsi genuen. Kontratua orduan akitu zitzaigun. Ordurako bertze enpresa erremontistek proposamenak egiten hasia zen eta azkenean, pilotariek enpresa batera edo bertzera joateko erabakia hartu behar izan dute.

**Zure kasuan Nafarroan sortu berri den enpresara joan zara. Baina behartutako aldaketa izan da.**

Bai, Oriamendik ez didalako kontratua berritzeko proposamenik egin. Ez dut enpresa baten edo bertzearen eskaintza baloratzeko aukerarik izan. Oriamendirekin tirabirak izan dituzu. Azalduko zenuke?

Oriamendiko gestoreendako deseroso samarra izan naiz. 18 urte daramatzat frontoian, eta ados egon ez naizenetan enpresari hori jakinarazi izan diot. Ez naiz inoiz isildu eta hori ez da denen gustukoa izan. Tirabirak, hala ere, ez dira oraingoak. Lehenagotik desadostasunak izan ditugu baina lehengo udan okertu ziren. Erremonte Fundazioa eta enpresa akordio batera ezin ailegatuz zebiltzala eta, bizpahiru pilotarik, denen izenean, negoziazio horietan sartzea erabaki genuen. Tartean nintzen ni, enpresarekin kritiko samar, eta harremana tenkatu zen. Aurtengoa urak gainezka egiteko falta zen tanta izan da. Ia pilotari guztiak ez ginen ados binakako txapelketarako aukeratu zuten formularekin eta horixe jakinarazi nion enpresari nire erabakia publiko egin aitzinetik. Enpresak, ordea,



publiko ez egitea erabaki zuen eta, deus erran gabe asteak pasatzen ari zirela ikusita, nire jarrera publiko egitea erabaki nuen. Hori ere ez zitzaien gustatu, baina niri ere ez beraien jarrera. Gero txapelketa horretan hankako lesio bat tarteko baja hartu nuen. Horren ondotik, hilabete bat jokatu gabe pasatu nuen, arrazoirik eman gabe. Azalpenak ere eskatu nizkien baina ez zidaten deus erantzun. Eta orain, krisi hau tokatu denean, bertze pilotariei eskaintzak egiten ari zirela ikusita, eta prentsan arrazoi jakin batzuegatik ez zidatela deitzen erran zutenean, hori gezurtatzea erabaki nuen. Argitu nahi badute argi dezatela, baina egia kontatuz. Gustatu edo ez nik egia kontatu dut.

#### **Entrenamenduen harira egindako adierazpenez ari zara, ezta?**

Bai, Iruñera edo Hernanira joatera behartu nahi gintuzten eta nire kasuan, goizetan lanean ari naizenez eta haurrak etxean izanda, bakarrik jokatzeko bazen Doneztebeko frontoian nahiago nuela adierazi nien. Hori ez zela serioa erantzun zidaten, baina aldi berean, bertze erremontista batzuk beraien herrietan entrenatzen ari ziren. Hori ez da aitzakia. Helburua kolpe batzuk ematea izanik, ez du inporta 50 edo 30 metroko frontoia den.

#### **Gauzak garbi erratearen ondorio izan da eskaintzarik ez jasotzea?**

Bai, enpresarekin izan ditudan tirabiren ondorioa da. Badira kontu gehiago ere. Urteetan soldataren zati bat kobratzen ibili ginen, %100 jaso gabe. Iaz Oriamendik, dirutza ordainduta, Galarreta erosi zuenean, urtetan pilotariei ordaintzeko dirurik izan ez eta frontoia erosteko dirua atera izana aurrepigaratu nien. Dena pilatu da. Enpresako Whatsapp taldean azalpenak eskatu nituen eta kontratua berri ez dugunak taldetik bota gintuzten.

#### **Kirol maila onean zeunden...**

Binakako txapelketatik partidarik galdu gabe atera nintzen eta beraien puntuazioaren



Xanti Utergak ilusioz hartu du Nafarroan sortu berri den erremonte enpresarekin jokatzeko aukera.

arabera, puntu gehien nituen nintzen. Kirol mailagatik ezin dute deus argudiatu.

#### **Pena hartu duzu?**

Galarreta gure etxea bezala izan da eta Oriamendik erosi zuenez, bere esku dago gu harat bueltatu ahal izatea eta hori da pena sortzen didana: hango lagunak, hango giroa... Hala ere, proiektu berriak ilusio handia egiten dit.

#### **Nolako enpresa da?**

Talde polita da, pilotari euskaldunak gara eta gure artean arrunt giro ona dugu. Hori aldageletan eskertzen da, zerbait gaizki doanean edo konpondu behar denean errazagoa delako. Kirol mailan, koadro konpentsatua dugu eta tartean pilotari handiak. Ilusio berezia

**«TALDE POLITA  
GARA ETA GURE  
ARTEAN ARRUNT  
GIRO ONA DUGU»**

egiten dit herriko eskolako gazteak koadroan ikusteak.

#### **Bertze enpresa bat izateak nolako ekarpena egin diezaioke erremonteari?**

Positiboa. Erremontea arrunt baxu egon zen, maila profesionalean desagertzeko zorian. Eta ideia berritzaileak dituen proiektu bat erremontetarako edo edozein kiroleterako ona da. Egokiena biak elkarlanean aritzea izanzen litzateke baina batek ez badu nahi biek ezin dute egin. Momentu jakin batzuetan akordioa lortuko duten itxaropena dut eta hori erremontearantzat ona izanzen da. **Galarreta Oriamendirena da eta Euskalen erabileraren jabe ere bera da. Horrek frontoi laburretan aritzera mugatuko zaituzte?**

**«2021A AILEGATU  
ETA KANTXAN DENA  
EMATEKO PREST  
GAUDE»**

Proiektu hau aurkeztu zigutenean garbi erran ziguten frontoi motzean eta luzean jokatzeko proiektua dela. Tradizionalki erremonteko frontoiak izan direnak Oriamendiren esku daude eta alde horretatik beraien dute hitza. Aurtengo urtea motzean jokatuko dugu, baina ohituak gaude, 13 urte daramatzagu. Hala ere, pilotariak purista samarrak garenez, frontoi luzeak gustuko ditugu. Hortaz, Oriamendirekin akordiorik ez badago, bertze aukerak aztertu beharko dira.

#### **Etorkizunean non ikusten duzu zure burua?**

Orain dela bi hilabete, bukaera hurbil zegoela erran izanzen nuen, baina orain gogotsu nago eta urte batzuek segitzea espero dut. Bereziki 2021a dugu begiz joa, aurtengoa ezohiko egoera delako. Hortaz, 2021a ailegatzeko gogoz eta kantxara atera eta dena emateko prest gaude. Gozatzea dugu helburu eta guk gozatzen badugu jendeak ikusten gozatuko du.

## Bakardade sentimendua itxialdian

Bakarrik bizi diren 70 urtetik goitiko eskualdeko zortzi lagun biziaren bizipenak bildu ditu TTIPI-TTAPAK Covid-19ak sortu duen ezohiko egoera honek nola eragin dien jakiteko. Neurri handiagoan edo tikiagoan denei aldatu zaie eguneroko martxa

### G. PIKABEA

Koronabirusak gehien kolpatu dituenak izan dira, kutsatzeko arriskutik ihesi neurriak zorrotz bete behar izan dituztenak, ezohiko egoera honetan onartu diren legearen ondorioak gehien sumatu dituztenak, etxetik ez ateratzeko aginduak bereziki baldintzatu dituenak, herri handietan ordutegi mugatua atera ahal izateraino. 70 urtetik goitiko ari gara. Senitartekoen babesean igaro dute aunitzek itxialdia, baina aunitz dira bakarrik bizi direnak, eta halaxe egin behar izan diote konfinamenduari aitzin: eguneroko paseotxoak alde batera utzita, senitartekoen bisitarik gabe, seme-alaben besarkadarik gabe, bilobak ikusi eta haien musurik gabe... Batzuentzat gogorxeagoa izan da, aiseago gainditu dute bertze batzuek, eta orain aitzinera begiratzen dute.

Egoera hori hurbiletik bizi-tzea tokatu zaien eskualdeko zortzi lagun testigantzak bildu ditu TTIPI-TTAPAK; bakarrik bizi diren 70 urtetik goitiko zortzi lagun biziaren.

### Pepi Olaetxea Altzugarai

Beran bizi da Pepi Olaetxea Altzugarai (Lesaka, 1946), duela lau urtetik bakarrik, «senarra zentro batean dagoenetik». Hain zuzen, horrek sortu dio «hutsunerik handiena» ezohiko egoera honetan, «senarra bisitatzera ezin joan ahal izatea». Elizondoko Benito Menni zentroan du eta «ongi zaindua dagoenaren lasaitasuna edukita ere, bideodeien bidez

bakarrik ikusi ahal izatea gogorra» egin zaio. Ia hiru hilabetez bisitarik gabe egon ondotik, ekaineko lehenbiziko astean bisitatzeko aukera izatea kontent hartu zuen: «neurri zorrotzekin izanda ere, kontaktu fisikoa bezalakorik ez dago».

Konfinamenduarekin, eguneroko martxa ere aldatu zitzaion. Ordura arte, «goizetan etxeko lanak, mandatuak eta tarteka bazkaria bilobentzat» eta «arratsaldetan, siesta, paseoa eta telebista ikusi» egiten zituen, baita «astean behin



Beran bizi da Pepi Olaetxea lesakarra eta 74 urte ditu.



Martin Rodriguez zugarramurdiarrak 70 urte ditu.

**«ERRUTINAK HARTUZ NAHIKO ONGI EGON NAIZ»**

PEPI OLAETXEA, BERA

**«EZ NAIZ GELDIRIK EGON ETA EZ DA GOGORRA IZAN»**

MARTIN RODRIGUEZ, ZUGARRAMURDI

frantseseko klasera» joan «eta tarteka, lagunekin kafetxo edo aperitibo bat hartzera ere». Hori guztia bere horretan gelditu zitzaion etxean gelditze-ko aginduarekin: «hasieran mandatu batzuk egitera ateratzen nintzen baina gero etxean gelditzea erabaki nuen. Seme-alabek mandatuak ekarriko zizkidatela erran zidaten eta bilobak ere ez ziren bazkaltzera etortzen».

Egoerari aitzin egiteko, «errutinak» antolatzea erabaki zuen: «goizetan etxeko lan batzuk egiten nituen, hasieran armaruak hobeki ordenatzeko ere aprobetxatu nuen, gero frantsesa pixka bat lantzen nuen, pasilloan edo balkoian paseatu... Leitzea ere aunitz gustatzen zait eta behin ere baino gehiago leitu dut konfinamendu garaian». Teknologia berriei ere neurria hartu zien, frantseseko klaseei Whatsapez eman baitzieten segida: «hasieran kosta zitzaidan, ez nuelako behin ere egina, baina gero ikasi nuen». Eta horrekin batera, «Whatsapean Lesakako familiak dugun talde handiak» ere «distratzen» lagundu zion, «beti izaten zen zer ikusi».

Hala, bateko eta bertzeko kontuekin, arratsalde batzuetan «pixka bat aspertu» arren, «orokorrean nahiko ongi» pasatu omen zuen konfinamendua. Hala ere, gaiak «neurri batean kezka» sortzen diola ez du ukatu eta horretan komunikabideen eragina sumatu du: «hasieran notizi guztiak ikusten nituen eta dena leitzen nuen. Gero ohartu nintzen sobera kezkatzen nintzela eta egunean bi aldiz ikustea erabaki nuen».

Pasatuak pasatu, «mandatuak egitera eta paseatzera» ateratzen hasia da gaur egun. Hori bai, segurtasun neurriak betez: «dendetara eta toki publikoetara maskararekin joaten naiz. Paseatzerakoan ez dugu maskararik erabiltzen baina bi metro edo gehiagoko tarte mantentzen dugu».

Olaetxeak «honetatik zerbait ikasi izanen dugun» itxaropena ere badu, «nahiz eta nire dudak ditudan, gizakiok hainbertze gauza pasatu ditugu eta ez dakit sobera ikasi dugun...». Bere hitzetan, «botere publikoak osasungintza, irakaskuntza eta gizarte zerbitzuak zeinen garrantzitsuak diren ikasiko balu, ez litzateke gutti izanen. Eta estatuak defentsan hainbertze diru gastatu beharrean, ikerketara bideratuko balu denontzathobe».

### Martin Rodriguez Zubiri

2003an galdu zuen ama Martintxo Rodriguez Zubirik (Zugarramurdi, 1950) eta geroztik bakarrik bizi da. Zaletasun ugarikoa izaki, horiei tokia egiten saiatzen da ahal duen gutzietan: «brikolajea aunitz gustatzen naiz, mendizalea naiz eta mendira ere aunitz ateratzen naiz, belarrik pikatzen aritzen naiz... Beti zerbaitetan aritzen naiz, ez da ohikoa ni etxean egotea».

Zorteko sentitzen da halako inguruan bizitzeko aukera duelako: «ez da gauza bera baserri batean edo herri ttipi batean bizitzea edo herri handi edo apartamentu batean bizitzea» eta hori ederki sumatu zuen konfinamendu garaian: «hemen etxe guztiek badute bere eremua eta ateratzeko aukera izan dugu». Horrekin batera, bi zakurrak «paseatzera ere egunero» egiten zuen bera irteera. Eta horri esker, ez zitzaion hain gogorra egin itxialdia: «mendian ibiltzeak aunitz lasaitzen nau» eta «herrian ditudan arreba eta ilobekin ere harremana mantendu dut». Gehiago ere kontatu digu: «30 urtez jende aitzinean aritu naiz lanean eta orain lasaitasuna nahi dut eta hori etxe atarian dut».

Bere kasuan, «okerrena Iparraldera joateko aukerarik ez izatea» izan da: «ohitura handia dut iparraldera joateko. Donibane Lohizune, Sara, Senpere... ondo-ondoan ditugu eta ezin izan dugu joan.

Itsaso bazterra maite dut baina ezin izan dut joan, erosketak gehienak Iparraldean egiten ditut baina debekatua izan dugu eta Iparraldeko lagunek ezin izan dute bisitan etorri».

Gaiak kezka sortzen diola ere onartu digu: «telebistan eta irradian ez da bertzerik aditzen, eta gainera gu arrisku handian garela erraten dute behin eta berriz». Alde horretatik, segurtasun neurriak hartzea «garrantzitsua» iruditzen zaio: «hemendik aitzinera ere segurtasun neurriak hartzen segituko dut, nonbait sartu behar dudanean maskara paratuz». Horrekin batera, «elkar laguntzearen» garrantzia nabarmendu du:

«sumatzen duzularik hainbertze jende zendu dela, elkartasuna garrantzitsua iruditzen zait, elkar gehiago lagundu beharko genuke».

### Inaxi Zabala Almandoz

«Bakardadea» izan da gogorrena Inaxi Zabala Almandozentzat (Arano, 1950). Senarra orain dela zazpi urte hil zitzaion eta orduetik bakarrik bizi da, «bi alabak ere kanpoan bizi dira beren familiekin».

Koronabirusa ailegatu zen arte, «etxeko lanak eta paseoak» egiten zituen egunero. Horrekin batera, «ostegunetan alaba gazteenaren etxera joaten nintzen Ergobira (Gipuzkoa), ferian bueltatxo bat eginez,



Inaxi Zabala aranoarrak ere 70 urte ditu.



Arantzan sortu eta Igantzi bizi da 70 urteko Eulogio Mitxelena.

## «GOGORRENA BAKARDADEA IZAN DA»

INAXI ZABALA, ARANO

## «HOBE GENUKE HONETATIK ZERBAIT IKASIKO BAGENU»

EULOGIO MITXELENA, IGANTZI

ilobak ikusiz... Eta astebururako berriz etxeratzen nintzen. Astean behin jubilotekara joaten nintzen herrira eta yogara ere bai».

Etxean gelditzeko agindua rekin, ordea, hankaz gora gelditu zitzaizkion orduko harat-honata: «bi hilabete pasatxo egin ditu paseatu bai, baina gainerakoan ia etxetik atera gabe». Tarte horretan «inor ezin ikusi izatea» ez da erraza izan Zabalaarentzat: «ardien aitzakian eta enkargu batzuk ekarriz, koinatua eta koinata ikusten nituen, koinatua ia egunero. Eta alaba, hamabostean behin, enkargu handienak ekartzen zizkidanean». Baina «beste inor ez», dio: «koinataren mugikorrean asteburuetan biloben argazkiak ikusten nituen eta hark asko alegeratzen zidan eguna», aitortu digu.

Hasierako bakardadea gaudituta, paseoak auzokoekin egiten hasia da: «hasieran ez nintzen inorekin elkartzen paseatzeko, baina orain berriz auzokoak eguneroko paseora joateko elkartzen hasi gara». Tarte horretan, «Hernanira ilobaren ile-apaindegira eskapadatxo bat» egin zuela ere onartu digu baina gainerakoan, «berdintsu», jarraitu zuen Gipuzkoako muga ireki arte: «bisita askorik ezin izan nuen jaso Gipuzkoako muga ireki arte, baina bakarren bat jaso nuela aitortuko dut». Gainerakoan, «gaitzaren beldurrik ez» duela dio, «baina errespetua hartu beharko diogu, noski!».

### Eulogio Mitxelena Ordoki

«Herrira gutti atera naiz konfinamendu garaian, gurrpilaulkian farmaziara eta erosketak egitera astean behin joan izan naiz, baina gehiago ez». Halaxe aitortu digu Igantzin bizi den Eulogio Mitxelena Ordokik (Arantza, 1950). Agerrian utzi du itxialdiak Mitxelena egunerokoa ere aldatu zuela, bertzeak bertze, «bilobak ikusi bidenabar frontoi edo parke aldera, edo haiekin egiten zituen bueltak» eman

ezinik gelditu zelako, baita astean hiru aldiz Ubarmin klinikan egiten zituen errehabilitazio saioretara joan ezinik ere. Gehiago ere bai, «etxeko bisitarik gabe» gelditu behar izan zuen, eta «hori izan da gogorrena» beretzat: «Bi alaba eta semea ondoan ditut baina haiekin solas batzuk justu-justu egin ditut eta bertzeekin ezin izan dut egon». Etxe atariak, ordea, aunitzerako eman dio, «egunero atera naiz etxe atarira eta ibili naiz, bertzela atrofiatua gelditzen bainaiz».

Konfinamendu garaiko mugak ez ezik, udan ere nabaritu du aldaketa Mitxelenak. Etxetik bertan duen udal igerilekua irekiko ez dutenez, «egunero bizpahiru aldiz egiten nituen bisitarik gabe» geldituko delako: «kafe bat hartu eta haurrak ikusi bidenabar igerilekura joatea gustatzen zitzaidan, han pixka bat egon eta etxera bueltatu, hemen pixka bat ibili eta berriz joaten nintzen. Aurten, ordea, horrela beharko du». Bere ustez, «ongi pentsatu beharreko erabakia» izan da, «arriskutsua» izan daitekeelako: «batek huts egitea aski baita ingurukoak kutsatzeko».

Baina harat-honat horien faltan, seguru bertzelako denbora-pasak bilatuko dituela, hala nola, hainbertze gustatzen zaizkion zaletasunei toki eginez: «egurra lantzen eta haurrentzako pilota goxoak egiten gustura aritzen naiz».

Hortik aparte, ezohiko egoera honek ikasteko bide eman beharko lukeela uste du: «dena dugunean eta ongi gaudenean aunitz gauza ez dira baloratzen eta zerbait pasatzean ohartzen gara horretaz, niri min hartu nuenean gertatu zitzaidan bezala. Eta orain gertatu denarekin zerbait ikasiko bage-nu, hobe genuke».

**Txeli Arretxea Manterola**

Etxetik ez ateratzeko agindua zorrotz bete dutenetako bat da Donezteben bizi den Txeli Arretxea Manterola (Sunbilla,

1933). Konfinamendua indarrean sartu eta maiatzaren 2an etxetik ateratzeko baimena eman zuten arte, etxean egon baitzen, berak dioen bezala, «leihu batetik bertzera». Eta nahiz eta alarma egoera baino lehen egiten zuena alde batera utzi behar izan zuen, «ez naiz aspertu, ongi egon naiz».

2012an alargundu zen Arretxea eta bakarrik bizi da gerroztik, baina argi utzi digu «ez dut neure burua bakarrik harapatzen». Izan ere, konfinamenduaren aitzinetik «semeak egunero bazkaltzera etortzen ziren eta alaba orain kanpoan badago ere, maiz etortzen zen». Itxialdian ere ondoan izan ditu senitartekoak: «seme bat ez

da etxetik atera baina bertzea egunero etortzen zen bazkaltzera eta biloba bat nirekin egon da etxean konfinamendua garaian».

Konpainiarekin, etxeko lanetan eta laboreak eginez ez zitzaion gogorra egin itxialdia, zeregina ere topatu baitzuen: «Elizondoko zahar etxean maskarak behar zituztela jakin nuenean, horretan hasi nintzen. Eredu bat eman zidaten eta nik egindakoez balio zutela erran zidatenean, osasungintzak maskarak bideratu zituen arte, etxeko armairuan nituen kotoizko maindireekin maskarak egiten aritu nintzen».

Itxialdia pasatuta etxetik ateratzen hasia da berriz Arre-

txea, baina segurtasun neurriak betez dabil: «kanpora beti maskarekin ateratzen naiz eta garbitasuna ere aunitz zaintzen dut». Kanpoan, ordea, ez ditu bide beretik ikusten aunitz: «ez dakit prestatuak ez gaudelako, sinesten ez dugulako edo zergatik den baina jendea segurtasun tartea errespetatu gabe edo maskararik gabe ibiltzen da. Errepide bazterretan ere eskularruak eta maskarak ikusten dira eta horrek ez luke horrela behar».

Osasun aldetik, «ongi» ikusten du bere burua, baina «lana jaisten ari dela eta batzuk etxebizitza ordaintzeko edo jatekoa erosteko adina izanen ez dutela pentsatzeak kezkatzen nau. Eta pentsioak ukitzen ez badituzte, kontent!». Bere irudiko, «pixkan-pixkan kontua mugitzen hasi da, baina ez da lehenago bezain aise izanen».

**Pakita Goizueta Ondarrola**

«Martxoan konfinamenduan sartu ginenetik apirilaren 28ra arte etxetik atera gabe egon nintzen». Ongi gordeak ditu datak Pakita Goizueta Ondarrolak (Goizueta, 1940). Tarte horretan, goizeko paseorik eta arrasaldirekin gabe gelditu zelako, baita Gipuzkoan duen semearen familiaren edo herrian dituen biloben bisitarik jaso gabe ere. Hori aski ez, eta 80 urteak bete izanaren ospakizunik gabe ere gelditu zen: «koronabirusa ailegatu aurretik goizean nire lanak egin eta bazkaria jarri ondotik, paseora ateratzen nintzen. Handik bueltan pixka bat deskantsatu eta bazkaldutakoan, arratsaldean, berriz, paseora ateratzen nintzen eta lagun batzuk juntatu eta kontu-kontari aritzen ginen. Egunero egiten nuen hori eta itxialdiarekin dena utzi nuen».

Hasieran «nahiko gogorra» egin zitzaiola onartu digu, baina gero «ohitu nintzen. Eguerdian eta arratsean Goizuetan bizi den semea etortzen zitzaidan eta harekin kontu kontu-



87 urterekin ederki dago sortzez sunbildarra eta Donezteben bizi den Txeli Arretxea.



Pakita Goizueta goizuetarrak konfinamendu betearen egin ditu 80 urte.

**«ZAHAR ETXERAKO MASKARAK EGITEN ARITU NAIZ»**

TXELI ARRETXEA, DONEZTEBE

**«EGOERAK ERRESPETUA EMATEN DIT»**

PAKITA GOIZUETA, GOIZUETA

ri aritzen nintzen, baina bilobak ikusi gabe. Erosketak, berriz, semearen andreak egiten zizkidan». Fisikoki ere nabaritu zuen ondorioa, «hanka bat indarrak gabe gelditua dut eta asko gogortu naizela sumatu dut». Hori saihesteko «eskaileratan gora eta behera» ibiltzen hasi omen zen.

Apirilaren 28an lehen aldiz etxetik atera zenean hartu zuen arnas pixka bat: «bankura joan beharra nintzen eta enkarguak egiteko aprobe txatu nuen». Bilobak ere orduan ikusi zituen: «kanpora ateratzeko baimena eman zutenean semeak etxera ekarri zizkidan. Banuen gogoa», gaineratu du, baita «Usurbilen bizi den semearen familia ikusteko gogoa» ere.

Eta geroztik martxa horri heldu dio: «egunero nire paseoak egitera joaten naiz, eta asteen behin edo bitan enkarguak egitera ateratzen naiz, dendara sartzean maskara jantzita». Gainerakoan, egoerak «errespetua» ematen diola kontatu digu: «Goizuetan jendea nahiko ongi dago eta bi semeak lanean daude. Baina kezka sortzen didate lanik gabe geldituko direnek eta jatekorik ez dutenek».

### Carmentxu Garrido Martinez

Konfinamenduaren aitzinetik, itxialdi garaian eta ondotik «egunerokoa lasai-lasaia» duela kontatu digu Narbarten bizi den Carmentxu Garrido Martinezek (Elbete, 1934): «baratzean, loreekin, laboreak egiten, josten, seme-alabei konponketak egiten, paseotxoak emanez...». Halakoxea izan ohi zen bere egunerokoa. Berak dioen bezala, «bizitza arrunta eginez, eta seme-alabak etortzen zirenean haiekin ateraz» bizi zen.

Egunerokoa «aunitz aldatu ez zaiola» dioen arren, sumatu du zerbait, martxoaren erdialdetik maiatzaren 2ra arte etxetik atera gabe egon baitzen: «bi edo hiru egunean behin baratzera baino ez nintzen joaten, barazkiak eske. Gainerakoan ez naiz deus ere

atera». Hasieran «gogorra» egin zitzaiola azaldu digu baina denborarekin, «ohitu» omen zen, eta ez omen du deusen faltarik izan, «barride zoragarriak ditudalako». Horixe nabarmendu nahi izan du: «bakarrik nagoenetik eskaini didaten laguntza izugarria izan da. Konfinamendu garaian ere, arrunt ongi portatu dira nirekin, ez dut deusez kezkatu beharrik izan, behar nuen guztia ekarri didate eta arrunt eskertua nago. Saritzea mezezi lukete».

Barrideen arrimuan, eta «Elgorriagan bizi den ilobaren laguntzarekin» pasatu zuen itxialdia, eta «Frantzia bizi diren hiru semeekin, alabare-

kin eta 11 bilobarekin egunero mintzatzeak» ere lagunduz egunerokoa aritzen: «egunero-egunero egoten naiz bideo-dei edo telefono bidez eta horregatik ez zait hain gogorra egin haiek ikusi gabe egotea». Beretako, are okerragoa izan da «telebistan ikusitakoa».

### Maria Jesus Huarte Mendiburu

Etxe inguruan «arras ongi» bizi dela kontatu digu Maria Jesus Huarte Mendiburuk (Ziga, 1937), «inoren laguntzarik gabe» moldatzen dela eta ez duela «kexatzeko arrazoirik». «Ni baino makurrago azkarki izanen dira».



Elbeten sortu eta Narbarten bizi da 86 urteko Carmentxu Garrido.



82 urterekin bakarrik ederki moldatu dela dio Maria Jesus Huarte zigatarrak.

**«BARRIDEEI ESKER EZ DUT DEUSEN FALTARIK IZAN»**

CARMENTXU GARRIDO, NARBARTE

**«AZKARKI IZANEN DIRA NI BAINO MAKURRAGO»**

MARIA JESUS HUARTE, ZIGA

Duela hamahiru urte gelditu zen alargun eta ordutik bakarrik bizi da: «lau ume ditut eta denak kanpora esposatuak dira, nahiz eta hurbilean ditudan». Hala ere, konfinamendu garaian «problemarik gabe» moldatu zela dio. Igandetako mezak edo arratsaldetan barrideekin egiten zituen solasaldiak alde batera utzi behar izan zituen. Agindutakoari kasu eginez, bakarrik pasatu zuen konfinamendu garaia, «seme, errain edo biloben bisitarik gabe». Eta kontatu digunez, beharra zuenean, «mandatuak etxe atarian uzten zizkidaten». Tarte horretan «telefonoz egunero solas eginez» mantendu zuen haiekin harremana, eta «etxeko terraza handian ibiliz» eta bertzelako kontuekin «ez nintzen aspertu». Gehiago ere aitortu digu: «bere denboran, gidabaimenik ez dudanez izan, azkarki ibilitakoa naiz eta orain ez dut oinez ibiltzeko gogorik, nahiz eta ongi nagoen. Etxean terraza handia dut eta hantxe ibiltzen naiz».

Itxialdia pasatuta, lehengo martxara bueltatzen hasia da Huarte, baina segurtasun neurriak hartuta: «denbora ederra baldin bada, barrideak arratsaldetan larrinean berriz juntatzen hasiak gara baina gure artean distantzia mantenduz. Gustura aritzen gara kontu-kontari, baina erraten digutena egiten dugu».

Hortik aparte, ezohiko egoera honek «kezka eta beldurra» sortzen dizkiola ere onartu digu: «gu ongi gaude, baina gure ondotik heldu direnek ez dakit zer ikusi beharrak izanen diren». Bere irudiko, «eritasuna ez da oraino arras akitu» eta horretan «zenbait tokitan errandakoa ez egiteak» zeri-kusia baduela uste du. «Gu hemengo herri ttiki hauetan guti gara eta ongi gaude, baina hiri handietan... Beldur naiz ez ote den eritasuna gibelera etorriko». Egoera ikusita, «miseria» etorriko delakoan dago zigatarra.

# DESKONTUAK BORTZIRIAK TTIPI TXARTELA

Erakutsi eta  
aprobetxatu  
aukerak!



2019-2021

**Caser**  
RESIDENCIAL ANAKA

**%5** DESKONTUA  
Egonaldietan, erreabi-  
litazioan eta eguneko  
zentroan. Txartelduna  
eta bere 2. graduako senideak barne.

Anaka, 8 | IRUN  
T. 943 66 77 80

**ttipi-ttapa**

**%10** DESKONTUA  
eskeletan

Koskontako bidea, 7-1. | LESAKA  
T. 948 63 54 38

**TriSari**  
LAND

**%50** DESKONTUA  
sarreran

Irisarri, 1 | IGANTZI  
T. 948 92 89 22

**Semper**  
autonokoia

**%10** DESKONTUA  
matrikulan

BERA | T. 948 63 02 98  
LESAKA | 948 63 82 99

**Arduro**

**%5** DESKONTUA  
arropetan

Altzate, 30 | BERA  
T. 948 63 01 36

**bixkiak**  
KIROL ETA MODAKO  
orriko denda

**%5** DESKONTUA

Arretxea, 11 | LESAKA  
T. 948 63 81 10

**KATEA**  
BIKE

**%5** DESKONTUA  
konponketetan

Kanttonberri, 1 | BERA  
T. 948 63 12 18

**Xulufraia**

**%5** DESKONTUA  
30€tik gorako  
dekorazio gaietan

Altzate, 18 | BERA  
T. 948 63 12 66

**GAELA**  
Bere ingurteko zentrua

**%5** DESKONTUA  
kosmetikan  
**%5** DESKONTUA  
oparietan 50€tik gora.  
Promozioetan ezik.

Pio Baroja, 11 behe | Bera  
T. 666 42 61 96

**ALZURI**  
ELEKTRIZITATEA

**%5** DESKONTUA  
etxeresneta  
promozioetan ezik

Bittiria, 33 | LESAKA  
T. 948 62 75 31

**KARLOS ALZUGARAY**  
OSTEOPATA Euz. Ost. D.O.

**%10** DESKONTUA  
hamar saioko  
bonoan

Itzea, 20 behe | BERA  
T. 607 85 32 08

**bortzirudi**

**DESKONTUA**  
**%15** Kamisetetan **%10** Inprenta  
lanetan  
**%5** kopia, erikuadernazio eta  
plastifikazioan 5€tik gotti  
\*Aurrekontutik kanpo

Eztegara, 26 esk. behe | BERA  
T. 948 63 15 21

**LESAKAKO**  
UDAL  
KIROLDEGIA

**%40** DESKONTUA  
matrikulan

Komentu, 2 | LESAKA  
T. 948 63 74 00

**Urdu** Bera  
Bera

**%20** DESKONTUA  
urteko abonarene  
matrikulan

Toki Ona Kiroldesia | BERA  
T. 948 63 02 15

**AGARRA**  
KIROLAK

**%5** DESKONTUA  
kirol artikuluetan  
**%15** DESKONTUA  
ehiza arropetan

Altzate, 22 | 31780 BERA  
T. 948 63 09 99

**ZK zela**  
KIROLAK

**%5** DESKONTUA  
erosketa  
guztietan

Altzate, 6 | BERA  
T. 948 63 05 98

**kattagorria**

**%10** DESKONTUA  
lentzerian

Behoko Plaza, 10 | LESAKA  
T. 948 62 75 14

**ZU** lorendea  
dekorazioa  
osagarriak

**%5** DESKONTUA  
lore moztuan  
30€tik gorako  
erosketetan

Altzate, 33 | BERA  
T. 948 62 57 86

**elika** Dietetika  
eta elikadura

**%5** DESKONTUA  
kontsultan

Itzea, 6 behe | BERA  
T. 948 63 12 83

**oreKa**  
nutrizioa eta dietetika

**%5** DESKONTUA  
kontsultan

Arretxea, 11 | LESAKA  
T. 948 63 73 73

**Intzuri**  
OPTIKA

**%5** DESKONTUA  
produktu guztietan

Bittiria, 28 | LESAKA  
T. 948 62 75 50

**Ostargi optika**

**%5** DESKONTUA  
produktu guztietan

Bidasoa, 8 | BERA  
T. 948 63 07 53

**HKpodologia**  
NORA MAIZA

**5€** DESKONTUA  
ibilkeraren  
azterketa digitalean

Legia, 42 | BERA  
T. 688 878 177

**txinelka**

**%10** DESKONTUA  
erosketa  
guztietan

Plaza Zaharra, 25 | LESAKA  
T. 948 63 75 94

EUSKARAREN TXOKOA

## Zaindu maite duzun hori...

### Nola erran?

Ba al zenekien hitz berrietan, nazioarteko grafiaren alde egina duela Euskaltzaindiak? Horren arabera, **espainiaraz imm- direnak euskaraz imm- dira**: immanente, immaterial, immigrazio, immoral, immunitate, immunizatu...

\* Izartxoak dutenak eta arrosez daudenak gaizki daude.

### Kalko ustelak

**\*BERTZE EGUNEAN EZ ZINEN ETORRI**  
> **LEHENGO EGUNEAN EZ ZINEN ETORRI**

Erdarakada nabarmena da **\*Bertze egunean ez zinen etorri** erratea. Espainieraz *el otro día* edo frantsesez *l'autre jour* esapiderean kalkoa da.

Euskaraz iraganari begira eginiko erreferentzia bada, mugatua behar du: lehengoan, joan den egunean, aitzinekoan, aurrekoan...

- **\*Bertze egunean ez zinen etorri > Lehengo egunean ez zinen etorri.**
- **\*Bertze egunean zure arreba ikusi nuen > Joan den egunean zure arreba ikusi nuen.**
- **\*Bertze egunean mendira joan ginene > Aurrekoan mendira joan ginene.**

Etorkizunari begira eginikoa bada, berriz, zehaztugabea behar du:

- **Bertze egun batean (batez, baten) solas eginen du.**

### Eta zuk zer diozu?

Bidali zure zalantzak, proposamenak, azalpenak... Animatu eta parte hartu!



info@ttipi.eus



744 48 43 61

# Zein da zuzena?

**\*Gorri kolore, \*gorri koloreko** ala **kolore gorri(ko)?**

Koloreen berri emateko, bi modu ditu euskarak:

a) **Izenaren** bidezkoa (*arrosa, gaztaina, teila, urre,...*), elkarketa bidez ematen dena: arrosa(-)kolore (arrosaren kolore), gaztaina(-)kolore (gaztainaren kolore), urre(-)kolore (urrearen kolore)... Joskeran, jokaera bikoitza dute, izenlagun gisa eta izenondo gisa erabiltzen baitira: arrosa(-)koloreko galtzak eta galtza arrosa(-)koloreak. Molde honetakoetan bila-kaera bat dago, gaur egun, *arrosa* hitza, izen gisa ez ezik, izenondo gisa ere erabiltzen baita (soineko arrosa, galtza arrosak...); antzeko kasua izan daiteke *laranjarena* (elastiko laranja).

b) **Izenondo** bidezkoa: *berde, gorri, gris, urdin, beltz, hori...* Halakoak izenaren eskuinean eman ohi dira beti: alkandora berdea, auto gorria, jertse beltza... Molde honetakoetan sarri egiten da akatsa *kolore* izenarekin (gaztaina(-)koloreko eta gisakoen analogiaz edo). Izenondoak izenaren eskuinean joan behar du; beraz, **\*gorri kolore** edo **\*gorri koloreko** ez dira zuzenak eta *kolore gorri* edo *kolore gorriko* behar du.

## Besten ordeaz udako programazio zabala prest du Udalak

Herriko bestak alde batera utzi dituzte, baina uztailean eta abuztuan hainbat ekitaldi izanen dira, segurtasuna bermatuz

### TTIPI-TTAPA

Aurten ez da herriko bestarik izanen. Ohiko bestak alde batera uztea erabaki zuen Udalak ekainaren 17ko batzarrean. Bi egun lehenago, alkatea, kultur zinegotzia eta kultur teknikaria herriko hainbat kultur eragilerekin bildu ziren eta, gaur egungo egoera ikusiz, bestak ezin direla segurtasunez antolatu aipatu zuten. Horren ordeaz, udako kultur programazio bat antolatzea da asmoa, uztailean eta abuztuan ekitaldiak prestatuz eta beharrezko

segurtasun-neurri guztiak betez. Aitzinerago joanen dira ekitaldi hauen berri ematen.

### Altzateko ostatuak

Azken asteburuetan Altzateko ostatuaren inguruan sortzen diren soinuak eta arazoak hizpide bilera egin zuen udalak ekainaren 16an auzotarrek eta ostatueta ordezkariek. Atsedenerako eskubidea dutela eta arazoari konponbidea ematea nahi dute auzotarrek eta udalak honen inguruko oharra ere argitaratu du.

## Manttale taldeak udalekuak eskainiko ditu uztailaren 6tik 31ra

### TTIPI-TTAPA

Manttale mendi lasterketa taldeak kirolaz gozatzeko udalekuak antolatu ditu uztaile-rako. 6-12 urtekoendako udalekuak izanen dira. Uztailaren 6tik 31ra, lau astez, goizetan bilduko dira, 09:30etik 13:00etara. Kiroldegian elkartuko dira. Parte hartu nahi dutenek ekai-

naren 26a bitarte eman deza-kete izena. Manttale ttikin izena emanda daudenek 80 euro ordaindu beharko dituzte bi anai-arreba izanez gero 140 euro. Manttale ttikin ez daudenek, berriz, 90 euro eta bi anai-arreben kasuan 150. Egoera dela-eta, segurtasun-neurriak hartuko dituzte.



UTZITAKO ARGAZKIA

## Bestaberri eguneko seinalea txistulariek

Bertze herrietan bezala, Beran ere aurten ez da Bestaberri eguneko prozesiorik izan, noski. Baina txistulariak herrian barna ibili ziren, segurtasun-neurriak betez, Illekuetatik Berako Herriko Etxeko plazaraino, Bestaberri eguneko doinuak jotzen eta beratarrak ernatzen.




UTZITAKO ARGAZKIA

## Bertsopaper lehiaketako sariak emanak

TTIPI-TTAPAREN 760. zenbakian aipatu bezala, Bortzirietako Bertso Eskolak eta Berako Kultur Batzordeak antolatutako Baztan-Bidasoaldeko bertsopaper lehiaketako saridunak jakinarazi dituzte. Sari banaketa ere egin zuten ekainaren 12an Beralandetan, hori bai, ohikoa den jaialdirik gabe.

**LABE ZAR**  
Astelehenetik ortziralerara:  
07:15etik aitzinera  
Larunbata eta igandea:  
08:00etatik aitzinera  
948 631 076 • BERA

**ANTZUZELAI S.L.**  
HARGINTZA  
FATXADAK  
TXIMINIAK  
ZOLAK  
TAILLA ARTISTIKOAK  
OBRAK  
BERA • T. 948 63 13 17  
info@antzuzelai.com  
www.antzuzelai.com



**AUZOD GO!**  
Etxez etxeko zerbitzua  
BERAn eta LESAKAn  
ESKAERAK:  
www.auzoago.com • T. 948 631 509

**Arduo**  
Mila esker gurekin  
bat egiteagatik!  
arropa-denda | etxeko osagarriak | lentzeria  
Alzate, 30 BERA T. 948 630 136

**KSAT**  
TELEKOMUNIKAZIOAK  
ANDONI LASAGA APEZTEGUIA  
T. 637 40 86 40 • 31780 BERA  
andonimatxako@gmail.com



## Azkenean udalekuak eskainiko ditu Mankomunitateak

3 eta 12 urte bitarteko haurrei zuzenduak, ekainaren 28ra bitarte eman daiteke izena

### TTIPI-TTAPA

Bortzirietako Euskara Mankomunitateak ekainaren 8an egindako ezohiko bileran udalekuak antolatzea erabaki du. Gogoratu behar da duela aste batzuk udalekurik ez antolatzeko erabakia hartu zuela, jarduera hori behar diren berme eta segurtasun neurriekin antolatzeko aukerarik ez zuelako ikusten. Geroztik gobernu erakundeak eta sektoreko eragileak aurtengo udan haur eta gaztetxoentzako aisialdia nola antolatu zehazten duten jarraibideak eta gomendioak ematen hasi dira.

Egoera berri hori ikusirik, mankomunitateak gaia beraztertu du eta udalekuak antolatzeko erabaki du. Udalekuak bortz herrietan eskainiko direla erabaki dute, 3-12 urte bitarteko haurrentzat.

Izen-emateak online egiten dira, ekainaren 19tik 28ra bitarte.

Arantza, Bera, Etxalar eta Igantziko kasuan, udalekuak uztailearen 13tik abuztuaren 7ra izanen dira, 10:00etatik 13:00 bitartean. Lesakako kasuan, berriz, udalekuak uztailearen 13tik abuztuaren 28ra izanen dira, 09:00-13:00 bitartean. Bortz herrietan eskola publikoan eskainiko dute.

Udalekuek neska-mutikoei oporraldian eta jarduera ludikoen bidez euskaraz aritzeko aukera ematen diete. Aurten, Covid-19aren testuinguruan, helburu pedagogikoa ere gehitu zaie, eta haurrek osasun eta higiene neurriak modu praktikoa eta ludikoa ikasteko aukera izanen dute, eta horrez gain alderdi emozionala ere bereziki landuko da.



Ekimenarekin bat eginez bideoa grabatu dute Lesakan.

## Presoen aldeko dinamika berriarekin bat egin du Bortzirietako Sarek

### TTIPI-TTAPA

Presoen aldeko dinamika berria jarri da martxan Euskal Herrian, *Izan Bidea, herri bat martxan* presoen etxeratzeko. Sarek hurrengo hilabeteetarako antolatzen duen ekimen zabala da. Asmoa hiru milioi kilometro egitea da, Euskal Herrian biztanle adina, norbanako nahiz taldeka, oinez, bizikletan, korrika... edozein kirol jardueretan.

Iruñean ekainaren 20an egindako martxa izan da lehenengo ekimenetako bat. *Altxa, izan bidea, presoak etxera* lelopean Sarasate pasaealekutik

Iruñeko espetxeraino antolatu zuten Sarek eta ehunka herritarrek parte hartu zuten. Horrekin bat eginez, bideoa ere egin zuten Lesakako Sarek.

Bortzirietan ere martxan ari da jartzen eta laster ekimen berriak antolatuko dira. «Orain da momentua: datozen urteetan presoen egoerari aterabidea eman behar diogu», azpimarratu du Sarek. «Auzia konpontzeko aukera ireki da eta egun bizi dugun egoerak inoiz baino argiago utzi ditu espetxeetan bizi den egoera eta salbuespen legediak dakartzan ondorio krudelak».

**F. LANCHAS**  
Akutxiladorea eta bernizatzailea  
Parket eta parket flotatzailea jartzea  
Mota guztietako zolak  
Tel.: 948 630 735 M: 620 172 679

**MARITX**  
· INGENIARITZA ELEKTRIKOA · BOLETIN INDUSTRIA  
· PROIEKTU ELEKTRIKOAK · INSTALAZIO ELEKTRIKOAK  
T. (0034) 636 617 450 Legia, 23 - BERA

**EDARI AK**  
**MANUEL TABERNA S.L.**  
Bidasoa, 76 - 31780 BERA (Nafarroa)  
Tel.: 948 63 10 27 - Fax: 948 62 52 11  
tabernabera@gmail.com  
www.tabernaedariak.eus

**ZOANSA**  
VW SEAT Audi HYUNDAI  
**MARKA GUZTIEN KONPONKETA**  
MEKANIKA · ELEKTRIZITATEA · TXAPA · PINTURA  
T. 948 62 55 55 | zoansa@zoansa.com  
Banarta, 2 | Alkaiaga Ind. | LESAKA (Nafarroa)



Proiektuaren berri jakin bezain agudo Endara Bizirik! plataforma osatu dute Auzoberriko bizilagunek. UTZITAKO ARGAZKIA

## Auzoberrin parke eolikoaren kontra dago Endara Bizirik!

120 metroko altuera izanen luketen hamaika haize-errot egiteko proiektua da eta udalak alegazioak aurkeztuko ditu

### AITOR AROTZENA

Nordex Energy Spain enpresak Agiña eta Gardelegi inguruan Auzoberri parke eolikia eraikitzekeo tramiteak hasiak ditu. Eraiki nahi dituzten hamaika haize-errotek 120 metroko altuera eta hegalen itzuli diametroa 155 metrokoa izanen lituzkete. Tramitatzen hasi berri den proiektua Auzoberri auzoaren inguruko kaskoetan hedatzen da: Agiña, Eskola-mendi, Azperra (Berreuko gaina), Illasmendi...

Endara Bizirik plataformaren iritzi, egitasmo honek «ingurumena, bizimodua, bizi ka-

litatea, abeltzaintza, fauna, ondare arkeologiko eta historikoa suntsituko ditu, hala nola, bere balore altuagatik bereizgarria den ekosistema bat».

Lehenik eta behin, elkarrekin bildu ondotik, udalari erregu zehatza egin diote «proiektuaren guztiz kontra posizionatu eta bide administratiboetatik ahal dituen alegaziorik sendoenak egiteko» eskatuz. Bitartean, Endara Bizirik plataformak informazio eta babes kanpaina bat hasi du, egitasmo honekin kaltetuak diren eragile, erakunde eta norbanakoekin. Joan den astean

bilerak egin zituzten auzoz auzo. Era berean, «Nordex Energy Spain enpresari eta proiektuan inplikatuak dauden bertzei, proiektu hau gauzatzeko asmoa bertan behera uzteko» eskatuko diote.

Proiektu hau aurretiko kontsulta izapidera atera du Nafarroako Gobernuak eta alegazioak aurkezteko 30 eguneko epea izanen omen da alarma egoeraren bukaeratik kontatzen hasita. Udalak ere alegazioak aurkezteko asmoa duela adierazi du Mattin Etxabide zinegotziak, hamaika haize-errotetatik hamar herri-lurretan egonen liratekeela kontuan hartuz. Horretaz gain, proiektuak eraikin historikoak dituen Agiñako kaskoa ukituko luke, baita GR11 ibilbidea eta baserri inguruak ere. Udalean dauden bi taldeak energia berriztagarrien alde bai, baina proiektu honen kontra daudela adierazi dute eta herriak dioena kontuan hartu beharko litzatekeela.

### Frontoiko ostatua hartzeko epea zabalik

Frontoiko ostatuaren ustiapena esleitzeko prozesua martxan jarri du udalak. Interesak dutenek proposamena ekainaren 22tik uztailearen 3ra aurkez dezakete Herriko Etxean. Informazio gehiago 948 63 70 05 telefonoan edo [www.lesaka.eus](http://www.lesaka.eus) webgunean.

### Udal kirodegiko instalazioak zabalik daude astelehenetik

Hiru hilabeteko derrigortutako geldialdiaren ondotik, ekainaren 22an ireki dituzte udal kirodegiko instalazioak, tartean udako igerilekuak ere. Sartzeko hitzordua eskatu behar da eta %30eko aforoarekin ari dira oraingoz, 10:00etatik 21:00etara.

### Futbol kanpua aste bakarrean eskainiko dute aurten

Erriberako Futbol Eskolak urte daramatza bi astez futbol kanpua eskaintzen herrian. Aurten berezia izanen da eta txanda bakarra eskainiko dute uztailearen 13tik 17ra, goizez bakarrik. 8 eta 12 urte bitarteko hamar-hamabi haur hartuko dituzte bakarrik.


**Kimaketak | Mantentze-lanak**  
**Lorategiak Diseinatzea eta Sortzea**  
**Ureztatze Sistema Automatikoak**  
**Paisajismoa**



**T. 619 418 683 | LESAKA | johntelletxea@hotmail.com**  
**www.telletxealorzaintza.com**

**IRU-BIDE**  
 OSTATU • JATETXEA

Arratzubi Kalea 3  
 31770 LESAKA  
 T. 948 63 71 27


 Hemen erabili


**LESAKA**  
 948 627 514  
[www.kattagorria.com](http://www.kattagorria.com)


**LOREAK ETA LANDAREAK**

Frain Auzoa · LESAKA  
 T. 948 637 826


**BERANDONEA, S.L.**  
 PREZAK IZA BARAZIAK

**BILTEGIA: 948 630 102**  
**SAKELAKOA: 633 480 563**  
 Bidasoa, 76 - atea 21-22 • **BERA**

## Aurten ez da Andremari bestarik izanen

Pena handiz hartutako erabakia izan da, gaur egungo osasun larrialdiak eragina

### IRUNE ELIZAGOIEN

Gaur egungo osasun larrialdiak sortu duen egoera dela eta, ez da Andremari bestarik ospatuko Etxalarren. Ekainaren 13an herriko Besta Batzordeak deituta, batzar irekia egin zen Kultur Etxean eta bertan bildu zirenek, ongi hausnartu ondok, hartutako erabakia izan zen.

**Igerilekuak ez dira zabalduko** Inguruko zenbait herritan iragarri duten bezala, Etxalar-ko igerilekuak ere ez dira za-

balduko aurtengo udan. Covid-19ak sortutako osasun krisiaren ondorioz, aurtengo udako denboraldian udal igerilekuak ez irekitzea erabaki du udalak. Hala ere, seguru herritarrek etxeetako igerilekuak, erreka edota hondartzak aprobetxatuko dituztela aurtengo udan.

### Kultur etxearen ordutegia

Hemendik aitzinera kultur etxeak honako ordutegia izanen du: goizez 10:00etatik 13:45era.

## Etxalarko Sute Elkarreak su-itzalgailuak errebisatzeko deialdia egin du

### IRUNE ELIZAGOIEN

Aitzineko urteetan erositako su-itzalgailuen azterketa izanen da ekainaren 27an goizeko 10:00etan kultur etxeko arkupean. Errebisioaren kostua jabearen kontura izanen da baita bertzelako mantenu lanik beharko balute ere. Gogorarazten da, mendiko suak

itzaltzeko pala bereziak base-riretako ondorengo ordezkariak dauzkatela: Urritzokietan Zamudieneko-bordan, Larripil-Sarrikun Iturraldeko-bordan, Lakain-Apezborron Arri-neko-bordan, Orizkin Tolareko-bordan, Lurritzederran Goinetxegaraian eta Gorosurretan Maisterreneko bordan.



MIREN OLAETXEA

## Elkarrekin trikotatzeko bigarren deialdia

Ekainaren 12an izan zen kultur etxe azpiko bankuarentzat kuxina elkarrekin egiteko lehenengo elkartzea. Jende andana elkartu zen eta bigarren egun bat adostu dute lanean segitzeko: uztailaren 3an izanen da hitzordua 18:00etan kultur etxeko arkupean. Bakoitzak bere aulkia eraman behar du.

## Herri sarrerako arbola jo du tximistak

Ekainaren 3an, goizeko 11:30 aldean ekaitz gogorra izan zen herrian. Tximista batek herri sarreran, zubi ondoan dagoen makala (txopoa) bete-betean jo zuen eta orain arrastoak zuhaitzean ikus daitezke. Zorionez, tximistak jo zuenean ez zebilen inor inguruan eta ez zen bertzelako kalterik izan.



UTZITAKO ARGAZKIA



**XAGU LIBURUDENDA**  
Tel. / Fax 948 638 232  
Koskontako bidea, 7 (osasun-zentroaren parean)  
31770 LESAKA

- PAKETEA JASOTZEKO GUNEA
- LIBURUDENDA
- KOLORETAKO FOTOKOPIAK
- USBik EGINDAKO INPRIMAKETAK
- ESKANERRAK
- ESKOLA MATERIALA
- INFORMATIKAKO MATERIALA
- BULEGORAKO MATERIALA
- EGUNKARIAK, ALDIZKARIAK



**ZUBIONDO**  
JATETXEA-SAGARDOEGIA

EGUNEKO MENUA  
SAGARDOTEGI MENUA  
KARTA  
OGITARTEKOAK  
PLATER KONBINATUAK ...

T. 948 625 472  
Alasta karrika · BERA  
zubiondojatetxea.com



**Jauzena**

Denda. 948 631 217  
T. 630 136 863  
Julio Caro Baroja, 6 - BERA  
jaurenabera@gmail.com

**Elektrizitate lanak orokorrean**  
**Erreformak, etxe berriak**  
**Lantegietako mantenu lanak**

Etzetresnen salmenta, instalazioa eta etxez etxeko konponketa  
Antenak, satellite bidezko instalazioak

# IGANTZI

## Udaletxea eta Biltoki zabalik daude baina igerilekua itxita

Herriko Etxera joateko telefonoz ordua hartu behar da eta elkarteetan gehienez 24 lagun egon daitezke

### MAITE, ANA ETA ITZIAR

Aurtengo uda, arlo guztietan berezia izanen dela jakina da. Igerilekuak ere ez ditu atek irekiko, beraz, herriak eskaintzen dizkigun txokoak bisitatzeko aukera ederra dugu oinez nahiz bizikletaz; mendiak, erreka bazterrak, trenbidea, herriko iturriak...



Biltokik atek ireki ditu berriz ere.

### Biltoki zabalik

Ereiaroaren hamaikaz geroztik Biltoki Elkarteak irekia dugu berriz ere; Covid-19a dela eta, zenbait arau bete beharko da, hala nola, gehienez 24 lagun egoten ahal direla bertan. Gainerako arauen berri bertako taulan izanen duzue nahiz eta bazkide guztiak jakinaren gainean egon.

### Udaletxea irekia

Udaletxeko bulegoko atek berriz ere irekiak ditugu edozein tramiterako, orain arte telefonoz egiteko aukera izan badugu ere. Hemendik aitzinera udaletxera joan nahi izanez gero, telefonoz hitzordua hartzea ezinbertzekoa izanen da. Telefono zenbakia 948 63 77 81 da.

## Udalak genero indarkeriarekin lotutako ekintza batzuk uztailean antolatuko ditu

Genero indarkeriaren harira, Nafarroako Gobernuaren eskutik dirulaguntza jaso du udalak, ekintzak antolatzeko.

Hautetako batzuk uztailean egingen dira (hitzaldiak, dokumentalak...); aitzinerago emanen dugu xehetasun gehiago.



OSKAR TXOPERENA

## Uxue Arriadaren mikro-ipuina saritua

Dindaia Fundazioak antolatutako Rikardo Ederra II. Mikro-ipuina Lehiaketan saritua suertatu da Uxue Arriada Larralde herriko gaztetxo "Berriro etxean" mikro-ipuinarekin. Donostiako Zientzia Museorako sarrerak (haurra eta heldua) eta Dindaia kamiseta izanen ditu saritzat. Zorionak!



MAITE ALTXU

## Berrizaungo zaborrontziak lekualdatuak

Orain arte trenbidean, bide berdean, zeuden edukiontzi edo kontenedoreak lekuz aldatu dituzte. Orain Berrizaunen bizi diren herritarrek, zaborra bota behar izanez gero, Sebastianearen ondora joan beharko dute eta bertan izanen dituzte hondakin mota guztiendako ontziak.



## PRIM, c.b.

### Fisioterapia Zentroa

Itzea 1, behea • T./F. 948 625 206 • BERA  
Colon Pas. 6 - atzea • T./F. 943 633 050 • IRUN



 Centro Prim  regina tolosaechepare



## ZUMARBEL

creaciones metálicas  
Igantzi (Navarra)  
948 63 74 11



### Lehen A.T.M. S.A

Berrizaun 25,  
31790 IGANTZI  
T. 948 63 74 11  
@zumarbeld@hotmail.com  
www.zumarbeld.es

## «Irrisarri Land ezohiko egoera honetarako hagitz aproposa da»

**JOXE ELGORRIAGA ALMANDOZ** IRRISARRI LANDEKO KUDEATZAILEA

Ekainaren 26tik aitzinera egunero irekiko dute Irrisarri Land. Erabiltzaileei «segurtasuna eta gozamena» bermatzeko beharrezko egokitzapenak egin dituzte

### N. BAZTERRIKA

Martxoan abiatzekoa zuen Irrisarri Landek zazpigarren denboraldia. Pandemiak, ordea, data hiru hilabete gibelatzea eragin zuen. Ekainean asteburuetan irekitzen hasi ziren eta hilaren 26tik aitzinera egunero irekiko dute.

### Zertan eragin du koronabirusak Irrisarri Landen?

Pandemia guk ireki baino lehenago hasi zenez, martxoan ez genuen ireki eta kontratuak ez zeuden altan emanak. Alde horretatik ez dugu horrenberitze sufritu...

### Langile gutxiago hartu dituzue denboraldi honetarako?

Orain arte asteburutan bakarrik ireki dugu. Lehen astegunetz eskolak, ezkontzak, alojamenduak... genituen. Hori dena galdu dugu. Asteburu-pasa datozenekin eta Nafarroakoe-kin bakarrik hasi gara, hortaz, ahalik eta talde ttikienarekin ahalik eta zerbitzu onena emanez aritu gara. Momentuz hori izan da gure apustua. Ekain bukaeran, 26an, parkea egunero irekiko dugu, uztail eta abuzturako erreserbak egiten ari dira... Beraz normal hasatea espero dugu. Hortik irailaren 6ra arte egunero irekia egonen da. Aurten astegunetz eskolekin eta Aste Santuko bezeroekin mugimendu handia genuenez denboraldia 50 langile ingururekin hastekoa genuen. Formakuntza eman eta prestatzeko hasieratik hartzeko asmoa genuen... Egoera dela eta,



Beharrezko neurriak hartuz, «ilusioz eta gogotsu» ari da lanean Elgorriaga.

berriz, 30-35ekin hasi dugu. Hala ere, dezente da eta ekainean lan handia egin behar dugu horri buelta emateko. **Ireki ahal izateko, zer egokitzapen egin behar dituzue?**

Zerbitzua eskaintzeko protokolo guztiak berrikusi eta egoera honetara moldatu ditugu: arnesak jartzeko prozedura, jarduerak eskaintzekoak eta segurtasun distantzia mantenduz jarduerak bertze era batean eskainiko ditugu, beti gozame-

na eta segurtasuna bermatuz. Jatetxean ere neurri horiek mantenduko dira, distantziak, formakuntza... Horrez gain, edukiera %50era mugatu dugu. Horregatik, Irrisarri Landera etorri nahi duenak sarrerak aurrez erosi behar ditu, web orrialdetik edo telefonoz, hona etorri eta sarrerarik ez egotea saihesteko.

### Zenbat lagun har ditzakezue?

Parkearen edukiera 300 bat lagunendako da eta beraz, 175-

200 sarrera inguru izanen ditugu egunean. %50era ailegatzeko ere jende aunitz etorri behar da. Familiak, elkarrekin bizi direnak, dira gure bezeroak. Alde horretatik, guk familien arteko distantzia mantendu behar dugu. Zazpi laguneko familia bat elkarrekin autoz etorri dena ez dugu banatuko...

### Familiatzako urteko bonuak martxan paratu dituzue...

Martxoan martxan paratzekoak genituen baina pandemiaren gatik dena gibelatu da. 200 eurotan familia guztiarentzat sarrera eta Baztan-Bidasokoa izanez gero 100 eurotan eskainiko dugu. Gehienez bortz kideko familia hauek urtean nahi adina aldiz etortzeko aukera izanen dute. Honen helburua Irrisarri Land familientzat behin eta berriz etortzeko toki bat izatea da. Inguruko familietan ere pentsatu dugu, aunitzetan euria ari duenean zer egin ezin jakin egoten garrelako eta hemen badagoelako leku itxi eta egoki bat.

### Udalekuak ere prest dituzue...

Nafarroako Gobernuaren argibideen zain gaude. Momentuz %50era mugatu dugu kopurua honetan ere. Toki handia dago, 150 haur inguru har ditzakegu. Kanpaldi aunitz bertan beheiti gelditu dira eta denek tokia izateko zabaltzea pentsatu dugu, abuztuko azkeneko bi asteburuetan ez zen ohikoa kanpaldiak izatea baina aurten eskainiko ditugu. Momentuz uztaila eta abuztuko lehenbiziko asteak saltzen ari gara.

### Nolako uda aurreikusi duzue?

Lantaldea ilusioz eta gogoz dago eta aurreikuspen baiko-rrak ditugu. Izan ere, gure azpiegiturak egoera honetarako hagitz aproposak direla uste dugu. Mendian zaude, toki lasaia da, segurtasuna eta gozamena bermatuak daude eta zorrotzak izanen gara... Jendea egoera honen ondotik horrelako tokien bila ari dela uste dugu eta horregatik ostatuen erreserbak martxa hartu dutela ikusi dugu.

# ARANTZA

## Aurtengo bestak eta Arantza Rock alde batera utzi dituzte

Segurtasunagatik ez antolatzea erabaki du udalak eta bide beretik jo du Gazte Asanbladak

### NEREA ALZURI

Osasun krisiak bertzelako egoerarako bidea lantzeko beharra ekarri du eta horretara egokitzen ari gara pixkanaka. Ezjakintasuna oraindik ere nagusi dugun aro honetan, aurreikuspenak eta iragarpenak egitea ez da batere erraza, baina segurtasunagatik hainbat neurri hartu dira.

Covid-19aren eraginez, egoera lehengoa ez denez, Nafarroako Gobernuaren gomendioak jarraituz, bertze hainbat herritan bezalaxe, urtean behin ospatzen diren herriko bestak

ez egiteko erabakia hartu du udalak. Beraz, abuztuaren 14tik 17ra egitekoak ziren bestak alde batera gelditu dira, udalak aditzera eman duenez, herritarren segurtasunak lehentasuna duelako egoera honetan.

### Arantza Rock ere ez

Bide beretik jo du Gazte Asanbladak ere. Bizitzin ari garen egoera honengatik, besten ondoko larunbatean egitekoak zuten Arantza Rock jaialdiaren 25. edizioa ere ez egitea erabaki dute gazteek.

## Aldi baterako bi langile kontratatu ditu udalak sei hilabeterako

### N. ALZURI

Nafarroako Gobernuak langabeak kontratatuzko ematen duen dirulaguntzari esker, aldi baterako bi langile hartu ditu udalak: Xabier Taberna Larretxea herritarra eta Estibalitz Urtxegi Telletxea beratarrak. Taberna erabilera anitzeko

langilea izanen da eta herriko hainbat lan egitea egokituko zaio. Urtxegi, berriz, garbitasunaz arduratuko da eta herriko eraikinak garbitzeko ardura izanen du.

Bata zein bertzea sei hilabetez ariko dira udalarentzat lanean.



I. UGALDE

## Herritarrek gogotik auzolanean

Elkarlanean bazterrak txukunduz, herrian zein baserri auzoetan auzolanean gogotik segitzen dute herritarrek. Herrian hainbat larunbatez segidan, bertzeak bertze, plaza inguruan margotze-lanetan aritu dira, eta argazkian ikus daitekeen bezala, baserri auzoetan ere ez dira geldirik egon.

## Udaleku irekiak eta kontrabandisten udaleku ibiltariak

Aitzineko aldian, ez zela udalekurik izanen aipatu bagenuen ere, azkenean Bortzirietako Euskara Mankomunitateak antolaturiko udaleku irekiak uztailaren 13tik abuztuaren 7ra izanen dira. Izen-ematea ekainaren 28ra bitarte on-line egin behar da. Bertetik, abuztuaren, herriko Aterpeak, Beintzako Aterpetxeak eta Oiarzungo Arritxulok, kontrabandisten udaleku ibiltariak antolatu dituzte. Gaztetxoak XX. mende hasieran gau lanean aritzen zirenak pasatzen zizutzen parajeetan ibiliko dira.

## Herritarrentzako bonu kanpaina sortu du udalak

Ezohiko egoeran segitzen dugun arren, mugimendua nabaritzen hasia da herrian eta bereziki ostatuak ireki zizutzetik sumatu da. Horren hari-ara, ostatuak tragokak hartzeko eta otorduak egiteko txokoak gain, funtzio soziala betetzen dutela eta herritarren elkargune direla eta, bonu sistema sortu du udalak. 40 eta 10 euroko bonuak paratuko ditu herritarren eskura eta udalak gastuaren %25 bere gain hartuko du. 40 euroko gastua egitean, herritarrek 30 euro ordainduko dute eta udalak 10 euro.

**Goieko**  
INDUSTRIA GARBITASUNERAKO  
SISTEMA ETA PRODUKTOAK

**DESIN BERA**

**DESINSEKTAZIOAK · ARRATOI-HILTZEAK · EGUR TRATAMEDUAK**

T. 948 625 597 · Zalain, 42 B · BERA

**Zalain**  
JATETXEA RESTAURANTE

Zalain Auzoa BERA t. 948 631 106 w. www.zalain.info

**ETXALAR**  
HOTEL-VENTA

*lagunarte, familia,  
kinto besta...*

OSPAKIZUN GUZTIETARA  
EGOKITZEN GARA

ETXALAR | T. 948 63 50 00 | www.etxalar.com | info@etxalar.com

## Ulibeltzak elkartea neurri zorrotzak betez ireki dute

Gehienez ere 40 lagun sar daitezke aldi berean eta aitzinetik eta ondotik ongi desinfektatu behar da erabilitakoa

### MAIDER PETRIRENA

Badirudi azken hiru hilabeteetako egoera berezia bere normaltasunera edo normaltasun berrira bederen, hurbiltzen ari zaigula poliki-poliki. Horren adierazgarri da herrian dabilen mugimendua baita ostatuen eta Ulibeltzak Elkartearen irekiera ere.

Ulibeltzak elkarteari dagokionez, ireki bai, baina segurtasunerako araudi zorrotza argitaratu dute.

Honela, elkartera sartzean nahitaez eskuak garbitu behar dira hidrogelarekin. Gehienez 40 lagun sar daitezke elkartean eta taldeak gehienez 20 pertsonakoak izan behar dute. Taldeko bi lagun bakarrik sartzen ahal dira sukaldean.

Sukaldeko tresnak (kafetera, grifoak, mahai tresnak...) ibili baino lehen eta ondotik



Ulibeltzak elkartea 2018an.

eskuak desinfektatu behar dira hidrogelarekin.

Sukalde barnean ahal bada paperarekin moldatu behar da eta talderen batek bertako eskuzapi edo trapuren bat ibiliko balu, garbitzera bota behar du. Akitzean barra eta eserlekuak desinfektatu behar dira papera eta espraiarekin. Mahaietan paperezko mantela jarri behar da eta akitzean mahai eta bankoak desinfektatu papera eta espraiarekin.

## Ikasturte bukaerako hainbat jarduerak egin dituzte eskolan

2019/2020 ikasturteari bukaera eman diotela eskolako ikasle eta irakasleek. Nahiz eta ohi bezalako bukaera ezin eman izan azkeneko bi aste hauetarako familian egiteko tailerrak antolatu dituzte: musika eta dantza, zine saioak, argazkigintza, sukaldaritza, artearekin jolasten, esperimenduak eta scape room. Ikasleek, egin dutenaren berri emateko, argazkiak edo bideotxoak bidali dituzte eta irakasleek eskolan zenbait muntaia egin ondoren, berriro ikasleei igorri dizkiete. Milesker eta opor onak pasal!

## Garaine Iriarteren bertsopaperekin aipamena jaso dute

Nafarroako bertsopaper lehia-ketarako lanak aurkeztu zituzten herriko bertso-eskolako ikasleek. Garaine Iriarte Petrirenak aipamena lortu du 5. eta 6. mailakoen kategorian eta gainontzeko bertsoekin batera bideo batean bildu dituzte. Bertso eskolari bukaera azkarra eman behar izan diote, nahiz eta batzuk telematikoki segitu duten. Datorren ikasturtean, bertso eskolari jarraipena ematea gustatuko litzaioke Iker Gorosterrazu irakasleari. Irailean abiatuko da matrikulazio kanpaina.



SUNBILLAKO UDALA

## Zenbait pista moldatu dituzte

Itzaldekoborda eta Ordonborda baserrietara joateko pista hagitx kaltetua suertatu zen abenduaren 13an izandako euriteen ondorioz. Ondorioz berritze-lanak egin dituzte eta orain pista primeran gelditu da. Horrez gain, Latsako eskolako (lehenengo eskola) bidea ere konpondu dute.

**Alberto RETEGI**  
abokatua  
948 630 763 · Altzate, 17 · BERA

**TTIPI-TTAPA SARE SOZIALETAN**  
Jarrai gaitzazu!  
facebook  
www.facebook.com/ttapi.ttapa



Goizez irekiko dute, 09:00etatik 13:00etara. ARTXIBOKOA

## Udan goizetan liburutegia irekita egonen da

Mailegu eta itzultze zerbitzua eskaintzeaz gain, ordenagailuak erabiltzeko, ikasteko eta kontsultak egiteko aukera izanen da

### MARGA ERDOZAIN

Joan den astelehenetik, hau da, ekainaren 22az geroztik, liburutegiak udako ordutegia martxan du. Horrela bada, ondoko hilabeteotan, astelehenetik ortziralerara, goizez, 09:00etatik 13:00etara, irekita egonen da.

Gainera, orain artean ez bezala, mailegu eta itzultze zerbitzuz gain, ordenagailuak erabiltzeko eta bertan ikasteko edo kontsultak egiteko zerbitzuak ere martxan paratu dituzte, herria pixkan-pixkan normaltasunera bueltan den seinale.

### Liburuak itzultzeko deia

Aitzinekoan adierazi bezala, liburutegikoek jendeak etxetan dituen eta liburutegikoak diren liburuak itzultzeko deia egin dute. Horrela, aleei dagokien berrogeialdia egin ahal izateko. Erabiltzaileek bueltatzeko diren aleak liburutegian bertan edo postontzian utzi ahal izanen dituztela ere argitu dute.

Liburuen erreserbak egiteko edo edozein zalantza argitzeko bi modu daude: 948 45 09 09 telefonora deituta; edo [biplibdoneztebe@yahoo.es](mailto:biplibdoneztebe@yahoo.es) helbidera idatziz egin daiteke.

## G1 euskara-maila egiaztatzen duen titulua lortzeko ikastaroa abuztuan

### MARGA ERDOZAIN

Doneztebeko IKA euskaltegiak abuztuaren 3tik 28ra aurrez aurreko ikastaroa edo on-line ikastaroa antolatu du. Interesatuak 948 45 15 55 telefonora deitu edo [malerreka@ikaeuskaltegiak.eus](mailto:malerreka@ikaeuskaltegiak.eus) helbidera idatzi behar dute. IKA euskaltegiak

2020-21 ikasturterako matrikula zabalik du dagoeneko, bai aurrez aurreko ikastaro nola on-line ikastaroetarako ere. Euskaltegiak ikasgelak, aplikazioak eta metodologiak egokira berri honetara egokitu ditu, segurtasun osoz jarduerak akademikoa bermatu ahal izateko.

## Ikastetxean txukuntze eta mantentze lanak

Ikasturtea akituta, San Miguel ikastetxean eta Mendaur institutuan ohikoak diren mantentze eta txukuntze lanak egiten ari dira, heldu den urterako prest uzteko. Nafarroako Gobernuak emandako dirulaguntza erabiliko da gimnasioan larrialdi protokoloarekin bat egiteko.

Modu berean, Askin haur eskolan ere hainbat lan egingen dituzte, eremuak berrantolatzeko ezinbertzekoak direnak. Azken lan horietarako ere dirulaguntza eskuratu dute.



Haur eskolan ere lanak egingen dituzte.

## Ludotekarik ez eta turismo bulegoa itxita aurtengo udan

Aitzineko urteetan, udan, Doneztebeko Udalak antolatu ohi zuen ludoteka zerbitzurik ez da izanen aurten. Ezarritako segurtasun neurriak zorrotz betetzeko zailtasun handiak izanen lituzketela kontuan hartuz ez eskaintzea erabaki dute.

Era berean, uztailean eta abuztuan bertako turismo bulegoa bisitarientzat zabalik egon ohi da, baina, jakinarazi dutenez, aurten zerbitzu hau ere itxita egonen da. Segurtasuna lehenetsi nahi izan dute.



Udan turismo bulegoa ez dute irekiko.



Itxialdiaren aitzinean, herrian erosteko kanpaina sustatu du udalak. ZALDUA

## 'Donezteben erosi, Donezteben bizi' kanpaina 600 deskontu-txartel prest

### MARGA ERDOZAIN

Udalak, herrian kontsumitzea bultzatzeko, 6.000 euroko dirulaguntza eskaini du. Zehazki, 600 deskontu-txartel salgai jarri ditu bakoitza 30 eurokoa (20 euro ordainduko direnak).

Bonu horiek uztailearen 31ra arte erosi daitezke, udal bulegoetan astelehenetik ortzira-

lera, goizez, 10:00etatik 13:00etara bitarte. 18 urte edo gehiago dituen doneztebar bakoitzak txartel bat izanen du eskuragarri.

Bonua kanpainari atxikitako saltokietan erabili beharko da, uztailearen 31, ortziralea, baino lehen eta data horretatik aitzinera indarra galduko dute.



## Euskaraz aritzeko guneak Euskaraldira gonbidatu dituzte

Euskaraz lasai aritzeko tokiak bildu nahi dituzte eta [malerreka@euskaraldia.eus](mailto:malerreka@euskaraldia.eus) helbidera idazteko deia egin dute

### TTIPI-TTAPA

Euskaraldia antolatzekeo Malerrekaren sortutako batzordeak ariguneak, hau da, euskaraz lasai aritzeko tokiak bildu nahi ditu. Toki horiek Euskaraldiak irauten duen egunetan irudi batekin identifikatuko dira eta, bertzeak bertze, honako hauek izan daitezke: udal-tertxeak, kultur elkarteak, kirol taldeak, eskolak, guraso elkarteak, dendak, ostatuak, ilea-paindegiak, enpresak, banke-tertxeak...

Hortaz, gisa horretakoren bateko kide direnei eta parte



Euskaraldiaren aurkezpena 2018an.

hartu nahi dutenei gonbidapena luzatu nahi izan diete: «[malerreka@euskaraldia.eus](mailto:malerreka@euskaraldia.eus) helbidera mezu bat idatzi eta informazio gehiago emanen dizugu».



UTZITAKOIA

## Musikaren Astea ikasturtea borobiltzeko

Agorreta musika eskolako ikasleak ikasturte bukaerako kontzertua egiteko aukerarik gabe gelditu zirenez, itxiera gisa, Aste Musikala egitea erabaki zuten. Ekainaren 8tik 12ra, sare sozialen bidez, piano- eta bateria-jotzaileek, akordeoilariek, trikitilariek... ikasitakoa erakutsi zuten.

## Malerrekako IV. Rallysprinta egingen dute uztailaren 18an

### TTIPI-TTAPA

Malerrekako eta inguruko motorzaleek badute hurrengo hitzordua. Izan ere, uztailaren 18rako, hirugarren larunbaterako, Rallysprinta antolatuta dute. Laugarren edizioa izanen da eta 13:00etan zehaztu dute hitzordua.



## Malerrekako Mankomunitateak bulegoa ireki du

### TTIPI-TTAPA

Malerrekako Mankomunitateak, berriz ere, herritarrei arreta emateko bulegoa ireki du. Aurrez aurreko hitzordua nahi dutenek 948 45 17 46 telefonora deitu beharko dute. 09:00etatik 14:30era irekita egonen da.





**Bizikleten salmenta eta konponketa.**

📍 Kanttonberri, 1 | BERA  
 📞 T. 948 631 218  
 ✉️ [joxemi@kateabike.com](mailto:joxemi@kateabike.com)  
 🌐 [www.kateabike.com](http://www.kateabike.com)











cristalería  
**BIDASOA**

COVID-19tik babesteko neurria egindako manparak  
 Duxetako manparak · Kristalezko barandak  
 Ate korrederak · Sukaldeko aurrealdeak  
 Koadroentzako markoak  
 Ispiluak · Beira dekoratiboak

Gipuzkoa etorb., 26 - 20302 IRUN - T. 943 61 30 63  
[info@cristaleriabidasoa.com](mailto:info@cristaleriabidasoa.com)



Mendizaleek antzeko argazkia dute amets. ARTXIBOA

## Mendizaleak irteerak egiten hasiak dira

Uztaileko hitzorduan bazkaria antolatzeko saiakera egiteko asmoa dute

### PABLO IRASTORTZA

Azken hilabetetako egoera dela eta, itzalia zegoen argia pizteko asmoz, ekainaren 2an elkartu ziren Mendi Taldeko kideak Doneztebeko egoitzan. Hilero egin ohi zituzten irteerak nola berrabiatu izan zuten eztabaidagai.

Nahiz eta aitzinerago, osasun agintariek arau malguagoak onartuko dituztelako itxaropena izan, konfinamendutik arintzeko garai honetan lehenengo irteera, ekainaren 16an, Arizkunen, egin zuten. Denen osasunaren alde hauek dira estreinaldiko egun desiratura-

ko-eta etorriko direnetarako-hartu ziren akordioak: batetik, taldeak, gehienez ere, hogeit lagunekoak izanen dira; bertetik, hogeit baino gehiago elkartuz gero, hauek taldetan banatuko dira; horrez gain, taldeen artean, gutxienez hamabost minutuko tartea utziko da; eta azkenik, mendi-buel-taren ondotik, ez da izanen hain gustagarria den jatetxeko bazkaririk, eta bakoitza bere kabuz moldatuko da. Erraztasun zabalagoa izanen delakoan, uztaileko hitzordurako bazkaria ere antolatzeko saiakera egingen da.

## Aralarko San Migelera bisitarik ez dute eginen aurten

### PABLO IRASTORTZA

Koronabirusa dela eta, urtean zehar egitekoak zituzten ekintza gehienak, ezin izan dituzte egin Arkupeak elkarteko kideek.

Otsailean, Gipuzkoa aldera bi irteera eta martxoaren 10ean Xabierrean egin zen buelta izan dira itxialdira arte egin ahal

izan dituzten ekintza bakarrak. Urtez urte, hagitx estimatua izaten den eta aurten uztailearen 27rako, hondarreko astelehenerako, iragarria zegoen Aralarko amatxi-atautxien eguna ere, osasun egoera berezia dela eta, bertan behera utzi behar izan dute.



1995ean inauguratu zuten eta festan elkarteko kide aunitzek parte hartu zuten.

## Galbaraialde erreken gaineko egurrezko zubiak mende laurdena bete du

### PABLO IRASTORTZA


Aurten betetzen ditu 25 urte Doneztebeko Galbaraialde erreken gainean, Intzakardi eta Elizagibela oinezkoentzat lotuaz, eraikitako zubiak. 25 urtez Arkupeak elkartearen buru izan zen, eta hainbortze lan egin zuten, Felipe Ganboak (goian bego) hainbat laguntzailerekin batera egindako ahaleginak ez ziren alferrik izan. Gaur, beheko solairuan haurtzaindegia eta goiko solairuetan gizarte-babeseko bizitzak diren Elizagibela karrikako blokea eraikitzeko eta bertara sarbidea errazteko zubia egiteko izan

ziren atsedetik gabeko ekime-nak. Bai herrian, baita Iruñean ere kikildu gabe, eta amore eman gabe jo zituen Felipek behar ziren ateetako aldabak, eta 1995ean ikusi ziren fruituak. Datu bitxi bezala, aipaturiko pasabidea, Britainiako lantegi batean, zura tropikalezko 44 metro luzerako pieza bakarrean batu eta kamioiz ekarri zuten, zortzi milioi pezeta ordaindu zen, garai hartako Nafarroako oinezko pasabiderik luzeena. 1995an izan zen bataren eta bertzearen inaugurazioa elkarteko kideek festa eder batekin ospatu zuten.

## Podologia zerbitzua martxan da dagoeneko

### PABLO IRASTORTZA

Elkartek eskaintzen dituen aukeren artean hagitx estimatua da Doneztebeko egoitzan astero izaten den podologia zerbitzua. Ekaineko bigarren hamabostaldian hasia da berriro lanean Ainara, podologiako arduraduna, eta osasun egoera berezian gaudela eta, badira bertaratu nahi duenak bete beharreko nahi eta nahiezko arau batzuk: batetik, egun eta ordu zehatzak emango zaizkie, eta denen onerako, puntualitatea eskatuko da; bertetik, bezeroak kalean (ate



ondoan) itxaron beharko du, eta Ainara jaitsiko da tokatzen zaion orduan; gainera, musukoa beti paratua eraman beharko du; era berean, osasun neurri zehatzak beteko dira; eta azkenik, ordua hartzeko Ainarari deitu behar zaio, 629 82 10 39 zenbakira.



Elkarlanean segitzen dute elkateko kideek. ARTXIBOKO ARGAZKIA

## Normaltasun berriari gogotsu heldu diote turismo arloan ere

Kontingentziako plana egiteko dokumentua helarazi die kide guztiei Baztan-Bidasoa Turismoa Elkarteak

### TTIPI-TTAPA

Baztan-Bidasoa Turismo Elkarteak gogotsu heldu dio «normaltasun berriari». Kide guztiak bat eginda aritu dira lanean. Izan ere, beraien oharrean diotenez, «martxoaren 14an mundua eten zen. Baztan-Bidasoan udaberria loratzen ari zenean eta turismo denboraldia hastear zegoenean, eguna beltz bilakatu eta gure landetxe, jatetxe, zerbitzu eta aktibitate enpresek atekatu itxi behar izan zituzten».

### Elkarteko kide izatearen balio gehigarria

Informazioa une batetik bertzera aldatzen zen eta ezjakintasuna gailendu zen. Ez ziren une samurrak izan Baztan-Bidasoa Turismo Elkartearentzat baina, hasieratik argi izan zuen une horietan,

inoiz baino gehiago, elkarteko kideen ondoan egon behar zuela. Garai txarretan izaten baita laguntza jasotzeko premia.

Helburu horrekin Zuzendaritza Batzordeak bilera telematikoak egin ditu krisialdi osoan zehar. Nafarroako Landa Turismo Federazioarekin harreman zuzena izan du. Nafarroko Turismo Zuzendaritzak antolatutako webinarretan parte hartu du, Espainiako Komertzio eta Turismo Institutuak emandako irizpideak jarraitu ditu, protokoloen

## SEKTOREKA BILDU DIRA KIDEAK PROTOKOLOAK AZTERTZEKO


berri jaso eta kideei helaraziz. Garbiketa eta desinfekzio enprekin harremanetan jarri da garbiketa produktuen aurrekontuak eskatzeko. Uneoro elkarteko kideekin komunikazio zuzena bermatu du. Bi norabideko komunikazioa: elkartetik kideei informazio guztia helaraztekoa bata eta haien zalantzak, ardurak eta kezkek jasotzeko bertzeta. Telefonoz, Whatsapez, eta e-mailez, etenik gabe.

### Normaltasun berriaren bidean

«Urratsez urrats aitzinera goaz. Aktibitateari berrekiten ari gatzazkio protokoloek eta gobernu irizpideek agindu bezala. Elementu berriak gehitu behar izan dizkiogu gure egunerokotasunari: musukoak eta eskularruak ez ezik, kontingentziarako plana eta bezereko protokoloak egitea eskatu digute. Norberak egin behar ditu dokumentuak, landetxe, jatetxe eta zerbitzu bakoitza bakarra baita. Kide bakoitzak bere dokumentu propioa egin behar du», diote.

Eginkizun horretan laguntzeko, Baztan-Bidasoa Turismo Elkarteak kideekin bilerak egin ditu. Sektoreka bildu dira kideak, protokoloak aztertzeko, eman beharreko urratsak finkatzeko, informazioa eta kezkek elkarbanatzeko. Eta bilera horien emaitza da elkarteak kideei helarazi dien kontingentziarako plana egiteko dokumentua. Hori oinarri hartuta, moztu eta itsatsi eginda, norberak berea egin dezan. Horrez gain, zenbait kidek euren dokumentu propioak gainontzekoekin partekatatu dituzte, «horixe baita elkarte batean egotearen balio gehigarria».

Planak egiten segitzen dute Baztan-Bidasoa Turismoa Elkartean, kanpaina berriak lantzen, elkarte gisa, baita Nafarroako Landa Turismo Federazioarekin elkarlanean ere, argi baitute elkartearen delantza indartsu egiten dituen.



Gidaren azala.

## Aisialdia eta Gastronomía Gida argitaratu du TTIPI-TTAPAK

### TTIPI-TTAPA

Baztan, Bidasoa, Mendialdea eta Xaretako Aisialdia eta Gastronomía Gida argitara eman berri du TTIPI-TTAPAK. Bertan, inguru honetako 130 bat jate-txe, ostatu, komertzio eta aisialdirako enpresen eskaintzen berri ematen da 88 orrialdetan bakoitzak eskaintzen dituen berezitasunak eta zerbitzuak azalduz hiru hizkuntzatan, euskaraz, gaztelez eta frantsesez. Baztan-Bidasoa-Xareta-Mendialdeko mapa bat ere badu.

8.000 ale argitaratu dira, azken urteetan bezala, turistak ibiltzen diren tokietan banatu direnak, jendeak har dezan eta bazkaltzeko edo afaltzeko plana egiten lagungarri izateko. Era berean, iragarkia jarri duen jatetxe-ostatu bakoitzean ere utzi dira ale batzuk bezeroen artean banatzeko.

Aisialdia eta Gastronomía Gida normalean Aste Santua baino lehen argitaratzen da eta aurtengoan ere hala egin da, baina Covid-19ak sortutako geldialdiaren ondorioz, beranduago banatu da.

## «Urte hasierarako eskola lekualdaketa egitea espero dugu»

AINHOA BEREAU ALTXU ITURENGO ZINEGOTZIA

**N. BAZTERRIKA** ITUREN

Joan den urte hondarrean, «taldea osatzeko baten faltan zeudelako» sartu zen udalean Ainhoa Bereau (Ituren, 1973). Ezezaguna zuen martxa, ordu-ra arte ez baitzen inoiz udalean ibilia: «bileretara joateko ohi-turarik ere ez nuen...». Beharra zegoelako, «beldurratikedo», eman zuen pausoa: «talderik osatzen ez bagenuen, kanpoko norbait etorriko zela erraten hasiak ziren. Ordura arte halakorik izan ez zenez ez zitzaidan gogoratu ere egin. Bertzeek egitea hobe izaten baita...».

Bertzeen faltan eman zuen pausoa, baina ez da damutu: «talde ona gara eta harreman ona dugu». Jakin badaki «denen gustua egitea zaila» gertatzen dela, baina, «momentuz» ez dute arazorik izan. Lan aldetik ere, eramangarria gertatu zaie orain artekoa: «alkatea aunitz mugitzen da, baina zinegotziok lasaiago egoten gara. Bi hilabetero osoko bilkura egiten dugu eta, tartean, sortzen diren beharren arabera elkartzen gara».

Bakoitzak bere lanak izaten ditu eta Bereauri kultur alorrekoak dagozkion arren, «dena denen artean» egiten dutela gaineratu du. Aurten, ekitaldi kulturalekin behintzat, lan guttiago izanen dute, Covid-19a dela eta bestarik ez baita ospatuko: «Trinitate Eguna hurbiltzen ari zenean, bilera bat egin genuen eta horrekin batera bestak ere bertan beheiti uztea utzi genuen, jende pilatzea saihesteko eta neurriak bete ahal izateko bertze modurik ikusten ez genuelako». Bezperan eta larunbatean bereziki, «plazan bildu eta herri-



Ainhoa Bereau, kultur zinegotzia.

tarrekin besta pixka bat egiteko aukera» falta izanen du berak ere.

Seinalerik eginen duten «ez dakien arren», tentagarri gertatzen diren musika eta bertzelako ekitaldirik gabe, lasaitasunean eta talde txikian gozatzeko biltzerik badutela uste du: «gazteek akaso ostatuan edo etxeren batean otorduren bat eginen dute...».

Bestak alde batera utzita, bertzelakoak lantzen ari da orain udal taldea: «udarako udal langileen kontratazioarekin aritu gara eta, berriz ere, eskola eraikitzeke egiten ari diren lanekin bueltaka gabiltza». Lanak «poliki-poliki» doazen arren, «zuzen bidean eta birusaren bertze agerraldirik ez badago behintzat» urte hondarrerako akitzea espero dute: «pistan izandako kontuagatik hasieran moteldu ziren arren, berriz martxan dira eta makurrik ez bada, Eguberrietatik bueltan lekualdaketa eginen lukete». Ea hala den, «horrenbertze urteren buruan tiki gelditu delako eta beharra badagoelako».



Duela zenbait urte, eratsundarrak pestetako otorduan paella prestatzen.

## Eratsungo pestak bertan behera uztea erabaki du Udalak

**TTIPI-TTAPA** ERATSUN

Inguruko beste herri askotan bezala, pestak ez ospatzea erabaki dute Eratsunen ere. Koronabirusak sortu duen ezohiko egoeran, herritarren segurtasunari lehentasuna eman nahi izan dio udalak, eta hala, joan den astean, ekainaren 15ean, egindako plenoan,

osasun arrazoiengatik irailean ospatzekoak ziren pestak bertan behera uztea erabaki zuen.

Dagoeneko Malerrekako hamar herritan jakinarazi dute bestak ez ospatzeko erabakia: Saldias, Doneztebe, Ituren, Elgorriaga, Beintza-Labaien, Sunbilla, Donamaria, Ezkurra, Zubieta eta Eratsunen.



UTZITAKOIA

## Film bat grabatzen aritu dira ekainean

Ekaineko hirugarren astean eskualdean *Una chica inmortal* filma grabatzen aritu dira. Iturenen egon ziren ekainaren 15etik 17ra, bi egunez, eta bertzeak bertze, Lopetxeneko bizi bordan eta inguruan egin zituzten grabaketak. Hortik Urrozerantz jo zuten eta Leurtzako urtegia eta ingurua iruditan bildu zuten.

**TTIPI-TTAPA**  
**SARE SOZIALETAN**  
Jarrai gaitzazu!

facebook  
[www.facebook.com/ttapi.ttapa](http://www.facebook.com/ttapi.ttapa)

## Herriko Ostatuaren kontratua berritu dute

Udalak 2022ra arte luzatu du ostatuko maizterrekin zuen hitzarmena

### FERMIN ETXEKOLONEA

Ekainaren 11n, bigarren ostiralean, ireki zituzten berriz ere Herriko Ostatuko atea Anuska Garrotek eta Nagore Diazek. Itxialdiaren ondotik, indarberrituta eta gogotsu bueltatu dira lanera.



### Errota ere irekita

Ostatuak ez ezik, herriko errota museoak ere atea ireki ditu, udako bisitariek funtzionamendua gertutik ezagut dezaten. Uztailetik aurrera, astelehenetik igandera, 11:00etatik 14:00 arte irekita egon da.

### Kontratua berritu dute

Berriki iraungi zaien Herriko Ostatua kudeatzeko zuten kontratua berrituta itzuli dira. Horrela bada, 2022ra arte (inauteri ondora bitarte) luzatu dute udalarekin zuten hitzarmena.



Naroa Elizalde (beltzez) bere taldekideekin.

## Plazandreak saioa eskainiko dute uztailaren 3tik aurrera ETBn

### TTIPI-TTAPA

Uztailaren 3an hasita, ortzegun gauero, *Plazandreak* saioa eskainiko dute ETB1en.

Hamalau emakumezko eta bi gizonezko parte hartuko dute saioan. Lau taldetan banatuta (entrenatzailea eta hiru jokalaria) kantxan dakitena erakusteko bilduko dira. Tartean

izanen da Naroa Elizalde zubietarra, entrenatzaile lanetan.

Hiru partida jokatu dituzte, pilota mistoa erabiliz: lehendabizikoa eskuz banaka, binakako bat hamabi tantotara eta eskuz banakako beste bat. Emakume pilotariek euren trebezia erakusteko aukera ederra izanen dute.



## PROMOCIONES MALERREKA

Informazioa: 629 951 170 (Aitziber)



## AUKERA BIKAINA Sunbillan!

### 9 ETXEBIZITZA:

115m<sup>2</sup> arteko etxeak

3 atiko

3 edo 2 logelakoak, sukaldea, egongela, 2 bainu, trastelekuak eta lurpeko garajeak

Lokal komertzialak



EZKAIN ERAIKUNTZAK-ek eraikiak



✓ Zure beharren araberako finantziazioa, Rural Kutxaren babes eta abalarekin

## Herrian kontsumoa bultzatzeko erosketa bonuak salgai

Hamar euroko hiru bonu eskura ditzakete herritarrek hogeii euro ordainduta

### TTIPI-TTAPA

Udalak eta Kaxkabeltza elkar-teak elkarlanean martxan jarri duten egitasmoa da. Modu honetara Covid-19aren osasun krisiagatik kaltetuak izan diren komertzioetan erosketak egitea bultzatu nahi dute eta, bide batez, herriko komertzioek elkarlanean eta elkarrekin lan egitea bultzatu.

Horretarako, 500 erosketa txartel jarri dituzte salgai eta herritarrek 20 euroren truke, 10 euroko hiru bonu eskuratzeko aukera izanen dute. Udalak 30 euro horiek osatzeko falta diren 10 euroak jarriko ditu eta horrenbestez 5.000 euro ordainduko dizkio Kaxkabeltza Elkarteari, kanpaina hau gauzatu ahal izateko.

### Ekainaren 22tik 26ra salgai

Bonuen paketeak udaletxeko karrapeko tabernan salduko dituzte: ekainaren 22tik 26ra edo bonu guztiak agortu arte. Astelehen, asteazken eta ostiralean 18:00etatik 21:00etara izanen dute bonuak erosteko aukera eta astearte eta ostegunean 11:00etatik 14:00etara. Bonuak Leitza bizi diren 16 urtetik gorako herritarrek erosi ahaliko dituzte eta bakoitzak bonu sorta bakarra erosi ahaliko du. Bonoak erosterakoan, izen-abizenak esan, NANA erakutsi eta helbidea eman beharko dituzte.

### Uztailaren 1etik abuztuaren 10era arte erabilgarri

Bonuak uztailaren 1etik abuztuaren 10era arte erabili edo gastatu ahaliko dituzte Kaxkabeltza komertzioetan. Kanpainarekin bat egiten duten



500 txartel jarri dituzte salgai

komertzioek kartel bat jarriko dute ikusgai. Epe hau igarota, bonuek bere balioa galduko dute eta ezin dira itzuli edo erabili. Gainera, bonuak erabili ahal izateko, erosketak, gutxienez, 10 eurokoa izan beharko du. Balio horren azpiko erosketetan ezin dira bonuak erabili eta banaka edo batera erabili ahaliko dituzte, baina gehienez, erosketa bakoitzean, herritar bakoitzak 10 euroko hiru bonu erabili ahaliko ditu.

### Udalaren ekarpen berezia

Udalak ekarpen berezia egin nahi izan dio aurten Kaxkabeltza elkarteari. Urtero adosten duen hitzarmenean 1.000 euroko dirulaguntzari beste 6.000 euro gehituko dizkiote aurten. Horietatik 5.000 euro Leitza kontsumitzeko bonuen kanpaina finantzatzeko izanen dira eta gainerako 1.000 euroak herrian kontsumitzeko sentibilizazio kanpaina gehiago egiteko bideratuko dituzte.

## 5.000 EUROKO EKARPENA EGIN DU UDALAK KANPAINA HONETARAKO



UTZITAKOIA

## Erronka berezia osatu dute aurten

Aurtengo edizioa bertan behera gelditu ondotik, antolatzaileek proposamenari erantzun eta argazkien bidez gogora ekarri dute Euskal Herria Mendi Erronka 92 erronkazalek. 67 kilometroko ibilbidea osatu zuenik ere izan zen, Iker Gomez eta Miel Olano herritarrek lasterketa osatu zuten beren kabuz.

## 'Zure zakurra, zure ardura' kanpaina abiatu du udalak

Mendian inoiz baino jende gehiago dabilen garaian, hainbat zakur jabeak zakurra lotu gabe daramala ohartu da udala. Horren ondorioz, hainbat susto izan direla ere jakin dute. Horregatik, zakurren jabeek eskaera garbia egin diete: «arduraz eta erantzukizunez jokatzeko». Zakur kakak ere nonahi agertu dira eta arazoa ez da berria. Udalak argi utzi du zakurrak ez direla arazoa: «hauetako batzuen jabeak baizik» eta horiei mezu argia zabaldu nahi izan die: «zure zakurra, zure ardura da».

## Igerilekua uda honetan ez irekitzea erabaki dute

Nafarroako Gobernuak jarritako irekiera baldintza zorrotzak betetzeko eta herritarren segurtasuna %100ean bermatzeko zailtasunak dituztela ikusita, aurtengo udan Leitza-ko udal igerilekuak ez irekitzea erabaki du Anikote SL enpresak.

## Herri-lanetarako bi langile kontratatuko ditu udalak

Leitza-ko Udalak E mailako bi langile kontratatuko ditu, lanaldi osoan eta uztailean hasita, sei hilabeteko iraupenarekin. Oposizio-lehiaketa bidez eginen dute hautaketa eta hautagaiek ariketa praktikoa zein teorikoa gaitu beharko dituzte. Eskaera eta agiriak aurkezteko epea ekainaren 24ko 13:00etan bukatuko da. Kontratatutako bi langileek konponketak, mantentze-lanak eta obra txikiak egin beharko dituzte eta lorezaintza eta garbiketa lanetaz ere ardura-tu beharko dute.

## Ibero dorreak tokiko zuraren saria irabazi du

Egurtek 2020 sarien epai-mahaiak Leitza-ko Ibero dorrea saritu du lehiaketaren bosgarren edizioan, tokiko zuraren saria jasota. Ibero dorreko zaharberritze lanek «Erdi Aroko dorrearen disdira eta dotoretasuna» berreskuratzen dituela nabarmendu dute.

## Auzolanerako deia egin dute ekaineko azken larunbaterako

Parte hartu nahi dutenek izena eman beharko dute Udaletxera deituta

### TTIPI-TTAPA

Herriko txokoak txukundu eta garbitzeko auzolana deitu du udalak ekainaren 27rako, larunbaterako. Bertan parte hartu nahi duenak ekainaren 26a arteko epea du udaletxera deitu eta izena emateko. Auzolaneko aseguruia eginen diete izena ematen dutenei. Egindako lanaren truke, haiketako eskainiko die udalak auzolaneari aritutako guztiak.

Bestalde, udalak abisua ere eman nahi izan die herritarrei, gogoraziz Txino auzotik Malenera arteko bidegorria oinezkoek erabiltzeko dela. Bide horretan, motordun ibilgailuekin etxebizitza edo lursaila dutenak bakarrik ibil daitezke eta erabiltzaile hauek abiadura mugak errespetatu beharko dituzte. Gainera, kasu guztietan, bidegorritik doazen oinezkoek lehentasuna izanen dute.

## Zabor ugari agertu da asteburuetan erreka bazterretan

### TTIPI-TTAPA

Eguraldia lagun izan denetan, jende askok egin du erreka bisita eta askok «zentzugabe jokatu, eta zabor pila utzi» dute botata. Goizueta eta Arranbide artean, erreka bazterretan «zabor asko» aurkitu dutela azaldu du udalak: lata, plastikoak, janari zorroak... Hauen jarrerarekin kritiko azaldu da udala eta argi utzi

du, naturaz gozatzea ederki dagoela, baina ingurua ere zaindu behar dela: «erreka bazterretan hurbiltzea oso ongi dago, baina zaborra bertan uztea ez». Hau guztia berriz ez errepikatzea ere eskatu dute eta bakoitzaren zaborra eraman edo jasotzeko eskaera luzatu dute. Halako tokiez gozatu ahal izateko, denon ardura baita zaintzea,



UTZITAKOAK

## 'Goizueta' kantua etxetik etxera

Belarriak eta begiak goxatzeko aukera izan da herritarrek osatu duten bideo bereziarekin, Herriko neska gazte kuadrilla baten ahotsak, Iñaki Etxeberriak hartutako irudiak, Manolo Arozenaren hitzak eta Joxe Luix Arozenaren doinuak pieza bikaina utzi digute. *Erran.eusen* dago ikusgai.

## Ikastolako toldoa udara osoan izanen dute erabilgarri

### TTIPI-TTAPA

Normalean festetarako jartzen den ikastolako toldoa edo estalia uda osorako jartzea erabaki zuten ekainaren 4an herriko eragileek egin zuten bilera. Udaleko ordezkariak, Umore Ona elkarteak Etxerakoak, gurasoak, gazteak... elkartu ziren eta ezohikoa izanen den uda honetan espazioari erabilera eman eta herritarrentzat baliagarria izan daitekeela pentsatu dute.

Umore Ona elkarteak edariak kontsumitzeko terraza gisa erabiliko dute, muntaia egin

eta ondorengo egunetan irekitzekoa baitzen elkarrekin. Ekainaren 20an egina zuten herritarrek hitzordua elkarren artean estaliaren muntaia egiteko.

Terrazako erabileraz gain, udaran zehar antolatuta daitezkeen hainbat ekintzetarako ere aproposa izan daitekeela uste dute edo euria egiten duenerako aterpe gisa ere erabiliko dute tokia.

Tonbolak sortzen duen urteroko saltsarik egonen ez bada ere, seguru tokiari emanen dietela bizia.

# Landa Jatetxea

UZTAILAREN 1ean irekiko dugu,  
inagurazioa 19:00- 21:00

Eguneko menua 11€ + kafea

Asteburuko menua 22€

Sagardotegi menua 26 €



IREKIERA BERRIA,  
GERENTZIA BERRIA  
ZATOZ ETA DISFRUTATU!

Landa ind. z/g · LEITZA · T. 948 61 09 91 · M. 682 50 24 13 · Ordutegia: goizeko 8:00etatik aurrera

## Amazabalgo jangelako afera Parlamentura bidean

Jangela zerbitzuko dirulaguntza mantentzeko eskaera eginen dute Leitzaldeko, Urumeako eta Larraungo alkateek

### TTIPI-TTAPA LEITZA

Amazabalgo jangela zerbitzuko dirulaguntza mantentzeko eskatuz Parlamentura joko dute Leitzaldeko, Urumeako eta Larraungo alkateek. Apirilean izan zuten Amazabalgo gurasoek egoeraren berri. Orduan jakinarazi zien ikastetxeak Nafarroako Hezkuntza Departamentuak heldu den ikasturtean ez duela Amazabalgo DBHko ikasleen jantoki zerbitzua diruz lagunduko eta DBHko eta Batxilergoko ikasleei ordutegi berbera jarri nahi dietela. Jantoki zerbitzuko dirulaguntza defendatu beharra zutela ikusita, Amazabalgo erreferentzia zentrotzat duten herrietako udal ordezkariak harreman sorta bat hastea erabaki zuten. Hamaita ate jo eta guztiak itxi dizkietela salatu du Mikel Zaba-

leta Leitzako alkateak eta argitu du: «orain, gelditzen zaigun bide bakarra Parlamentura jotzea da».

Nafarroako Hezkuntza Departamentuaren asmoen berri jakin orduko, haiekin biltzeko eskaera egin zieten Leitzaldeko eta Larraungo alkateek. Jasotako erantzuna, ordea, ez zen espero zutena izan: «hasieratik esan ziguten erabakia hartua zegoela, gu entzuteko prest zegoela, baina ez zuela deus aldatuko». Mikel Zabaletak azaldu duenez eskola kontseiluak ere urte-

### HAINBAT ATE JO ONDOTIK GELDITZEN ZAIEN BIDE BAKARRA DA

beteko atzerapena eskatu zuen gaiari behar bezala heldu ahal izateko «eta eskaera horri ere ez zioten erantzunik eman». Hala esan zieten gaiari buruz galdetutakoan: «erantzunik ez jasotzea, erantzun bat ematea da». Jarrera horren aurrean Parlamentura jotzea erabaki dute, «hortik presioa egiteko. Murrizketa hau ez gauzatzea lortzeko edo gutxienez luzapen bat izateko, gauzak behar bezala aztertu ahal izateko».

### «Asko dago jokoan»

Eskura zituzten bide guztiak jorratu dituztela ere azaldu du Zabaletak: «Arartekoarekin bildu gara, Despopulazio Zuzendaritzara jo dugu, kontseilariarekin egon gara, gurasoei karta bat bidali genien egoera azaltzeko eta prentsan ere hitz egin dugu gaiaz». Pauso horiek emanda, espero zuten erantzunik jaso ez dutenez: «orain gelditzen zaigun bide bakarra Parlamentura jotzea da eta hori da orain abiatuko dugun bidea». Herritarrak informata egotea ere funtsezkoa iruditzen zaie: «jakitea nahi dugu zer dagoen jokoan eta guk zein bide landu ditugun. Gure esku dagoen guztia eginen ari gara».

## Liburutegi Ibiltariak geldialdia egin du berriz ere Arano, Areso eta Goizuetan

### TTIPI-TTAPA

Otsailaren 27an jarri zuten martxan Arano, Areso eta Goizuetako Liburutegi Ibiltaria. Areson egin zuten lehenbiziko geldialdia eta biharamunean izan ziren Arano eta Goizuetan. Hilabete behin biltzekotan gelditu ziren baina Covid-19a tarteko zerbitzua bertan behe- ra utzi behar izan dute. Bi hilabeteko geldialdiaren ondoren, ekainaren 18an biltzekoak ziren Aresoko udaletxean Goizueta eta Aranon berriz, ekainaren 19an, ostiralgoizean osatzekoa zuten itzulia.



Aresoko aurreneko banaketa. E.IRAOLA

Datozen hilabeteetan segi nahi dute zerbitzuarekin eta orain artean bezala, Whatsapp bidez emanen dute hitzorduen berri. Liburutegia herritar guztiei irekia dagoela gogorazi nahi izan dute: «baldintza bakarrenetakoa Nafarroako Liburutegi Sareko erabiltzaile-txartela egitea da, guztiz doakoa». Erabiltzaileek alde aurretik eska ditzakete nahi dituzten dokumentuak eta banaketa egunean bertan jaso. Eskaera berriak egin nahi izanez gero, Whatsapp bidali beharko dute 617 385 882 telefonora, eskatu nahi duten dokumentua (liburua, DVD...) eta norberaren izen-abizenak adierazita.

## Herriko festen antolaketa bertan behera uztea erabaki dute

### TTIPI-TTAPA

Festa batzordeak bilera egin zuten ekainaren 9an eta aho-batez erabaki zuten festen antolaketa bertan behera uztea: «egoera zein den ikusita zentzuzkoena delako». Gehiegi luzatu gabe, atzera edo aurrera egin behar zela ikusi zuten: «jendearekiko errespetuagatik, azken momentuan ekitaldiak bertan behera utzi beharrean, nahiago dugu erabakia garai hartu». Gainera, otorduek indar handia dute herrian «eta horietan jende kopurua kontrolatzea eta segurtasun neurriak betetzea ez da erreza». Hala ere, udan, berriz biltzeko asmoa dute eta momentuko egoeraren arabera festei keinu bat nola egin erabakiko dute.

## Industrialdean zaborrak botatzeagatik zigortua

Eluseder industrialdean norbait hondakinak botatzen ari zela ikusita, Foruzangoei abisua eman zieten herritarrek ekainaren 6an. Ikerketak egin ondotik, jakin dute hernaniar bat ari zela hondakin-kudeatzailearen itxurak eginez zaborra botatzen. Isun-espediente ireki diote.



Ingurua hondakinez josia utzi zuten.



## «Atzera ez egiteko denon ardura da neurriak errespetatzea»

SAIOA MARITORENA ETA JOANA CLAUDIO LEITZAKO GAZTEAK

Konfinamendua arinduta jendeak birusari beldurra gal ez diezaion bideoa osatu dute bi gazteek. Gizarte Zerbitzuen kanpaina baten parte da: gazteengan eragiteko, gazteek egina

### E.IRAOLA | LEITZA

Leitza, Areso, Goizueta eta Aranoko Gizarte Zerbitzuetatik egindako eskaerari erantzunez, bideo berezia osatu dute Saioa Maritorea eta Joana Claudio leitzar gazteek. Baten marrazketarako gaitasuna eta bien musikarako abilezia elkartuta osatu dute lana. Batez ere, gazteengan eragiteko kanpaina baten parte izan den arren, gizarte osoarentzat da baliagarria zabaltzen duten mezua: «arriskuak kalean jarraitzen du eta ezin gara erlaxatu».

Hamazazpi eta hamasei urte dituzte, hurrenez hurren, Saioa Maritorenak eta Joana Claudiok. Konfinamendu garaian, «lagunen falta handia nabaritu eta haiekin ezin elkartu oso gogorra» izan den arren, egoera berrira «uste zutena baino hobeto» egokitu direla azaldu dute. Artea izan dute horretan gozagarri: «musika, literatura... halakorik gabe ez zen berdina izanen». Afizioekin batera, eskolako lanak ere egin behar izan dituztenez, «ez dugu aspertzeko denborarik izan». Gizarte zerbitzuetatik jasotako proposamena gauzatzeko ere hartu dute tartea: «Gizarte zerbitzuetatik jaso genuen deia eta animatu egin ginen. Ideia jendea segurtasun neurriak betetzera bultzatzeko bideo bat egitea zen, gehienbat gazteei zuzendutakoa. Gizarte zerbitzukoek pentsatu zuten mezua gazteok zabaltzen



Gustura daude bideoak izan duen harrerarekin. UTZITAKOIA

bagenuen indar gehiago izanen zuela. Asko eskertzen dugu guri deitu izana».

### Elkarlanean osatutako pieza

Bi astetan osatu dute lana: «hasteko, Covid-19aren aurretik zegoen egoera, gertatu dena eta orain egin beharrekoa jaso du Saioak marrazkien bidez». Abestia osatzea hasieran kosta bazitzairen ere, ideia batzuk baztertu ondotik «marrazkiak eta kanta elkartu genituen, bideo bat osatuz. Letra ere jarri genuen, mezua argiagoa izateko. Ondoren, gizarte zerbitzuko kideei bidali genien».

### Jendearen jokaera

«Segurtasun neurriak errespetatu eta ez erlaxatzea» ho-

rixe da bideoak zabaltzen duen mezua. Izan ere, konfinamendua arindu ondotik jendearen jokaera ez dela egokiena uste dute: «hasieratik geneukan argi jendea azkar eta presaka aterako zela kalera. Bi hilabetez lagunak eta familiako kideak ikusi gabe egotea gogorra da eta denok geunden irrikitan kalera ateratzeko». Gazteen artean onartu dute, «segurtasun neurriak errespetatzea asko kostatzen» zaiela. Hori

**«POZIK GAUDE MEZUA ULERTU ETA ZABALDU DELA IKUSITA»**

dela eta duten kezka handiena «atzera pausoak egitea da». Dena den, fokua maiz gazteengan jartzen den arren, argi utzi nahi izan dute ez direla gaizki ari diren bakarrak: «ez dago gure eskuetan bakarrik, biztanle guztien eskuetan baizik. Denok buruan eduki beharra dugu arriskuak kalean jarraitzen duela eta ezin gara erlaxatu».

### Ezohiko uda

Azken asteetako datuek ere egoera erlaxatzeko bidea eman dutela uste dute: «egia da oso ongi doala dena, baina horrek ez du esan nahi birusak oraindik kalean jarraitzen duela ahaztu behar dugunik». Horrekin lotuta, badakite aurten go uda ezohikoa izanen dela: «baina horrek ez du esan nahi ongi pasatzeko aukerarik izanen ez dugunik». Etxean egon behar izan duten denborak erakutsi die zerk duen benetakoa balioa: «orain gure ingurukoekin, maite ditugunekin, egoteko garaia da. Momentua gozatzekoa, ez da asko behar gustura egoteko. Ez dakigu hemendik hilabete batzuetara non egonen garen eta aprobetxatu beharra dugu».

### Herritarren babesa

Bideoak izan duen harrerarekin ere gustura daude: «oso kritika onak jaso ditugu familia, lagunak eta herritarren partetik eta asko eskertzen dugu. Karrapen elkarrizketa ere egin ziguten eta ТИПИ-ТТА-ПАКОЕК emandako aukera ere berezia da. Guretzat berria izan da herriaren babesa edukitzea eta oso pozik gaude gure mezua ulertu eta zabaldu dela ikusita». Eskerrak eman nahi izan dizkiete zoriondu dituzten guztiei: «gutxi badirudi ere, guretzat oso garrantzitsua izan da jendeari guk sortutako zerbait gustatu zaiola ikuste eta aurrerago gauza berriak egiten jarraitzea animatzen gaitu».

Bi gazteek egindako lana ikusi nahi duen orok, ikusgai du [erran.eus](http://erran.eus) web orrian.

## «Kaparetasuna ikertuta, egungo Baztan hobeki ulertu ahal izan dut»

MIELTXO SOBRINO ETULAIN ARIZKUNGO GAZTEA

Baztango Udalak ikasketa proiektuak garatzeko ematen duen dirulaguntza baliatuz, Baztango kaparetasun unibertsala aztertu du Mieltxo Sobrinok. Ikasitakoa «funtsezkoa» iruditu zaio egungo Baztan hobeki ulertzeko

### N. BAZTERRIKA ARIZKUN

Istorioak eta historia leitzea gustuko izaki, ikasketak zale-tasunaren ildotik bideratzea erabaki zuen Mieltxo Sobrinok (Arizkun, 1998). Ez da damutu eta, gaur gaurkoz, Historia gradua ikastea «erabaki ezin hobea» izan zelakoan dago. Ikasketak akitzeko Gradu Amaierako Lana akitzea baino ez du falta eta, dagoeneko, aurkeztu aitzineko zertzeladak lantzen ari da. Kontatu digunez, kaparetasun unibertsala izan du aztergai, euskal lurraldeetan izan zuen eraginetik abiatu eta fokua Baztanen jarritz. Lana osatzeko, handik eta hemendik irakurri eta artxiboko dokumentazioa bildu du. Azterketa «arras aberasgarria» gertatu zaio arizkundarrari, «ordu hamaika bitxikeriaren berri izateak egungo Baztan hobeki ezagutzeko» aukera eman baitio.

**Baztango kaparetasun unibertsala izan duzu aztergai. Zergatik aukeratu zenuen gai hori?**

Egia errateko, nire hasmentako nahia Lehen Gerrate Karlistaren inguruan ikerlan bat egitea zen, ziurrenik Baztango ikuspuntuan zentratuko nukeena. Azkenean, ez zen posible izan eta Gradu Amaierako Lanen zerrendak atera zirenean, kaparetasun unibertsalaren gaia ikusi nuen. Bertan, euskal probintziak Hispaniar Monarkian nola

txertatu ziren aztertu behar zen. Gai hori proposatu zuen irakaslea momentu horietan nire Aro Berriko irakaslea zen. Berarekin solas egin nuen eta, gai hori eskuratuz gero, Baztango kasuaz hitz egitea posible izanen zela erran zidan.

**Azal ezazu, bi hitzetan, lanaren nondik norakoa...**

Lanaren hasieran, sarrera moduan kaparetasun unibertsala zer zen eta euskal lurraldeetan nola hedatuz joan zen azaldu dut. Herri oso bat kapare bezala izendatzea, Europa mailan salbuespenezko egoera izan zen, gehienbat

Kantauri isurialdean gertatu zena. Ondotik, baztandarren kasuan zentratu naiz.

**Nori aitortu zitzaion kaparetasun unibertsala eta zer ondorio zekarren kapare izendatzeak?**

Gaztelako erregeek, kaparetasun unibertsala aitortu zieten Bizkaia eta Gipuzkoari osotasunez eta Nafarroa eta Arabari partzialki. Azken bi hauetan, soilik hiribildu eta bailara batzuek ezagutu zuten kaparetasunaren aitortpena. Kapare izendatzeak garai hartan abantaila aunitz suposatzen zituen. Fiskalitatearen aldetik, zergak ordaintzearen

**«BEKA PIZGARRI IZAN DA ETA LANA EGITEKO MOTIBAZIO HANDIA EMAN DIT»**

**«KAPARETASUNAK SORTUTAKO BARNE-TENTSIOAK AZTERTU DITUT»**

### Kaparetasun unibertsala

Kapare «behe mailako nobleziaren parte den pertsona» izendatzeko erabiltzen da eta «gaztelaraz *hidalgo* gisa ezagutzen ditugunak» dira. Kapareak nobleziarako bidea «bertzeak bertze, erregeek emandako eskumenen bitartez (gutunezko kaparetasuna edo pribilegiozkoa), aunitzetan gerran eskainitako laguntzaren ordain gisa», lor zezakeen. Pertsona bat ez ezik, «erregeak hiri edo bailara oso bat ere kapare izenda zezakeen». Horri esker, «bertako biztanle guztiek abantaila juridiko eta fiskal handiagoak» izan zitzaizketen.

salbuespena zeukaten (bertzelako ordainketa batzuekin arren) eta ikuspegi juridikotik, hainbat abantaila eduki zituzten, lurraldearen arabera aldatuz joan zitezkeenak. Batzuk aipatzearen: ezin ziren kartzelaratuak izan zorpetuak egoteagatik, ezin zitzaizten torturatu, eta hala izatekotan, torturatzailerak isun handi bat ordaindu behar zuten. Lur komunalak banatzerako orduan, eskubide handiagoak zituzten eta abar. Behe nobleziaren partaideak izan arren, aunitzetan bertako jendea arras pobrea izaten zen. Baina kapareak zirenez, haien noblezia frogatzeko prozesu juridiko bat egiteko aukera zeukaten (noblezia exekutoria edo odol garbitasunarena). Aitorpen horrekin, euskal lurraldeak utzi eta penintsulako zein Ameriketako lurraldeetan kargu garrantzitsuak betetzeko aukera zeukaten, horietako aunitz soilik nobleek betetzen ahal baitzituzten. Paperaren gainean, komunitate hauek *berdinez* osaturikoak izanzen ziren, baina errealtatean salbuespenak egon ziren. Nik salbuespen horiek eta kaparetasunak sorrarazitako barne-tentsioak aztertu ditut. Amaieran Baztandik kanpo atera ziren gazteek solas egin dut, batzuek arrakasta handia lortu baitzuten, kaparetasunak ireki zizkien aukerei esker.

**Baztandarren kaparetasun unibertsalaren errekonozimenduaz geroztik, nola zorrotz ziren bailarako auzokide izateko irizpideak?**

1440an baztandar guztiak kapare bezala onartuak izan arren, abantaila horiek soilik auzokide zirenei mugatuak gelditu ziren. Auzokide hitza eskubide osoko biztanle bezala ulertu behar dugu hemen. Abantailak eta betebeharrak zituzten. Hauen aitzinean, auzokideak ez zirenak zeuden, *habitantes* edo *moradores* bezala deiturikoak. Azken horiek ezin zuten politikan eta lur komunalen erabileran parte

hartu. Bailarako ordenantzen (bailara administratzeko lege sortak) bitartez, kapareen abantailak auzokideei mugatu zizkieten, eta ez biztanle guztiei, erregeek zioten moduan. Horrela, bertze neurrien artean, auzokide izateko lau aiton-amonak baztandarrak zirela frogatu beharko zen. Ezkontzaren bitartez kaparetasuna lortzea zaildu egin zuten eta kanpotarrak zirenak, haien jatorrizko lurraldean kapareak zirela frogatu beharko zuten auzokidetasuna lortzeko.

#### **Gatazka sozialean ere jarri duzu arreta...**

Baztandar guztiak kapare bezala aitortzeak, bailaran tentsioak bi zuzenbidetan hauspotu zituen. Batetik, dorretxetako jaunek bailarako buruzagitzak zeukatzen, alkate eta gerra kapitainak ziren heinean. Ordea, auzokideek kontra egin zieten urte luzez, denak nobleak zirela eta jauntxo haiek baina gutxiago ez zirela argudiatuz. Horrela, egungo egitura administratiboaren oinarriak lortuz joan ziren. Bertzetik, auzokideek ez zizkieten auzokide ez zirenei kaparetasunaren abantailez gozatzeko utzi nahi. Etengabe, auzokide izateko neurriak zorrotz zituzten.

#### **Zer izan da azterketan deigarrien egin zaizuna?**

Auzokideek jauregi edo dorretxetako jendearekin epaiaketetan sartzeko adorea izan zuten. Hauen borrokarik gabe, jauntxo hauek urte luzez edukiko zuten bailararen kontrola, haien interesak lehentasunezko hartuz.

#### **Zer oinarri erabili duzu lana egiterako orduan?**

Batetik, lanaren gehiengo sintesi bibliografikoan oinarritu dut. Horretan, tutoreak eta Aro Berriko departamentuko bertze irakasle batek aunitz lagundu didate, liburuak, artikulua eta bertzelako irakurgaiak bidali eta gomendatuz. Bertzetik, ikuspegi originalago bat lortzearren,



Historia ikasketak akitzean dituz Mieltxo Sobrino Etulainek. UTZITAKOIA

Iruñean dagoen Nafarroako Erret Artxibo Orokorreko bi agiri landu ditut, arras interesgarriak. Biak Arizkun dagoen Jauregia dorretxeko ondorengoekin zerikusia dau-

katen epaiaketak dira, 1680 ingurukoak.

**Hainbat bitxikeria harrapatu izanen dituzu... Baduzu erranguratsu gertatu zaizun bat aipatzerik?**

**«AUZOKIDEEN BORROKARIK GABE JAUNTZOEN ESKU LEGOKE BAILARA»**

**«BAZTANDAR BATZUEK IZANIKO ARRAKASTAK HARRITU NAU»**

### **Iraganetik oraina eraikiz**

Gure historiaren berri izateak eta iragana ezagutzeak «nortasuna eraikitze» aukera ematen du Sobrinoren ustez: «euskarak, bi erresumen parte izanak, foruek, ezagututako gerrek... egungo paisaiarekin, ohiturekin eta egitura politikoarekin» eragin zuzena dute. Horregatik guztiagatik, historiak gure bizitzako alderdi aunitzen «testuinguru ezagutzeko» bide ematen duelakoan dago: «egutegia, armarria, baserri zein dorretxeak, kondairak...». Historia «data eta pertsona zerrenda luze bat baino gehiago» da eta «pixka bat ikertuz gero, bitxikeria andana topa daiteke».

Zalantzarik gabe, gehien harritsu nauena baztandar batzuek lortutako arrakasta da. Ikertuz joan hala, erregearen ondoan jarduten zuten ministroak, militarrek, merkatariek, gizon aberatsak eta goi-elizako kideak topatu ditut. XVIII. mendean bereziki, nafarrek oihartzun nabarmena utzi zuten estatuen administrazioan, horien artean baztandarrak gehiengo izanik.

#### **Zer ondorio atera duzu azterketatik?**

Gai honen ezagupena funtsezkoa iruditu zait egungo Baztan hobeki ulertzeko, egun gizar-tearen antolakuntzan eta paisaian aztarnak utzi baititu. Gainera, baztandarren 'lehen ateraldi' bat bultzatu zuenez, gerora etorriko zen artzainen emigrazioarekin batera, egun baztandarren abizenak Amerika zein penintsulan barrena aurkitzea azalduko luke.

#### **Udalak ikasleei emandako laguntza hori Baztango historia ikerketak biltzeko lagungarri da? Zergatik?**

Zalantzarik gabe. Gure historian interesa dutenentzat pizgarri eraginkorra izan daiteke, laguntzaren bidez, herritarrak, historia irakurtzeaz gain, artikulua edo ikerlanak egitera animatu daitezke. Nik jendea historian miatzen hastera animatuko nuke. Historia ez da data eta pertsonaien zerrenda luze hutsa. Ziur naiz, pixka bat ikertuz gero, jendeak berezitasun aunitz topatuko dituela bere herriaren inguruan, gustukoak izanen dituenak eta egungo egoerak eta paisaiak kontestuan jartzen lagunduko diotenak.

#### **Aitzinera begira zein da zure asmoa?**

Klasekide gehien antzera, etorkizuna ez daukat batera argi. Momentuz irakaskuntzaren bidea baztertuta utziko dut. Agian, artxiboetan lan egiteko masterra eginen dut datorren ikasturtean. Bertzela, urte bat pasatu nahi nuke inguruan lanean, ideiak argitu bitartean.

## Mendiko lanetan 100.144 euroko inbertituko dituzte

Barrengo eta Bagoiko bideak erreparatu, landaketak garbitu, bakantze-lanak egin eta sasiak kenduko dituzte

### TTIPI-TTAPA

Baztango Udalak mendiko bideak, oihanberritzeak eta oihaneko lanak eta nekazaritzako sasitzak kentzeko lanak eman berri ditu. Denera, BEZ kanpo, 100.144,13 euroko balio duten lanak egingen dira.



Otsondon landaketa garbituko dute.

### Bideak zolaberri

Mendiko bideei buruz Irurita Barrengo (Beartzun) eta Bagoiko (Bailei alderdian) bideak erreparatuko dira zolaberriuz, hodiak garbituz eta gisako lanak eginez. Bide horiek iratzelai eta belagietara ematen dute. Lanak Javier Alzugarai egingen ditu, berea izan baita aurkeztu diren bortz eskaintzen artean hoberena. Kontratuaren prezioa 20.340,32 eurokoa izanen da (BEZ kanpo).

### Mendiak garbitu

Bertzalde, Otsondo aldean landaketa garbitu eta alanbre zaharra kentzeko lana Lizelanak hartu du bere gain. Denera hamabi hektarea hartzen dituzten haritz, lizar, astigarreko... hiru landaketa dira. Kontratuaren prezioa,

BEZ kanpo, 15.500 eurokoa izanen da eta denera bi eskaintza aurkeztu ziren.

Oihaneko lanak, berriz, Pagoak egingen ditu 53.309,81 euroan (BEZ gabe). Orain hogeita bortz urte Otsondo txikin eta Juxtoren bordan egindako landaketetan bakantze lanak egingen ditu.

Azkenik, nekazaritzako sasitza kentzen Lizelan arituko da eta 11.500 euroan egingen du lana. Belate, Erdiz eta Lizartzuko alhaleku komunalean eta Atxuelan denera 20 hektarea inguru sasi garbitu beharko ditu. Azken lan hau egiteko lau eskaintza aurkeztu ziren.

Aipaturiko lanak ondoko hilabeteetan egingen dituzte.



Neurriak betetzeko zailtasunak izanen dituztela ikusita hartu dute erabakia.

## Segurtasun neurriak betetzeko zailtasunengatik jostaldirik ez

### TTIPI-TTAPA

Covid-19a dela eta, aurtzen ez dute udako jostaldirik izanen Baztanen.

Udalak zerbitzua eskaintzeko ahalegina egin duen arren, jarduerak behar bezala eskaintzeko beharrezko diren neurriak eta osasun baldintzak behar bezala betetzea zaila

izanen dela ondorioztatu du. Hortaz, «ezohiko egoerak behartuta» aurtzen ez antolatzea erabaki du.

Erabakia jakinaraztearekin batera, hurrengo urteko jostaldiak «bikainak» izanen direla iragarri dute. Antolatzaileek asmo horrekin ekinen diete prestaketa lanei.

## Gazte Asanbladak bigarren eskuko azoka egin nahi du

Baztango Gazte Asanbladak «egoerak aukera eskaintzen duenean» bigarren eskuko truke azoka egingen duela iragarri du. Eguna zehaztu bitartean, herritarrei behar ez duten arropa eta bertzelakoak altxatzen hasteko deia egin die.

## Ekain hasieratik zabalik da Bozateko Santxotena museoa

Martxoaren 7tik itxita zegoen Bozateko Santxotena parke-museoa ekainaren 6an ireki zuten berriz ere. Parke-museoko bisitak langile nahiz bisitariarentzako segurtasun- eta norbere burua babesteko neurri guztiak betez egingen direla jakinarazi zuten.

**mañonea**  
ASEGURUAK AGENTZIA

ZERBITZU GUZTIAK LEKU BEREAN

FINKA ADMINISTRATZAILEA

KONTABLE, ZERGA,  
LAN eta JURIDIKO  
AHOLKULARITZA

ASEGURUAK  
AGENTE ESCLUSIBOA  
Erregistro Zkia.:  
C0072B71193304



[www.mañonea.com](http://www.mañonea.com)

Braulio Iriarte karrika, 9 ELIZONDO BAZTAN - NAFARROA  
T. 948 58 11 32 - 606 89 68 43 - [info@mainonea.com](mailto:info@mainonea.com)



Igogailuen  
instalazioak.

Multimarka  
mantentze-lanak  
eta erreformak.

**T. 948 232 400**  
[www.inelsazener.com](http://www.inelsazener.com)



25 berroetarrek mendi maratoi erdiko ibilbidea egin zuten ekainaren 14an.

## Berroetako Mendi Maratoi Erdiaren hutsa betetzeko herritarrek irteera egin dute

### MAIALEN IANTZI

Berroetan egiten den Mendi Maratoi Erdia oroituz, lasterketako itzulia egin zuten herritarrek ekainaren 14an, bigarren igandean. Mendi itzulia egiteko guztira 25 lagun bildu ziren.

Ibilbidea oinez egin zuten, eta eguraldia lagun, ibilbidean

paraje zoragarriez gozatzeko aukera izan zuten. 21 kilometroko ibilbidea egin ondotik, mendizaleak elkartean bildu ziren eta giro ederrean bazkaldu zuten.

Aurten, Berroeta-Saioa lasterketa egin ez bada ere, herritarrek arantza kendu ahal izan dute.



UTZITAKOAK

## Musikarien trebezia pantailaratu dute

Plazak pantailek ordezkatu dituzte. Musika eskoletako ikasleek orain artean ikasurte bukaeran eskaintzen zituzten kontzertuak grabatu eta sare sozialetan zintzilikatu dituzte, guztien gozagarri. Baztan Musika Eskolakoek ere ERRAN.EUS webgunean bildu ditugu.

# PIZTU!

Tokiko ekonomiarako bonoak

*Bonos para la economía local*

## Eskura ezazu

ekainaren 2. hamabortzaldian Elizondoko plazako Informazio Bulegoan



15€

(10+5)



Info+










# «Lanak eta futbolak balantza perfektua sortzen dute nire bizitzan»

UXOA BERTIZ AYUSO OSASUNA B TALDEKO FUTBOLARIA

Hurrengo denboraldi-aurrea Osasunaren lehen taldean eginen du Uxo Bertiz. Eman dioten aukera aprobetxatu nahi luke eta «ongi aritzeko konfiantzaz eta gogotsu» dago

**N. BAZTERRIKA** | ELIZONDO

Nonahi baina zelaitik hurbil ibili da Uxo Bertiz (Elizondo, 1997). Herrian, eskolako taldean, eman zituen lehenbiziko ostiakadak, Baztango taldean ibili zen gero. Irungo Mariño taldean bortsu urte egin zituen, eta tartean, Euskal Selekzioan aritzeko aukera izan zuen. Ikaske-tengatik AEBn egindako urteetan, Springfield taldean eta egun, Iruñean, Osasuna Bn dabil. Gehiago ere bada. Denboraldi-aurrea lehen taldean eginen du. Futbolaz eta bizitzaz «gozatzen segitzeko eta gehiago ikasteko» ilusioz gainezka dago. **Gazterik hasi zinen futbolean. Orduan, segur aski, ez zineten neska aunitz izanen. Nola animatu zinen?**

Ttikitatik barruan eraman dut futbola. Lehengusu eta barriedekin etxe azpian milaka ordu pasatu izan ditut futbolean jokatzen, baita eskolako patioan ere. Ofizialki, bederatzu urte nituelarik hasi nintzen, eskolako taldean. Taldeko neska bakarra nintzen eta lotsa handia ematen zidan mutilen talde batean jokatzen hasteak. Nire lehengusua hor egoteak lasaitasun puntu bat eman zidan eta familiakoen artean animatu ninduten. Lehenengo momentutik taldekideen harrera paregabea izan zen eta taldean bertze bat izan nintzen. **Beraz, Elizondon bertan hasteko aukera izan zenuen...**

Bai, lehenbiziko bortsu urteak Elizondon jokatu nituen. Lehen-

biziko hirurak eskolako taldean eta bertze biak Baztango taldean. Jokalari zein entrenatzaile guztiak paregabe portatu ziren nirekin...

**Geroztik, non ibili zara?**

Ez naiz arras geldirik egon (irri artean). Baztanen bukatu eta 13-14 urterekin Iruneko Mariño taldera joan nintzen. Ametsetak bortsu urte pasa nituen bertan eta Realean teknifika-

tzeko eta Euskal Selekzioan jokatzeo aukera izan nuen hiruzpalau urtez. Batxilergoa bukatu eta AEBra joan nintzen nire ikasketak eta kirol ibilbidea jarraitzeko. Springfield-en lau urte pasa nituen ikasten eta futbolean jokatzen eta lehenengo urteko maiatzean bueltatu nintzen. Geroztik, Iruñean lan egiten dut eta Osasunan jokatzen dut.



«Konfiantzaz eta gogotsu» bueltatu da zelaira Uxo Bertiz. UTZITAKO ARGAZKIA

**«FUTBOLAREN ALDE POLITENA EMATEN DITUEN LAGUNAK DIRA»**

**«EMAKUMEOK BIDE LUZEA DUGU BAINA LEHEN PAUSOAK ONGI EMAN DIRA»**

**Informatika ingeniari izan ikasketak egin dituzu Missourin (AEBn)... Futbol ibilbidean eragina izan zuen aldaketa horrek?**

Aldaketa guztiak eragina izaten dute baina, egia da, bakoitzaren erantzukizunak ere baduela eragina. Erronka pertsonal bezala hartu nuen eta argi nuen karrera aterako nuela futbol maila ahalik eta gutxien jautsiz. Inflexio-puntu bat izan zen nire bizitzan eta atzenduko ez dudan esperientzia izan da.

**Ikasketek bideratu dute futbola edo futbolak ikasketak?**

Beti pentsatu izan da bat edo bertze aukeratu behar dela eta ez da egia. Ikasketek beti izan dute pisu gehiago nire bizitzan baina bien arteko balantza bilatzea da gauzarik garrantzitsua. Bizitza ez da beltza edo zuria...

**Lehen ikasketekin batera eta orain lanarekin... Futbola beti presente. Zein da biak uztartzeko sekretua?**

Antolakuntza da garrantzitsua, baita zure lehentasunak zein diren argi edukitzea ere. Egia erran, ni arras ongi moldatu izan naiz beti. Errutina finko bat jarraitu izan dut. Buruarentzat primeran etortzen zait lanean eta futbolean batera ibiltzea. Batak bertzeaz deskonektatzen laguntzen dit eta balantza perfektua sortzen dute nire bizitzan.

**Etxealdian nola egin dituzue entrenamenduak?**

Inork ez zekien zenbat denbora egonen ginen etxean sarturik, beraz taldekoei zaila egiten zitzaien planifikazio konkretu bat bidaltzea. Ariketak eta errutinak bidali dizkigute baina gu antolatu gara.

**Zer aldaketa sumatu duzu taldean entrenatetik etxean aritzera?**

Niri futbola aunitz gustatzen zait, baina futbolaren alde politena, edozein talde kirolena bezala, ematen dizkizun lagunak dira. Bakarrik aritzea hotsagoa da eta progresioa neur-tzea zailagoa izaten da.

**Entrenatu eta zelaira ezin atera. Nola bizi izan duzu egoera hori? Normaltasunez bizi izan dut. Mundu guztiarentzat egoera**

atipiko bat izan da eta gure osasuna eta gure ingurukoena zen nire lehentasuna. Futbola bigarren mailan utzi nuen, lehenago eta geroago bueltatuko da.

### Denboraldia bertan beheiti gelditu artean, zer egoera bizi zuen taldeak?

Ia taldekide gehienok kategoria aldaketa izan genuen. Hori horrela, hasieran erritmo eta fisiko aldetik taldeak dezente sufritu zuela erranen nuke. Kategoriako talde gaztetxoena ginen eta bertze taldeetan urte aunitzetako esperientzia duten jokalariek zeuden. Erraten den bezala, esperientzia gradu bat da. Dena den, buelta ematea lortu genuen eta zazpigarrenak gelditu gara, seigarren postutik puntu bakar batera.

### Berriz ere entrenatzen hasiak zarete...

Hilabete bukaerara arte entrenatzen segituko dugu aitzineko denboraldiaixteko. Uztailean hiru astez oporrak ematen dizkigute eta ondotik aurre-denboraldia hasiko dugu.

### Aurre-denboraldia lehen taldean egiten duzu. Espero zenuen?

Inolaz ere! Izugarrizko poza eman didan berria izan da eta pribilegiatua sentitzen naiz. Gozatzeko eta ikasteko erabiliko dut.

### Nola ikusten duzu zeure burua?

Konfiantzarekin eta gauzak ongi egiteko gogoz nago. Aldaketa aunitzeko urtea izan da eta orain egonkortasuna izateak lagunduko didala uste dut.

### Zein da zure erronka?



Denboraldi-aurrea Osasunaren lehen taldean jokatzeko aukera izateagatik «pribilegiatu» sentitzen da Bertiz. UTZITAKOIA

Ez dut erronkarik. Gozaten dudana bitartean gauzak ongi egiten ari naizen seinale izan da.

### Zer egoera bizi dute emakumezko futbolariak?

Azken urte hauetan aitzinera pauso izugarriak gertatu dira. Duela gutti pentsaezina zen emakumezkoen futbol partida bat telebistan ikustea edo haur ttikiak emakume bat errefer-

rentzia gisa izatea. Gaur egun, hori badugu eta pozez betetzen nau. Bide luzea dugu aitzinetik baina lehen pausoak emanak daude, eta ongi gainera!

### Etorkizuna nola ikusten duzu?

Joan den urtean, 2019an, iraultza bizi izan genuela uste dut. Lan-hitzarmena, San Mamesko errekorra, Erreginaren Kopa... hilabete gutxitan bul-tzada haundia lortu dela uste dut eta kirol munduan dugun lekua aldarrikatzea lortu dugu. Uste dut gizartearen izaera aldatzen ari dela eta hori guztia horren isla da. Etorkizun polita aurreikusten dut, ezin ditugu egun batetik bertzerara aldaketa erraldoiak eskatu baina hau da jarraitu beharreko bidea.

## Motzean

**Zer eman dizu futbolak?** Dena. Baloreak, izaera, lagun minak eta bizipen ahaztezinak.

**Eta kendu?** Deus, futbolarekin zorretan egonen naiz beti.

**Futbolari bat?** Tobin Heath.

**Baduzu maniarik?** Partida egunetako errutina.

**Futbola ez den kirolik?** Zaila egiten zait bat aukeratzea baina, txirindularitza erranen nuke.

**Kirola ez den zaletasunen bat?** Bidaiatzea, bertsoak aditza eta konpainia onean kafe bat hartzea ere gustuko dut.

Oharriz Auzoa z/g · LEKAROZ  
T. 948 452 143 · 948 452 449  
info@harrilan.com www.harrilan.com

**HARRI LAN, S.L.**  
ESTRATEGIA, PROYECTO Y OBRA

EDOZEIN HARRI MOTAREKIN  
LAN GUZTIAK EGITEN DITUGU

BAITA HORMIGOI INPRIMATUA ERE

**CARLOS GARAIKOETXEA ETXENIKE**  
abokatua

Dibortzioak, herentziak,  
alokairuak, alkoholemiak...

T. 948 581 468 | M. 630 354 818  
Santiago, 59 2C ELIZONDO

**MARMOLES SOULE**

LAPIDAK  
PANTEONAK  
KANPOSANTUAK  
HARRI LANAK  
ESKULTURAK

www.marmolessoule.com

ARIZKUN | M. 688 605 182 | T. 948 453 444 | marmolessoule@gmail.com

# 'Insurgenzia' dokumentala ikusgai Elizondon

Segurtasun neurri guztiak betez, Baztango gaztetxean eskainiko dute dokumentala ekainaren 26an, 18:00etan

## TTIPI-TTAPA

Baztango Gazte Asanbladak antolatuta, Virginia Senosiain eta Juan Luis Napalen «errespresioaren kontrako» *Insurgenzia* dokumentala eskainiko dute ortziralean, ekainaren 26an, Elizondon. Baztango gaztetxean dute hitzordua,

arratsaldean, 18:00etan. Sarrera doan izanen da eta ondok eztabaidatzeko tartea hartuko dute. Bertarazten direnek kamiseta erosteko aukera izanen dute. Antolatzaileek segurtasun neurriak bermatuko dituztela iragarri dute.

## Larunbatean eginen dute BRTkoek zozketa


Baztan errugbi taldeak, pandemiaren ondorioz gaupasarik ez ospatzeak eragindako kalteei aitzin egiteko, zozketa eder bat antolatu zuen apiril hondarrean. Dagoeneko azken txartelak saltzen ari dira [www.brtmenditarrak.eus](http://www.brtmenditarrak.eus) webgurenean bidez (bortz eurotan) eta ekainaren 27an, heldu den larunbatean, eginen dute zozketa. Zenbaki saritua duenak Kubara bi lagunendako bidaia edo Biok Bat tailerreko tresnak izanen ditu aukeran. Bide batez, bazkide edo babesle egiteko gonbidapena zabalik dute.

## Tokiko ekonomia sustatzeko Piztu! bonuak eskuragarri

Arras Baztan fundazioak toki-ekonomia pizten laguntzeko 10.000 euro bideratuko ditu. Herritarrek 15 euroko balioa duten bonuak eskuratu ahalko dituzte. 10 euro herritarrek paratuko ditu eta 5 Arras Baztan fundazioak. Bonuak Elizondoko plazako informazio bulegoan eskuratzen ahalko dituzte herritarrek ekainaren 21a bitarte eta hartzeko tenorean non gastatu nahi duten hautatu beharko dute. Bulegoa zabalik egonen da astelehene-tik igandera, 10:00etatik 15:00etara.

## Kontribuzioa ordaintzeko epeak malgutu ditu Baztango Udalak

Lehendabiziko seihilekoari dagokion hiri- eta landa-kontribuzioa bidaltzen hasia da udala. Aurten, koronabirusak eragindako ezohiko egoera dela eta, ordainketa epeak malgutu ditu eta zatikatzeak baimendu ditu. Horrela bada, zergak borondatez ordaintzeko epea abenduaren 31ra luzatu dute. Zatikapena eskatu nahi dutenek udaletxera jo behar dute. Helbideratuei zutailaren 3an kargatuko zaiela iragarri dute.



UTZITAKOAK

## Herriko besten seinalea egin dute Iruritan

Covid-19aren ondorioz bestak bertan behera utzi zituzten iruritarrek. Dena den, herritarrek beste keinu egin zieten. Argazkiak bilduz bideo bat egin dute eta Peiori DJ lanak egiteagatik, Garate anaiei ezkilak jotzeagatik eta musikari eta dantzari herria alaitzeagatik eskerrak eman dizkiete.

**BRIKO BAZTAN, SL**

Bainuontziaren lekuan dutxaontzia jartzea

Pinturak  
Fatxadak  
Pladurra

Egur lakadura eta bernizadura  
Birgaitzeak eta obra berriak  
Lur-mugimenduak

T. 608 016 052  
San Andres, 66 · NARBATE  
(Sarrera Legasatik)

**asegi asesorías**

Zergalan

- Kontabilitate zerbitzuak
- Zerbitzu fiskalak
- Lan-aholkularitza
- Aholkularitza juridikoa
- Herentzia eta Testamentuak
- Laneko Arriskuaren Prebentziorako Zerbitzua
- Datuen babesa
- Mugaz bertze aldeko aitortpenen kudeaketa (langileak eta enpresak)

[www.zergalan.es](http://www.zergalan.es) | [zergalan@asegi.es](mailto:zergalan@asegi.es)  
[www.asegi.com](http://www.asegi.com)

Baztanberri plaza, 6 31700 ELIZONDO T. 948 581 300 · F. 948 580 648

Eztegara pasealekua, 22-1 31780 BERA T. 948 631 108

Eliza Kalea, 22 31740 DONEZTEBE T. 948 450 395 · F. 948 451 304





Selektibitate betean dago Alba Azkarraga (ezkerrean). Heldu den urtean erizaintza ikasketak egin nahiko lituzke.

## «Selektibitatea kentzea baino nahiago izan dut gibelatzea, egunotan aunitz dugu jokoan»

### ALBA AZKARRAGA GOÑI

IRURITAKO GAZTEA

Ez zaió nahi orduko ailegatu-ko aurtengo uda Alba Azkarragari (Irurita, 2002). Batxilergoko bigarren eta azken ikasturtean dago, Selektibitate bete-betean egunotan. Barneratutakoa hustu eta nota ona lortzeko lanean ari da, heldu den urtean erizaintza ikasi nahi duelako eta «sarbide-nota altua» behar duelako.

#### Ikasturte luzeagoa

«Ikasi eta ikasi» ari da Alba Azkarraga egunotan. Ikasturte hasiera «gogotsu» hartu zuen, «lan egiteko gogoz» ekin zion. Baina, kontatu digunez, «ikasturteak aitzinera egin ahal gogoa desagertu eta udaren esperoan» zegoen. Hurbiltzen ari zela zirudien arren, ikastur-

tea ez du nahi orduko akitu, «pixka bat luzatu zaigu» dio umoretsu.

#### Telelana

Gustura aritu da telelanean, «denbora eta lana ongi kudeatzeaz gain, ordenagailua erabiltzeko ohitura ere badudalako».

Azterketak egiteko momentuetan sortzen den «presiorik ez» izatea izan da sumatu duen abantaila nagusia. Dena, ordea,

## «GUZTIEK EZ DUTE ERREPASO SAIÓETARA ETORTZERIK IZAN»

ez da hain polita izan eta «ikasgai batzuetan ez dugu landu beharreko guztia lantzerik izan».

Horrez gain, ulermena ere zaildu dio, eta bereziki «kimi-kako azken gaia ulertzea zaila» izan zaiola kontatu digu.

Lagunak ikusi gabe «hiru hilabete» pasatzea ere ez da erraza izan iruritar gaztearendako. Beraz, gazitik eta gozotik edan du konfinamenduan: «alde batetik gogorra izan da ikasle eta irakasleak ikustera ohituak geundelako eta ikasteko martxa hartua genuelako. Eta bertetik, errazagoa izan da arnasa hartzeko tartea izan dugulako».

Ikaskideak ikusi eta prestakuntza jasotzeko, ekainean

## «TELELANEAN ARNASA HARTZEKO TARTEA IZAN DUGU»

izan zituzten errepasso-saióetara joan zen Azkarraga: «mas-kara jantzi, xaboiarekin eskuak garbitu eta gela bakoitzean zazpi lagun egoten ginen...». Arau guztiak errespetatu, «seguru» sentitu da iruritarra.

Berak aukera duen arren, bertze batzuen kasua ikusirik, egoera izan den bezalakoa ez balitz, errepasso eskola horietara ikasle gehiago joanen liratekeela iruditzen zaió: «eskoletatik gertu bizi ez diren ikasleek joan-etorria egiteko autobusa izanen luketelako. Gobernuaren ardura da guzkiei ikasteko aukera bermatzea eta autobusik izan ez dutenez, ikasle batzuek ez zuten etortzerik izan».

#### Selektibitatea

Selektibitateko azken egunetan dabil orain, urduri, «aunitz dugulako jokoan». Bere kasuan, gainera, erizaintza ikasi nahi duenez, gaintzearekin aski ez eta nota behar du. Zentzu horretan, «selektibitatea kentzea baino aukera hobea» iruditzi zaió gibelatzea.

Ortziralean, ekainaren 26an, guztia atzentzeko aukera izanen du eta hortxe hasiko da uda, «selektibitateko azken azterketa egin ondotik!».

Mantsoxeago hasiko duen arren, gozatzeko modua harapatuko du: «bestarik ez dagoen arren, lagunekin denbora pasatuz gozatu ahal izanen dut». Eta, «ahal bada» gozamina eta lana uztartu nahi lituzke.

## Piriniotar arrazako behien lehiaketa-enkanterik ez da izanen aurten

### TTIPI-TTAPA

Irailaren 19an eta 20an egitekoa zuten Piriniotar arrazako behien lehiaketa-enkanterik ez da izanen aurten Elizondón. Udalak, Cederna-Garalurreko tekinariak eta Aspinak «arauak betetzeko segurtasunik ez dela» ikusirik hartu zuten erabakia.



Irailako feria bertan beheiti utzi dute.

## Urteotako argazkiak bilduz bideotxo bat egin du Valledebazan.com atariak

### TTIPI-TTAPA

Urteotan Baztango txokoetan ateratako argazki batzuk bilduz bideotxo bat egin du *Valledebazan.com* atariak eta ibilbide horretan «ederrena» herritarrak ezagutzea izan dela adierazi du: «joan direnei eta gurekin daudenei» eskerrak eman dizkie.



Herritarrei esker ona adierazi diete.

# 'Bertatik Bertara' kanpainarekin bat egin du Udalak


UEMAren helburua bisitariei udalerrri euskaldunak zer-nolako altxorra diren erakustea izanen da

## TTIPI-TTAPA

Covid-19ak eragindako osasun larrialdiaren ondorioz, aldaketa handia izanen du batetik bertara bidaiatzeko eta atsedeen egunak antolatzeko moduak. Beraz, inoiz baino gehiago, gure bazterrak bertatik bertara ezagutzeko aukera izanen dugu hurrengo hila-beteotan. Horregatik, Udalak eta hainbat eragilek bat egin dute Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatearen (UEMA) Bertatik Bertara kanpainarekin, herritarrei eta bisitariei erakusteko udalerrri euskaldunak zer-nolako altxorak diren, bertatik bertara zenbat goza daitekeen nabarmenduz, bertako produktuekin, bertako kulturarekin eta bertako ekonomian oinarritutako garapenerari helduta. Beti ere udalerrri euskaldunen nortasuna eko-

kien islatzen duena euskara dela atzendu gabe. Gure inguruan, Baztango Udalak ez ezik, Arantza, Bera, Etxalar, Goizueta, Igantzi eta Lesako udalek ere bat egin dute kanpainarekin.

«Gure bazterrak ezagutzera eta maitatzera gonbidatzen zaitugu, eta horrekin batera, baita horren bertakoa den eta horren bizirik dagoen hizkuntzaz gozatzera ere» dio denda, jatetxe, ostatu eta zerbitzu sektorerako kanpainaren honetarako prestatatutako karteletan eta mahai-gainekoetan ageri den testuak. Zehazki, horiek izango dira lehenbiziko hilabete hauetan kanpainaren erakusleho nabarmenenak. Kanpainaren lehen euskarriak udako lehen hila-beteetarako aurreikusitakoak eta prestatu ditu UEMAK.



UTZITAKO ARGAZKIA

## Jauregiako makina martxan Elizondon

Bertze herritar, enpresa eta komertzio gehienak bezala, Anizko Jauregia Esnekiak, pixkanaka, normaltasunera bueltatzen hasia da. Ekainaren 22an, bertze pauso bat eman du, Elizondon duen esne makina irekiz. Elizondoar eta ingurukoek, berriz ere, esku-ira izanen dituzte esneki guztiak.

## ESKUTITZA

BAZTANDARRA TXIRRINDULARI ELKARTEA

### Txuma Eugui (Baztandarra Txirrindulari Taldearen sortzailea)

Gustatu izanen litzaziguke ekainaren 11n zure urtebetetzeagatik pertsonalki zoriondu ahal izatea, baina patuak hori ezinezko egin du. Horrela desagertu behar izan duzu, hain bat-batean, gu gogoeta egiten gelditze-ko eta zugar errealitate bilakatu den esaldiaren inguruan hausnartzeko: «Ez dadila zure presentzia nabaritu, baizik eta zure falta».

Kirol arloa baino aunitzez gauza gehiago daude zure bizitzan, errate baterako, adinekoen egoitza bisitatzeko zure gizarte-lana, baina Baztandarra Txirrindulari Taldeko sortzaile gisa, honetara mugatuko gara. Zure lehiaketa-aldia amaitu ondoren, lehiatzeko irrikak zeuden gazte baztandarren hurrengo belaunaldia hartu zenuen, eta zure jakintza eta kirol honekiko maitasuna erakutsi zenien. Beti garbi lehiatzeko zure mentalitatearekin, inolako tranparik gabe. Eta, batez ere, eraso bati bertze eraso batekin erantzuteko muturreko lehiarekin, hilda egonda ere, bertzeak amore ematea lortu arte. Eta hor dago Baztandarra Txirrindulari Taldea... zure obra!! Zu izan zinen artisaua, eta bertze batzuk zurekin egon arren, zu tematu zinen horretan, eta beti "tropeletik" tira egin zenuen. Kluba arrakasta handiz loratu zen, zure poztasunerako, baina ahuldu zenean... zuk hondakinak bildu eta gorde egin zenituen, mimoz zainduz, harik eta duela gutxi desira zenuen erreleboa ailegatu zen arte.

Garaiz ospatu ahal izan genuen aurten aurkezpen polit bat, merezitako omenaldia barne, non ongi aski baitakigu aunitz gozatu zenuela, bai ekitaldiaz (luxuzko gonbidatuarekin, harekin denboraldi on batean hitz egiteko gustua izan zenuelako), bai Kluba berrituz loratzen eta esku onetan ikusita, eta baita promesa gazte ugari ikusterakoan ere.

Baina bat-batean... badirudi zure obraren jarraipena ziurtatua ikustean pentsatu zenuela dagoeneko lasai erretiratu zintezkeela, eta... bat-batean alde egin diguzula, abisatu gabe eta zaratarik egin gabe, zuri gustatzen zitzaizun bezala.

Baina ziurtatzen dizugu zure CCBTTk pauso txikiak ematen jarraituko duela. Eta zuk irakatsi diguzun ilusio, grina, iraunkortasun eta zuhurtasun berarekin lan egingen dugula ziurtatzen dizugu.

Espero dugu gure lanean islatuta ikustea eta kluba sortzeko eta mantentzeko erabili zenituen baloreak (adiskidetasuna, errespetua, gaitzitatea...) transmititu ahal izatea.

Eman diguzun guztiagatik... ESKER MILA!!!



## Ura edateko etxeko iturria irekitzea ez zen aski izaten

Iturriak, akueduktua edo arropa garbitzeko eta aziendendako askak dira hain aspaldikoa ez den errealitate horren lekuko

### MARIFA ETA KORO

Guretzat hain arrunta den etxeko iturritik ura ateratzea, ez da beti hala izan, eta segur aski gure familiako adinduei galdetuz, beraiek ura lortzeko egin behar zituzten lanak eza-gutuko genituzke.

Garai hartako seinale bat Basaburua karrikan dugu, Guantzeko pareko Mukurusta iturria. Bertan grabatuta dago 1869 urtean eraiki zela. Badakigu kanposantuko gibe-ko aldeko errekatik hartzen zela ura, eta hortik Goiburuko depositu zaharrerat igaten zela, harrizko akueduktu bat baliatuz.

Duela guti arte, urarekin zerikusia zuten bertze egitura batzuk ere bazeuden herrian: arropa garbitzeko askak (kendu ziren azkenekoak Narkonea, Domitenea eta Martinekoak



Mukurusta iturria eta depositoa.

izan ziren), eta baita aziendek edateko aska luzeak (hauetako bi oraindik kontserbatzen ditugu, Basaburua eta Beheitiko karrikan).

Gure historia gorde nahi badugu, halakoak ezagutzea (eta baloratzea) beharrezkoa da.



MARIFA ETA KORO

## Baztango AEK-koek ikasturte bukaera

Elizondoko AEKn ikasten ari den taldetxo bat, beraien despedida-klasea emateko Zugarramurdira etorri zen. Hortxe ditugu Ansalas ostatuko terrazan. Egunerokotasunera itzultzen ari gara poliki-poliki. Horren seinale dira plazako bi ostatutan tragoa hartzen ahal dugula eta bentak ere hasiak dira irekitzen.

## Pentekoste egun berezia ezin izan dute ospatu Dantxarinean eta Ainhoan

### ARANTXA ETA IRAIA

Usaia da gure herrian Pentekoste egunean ondoan dagoen Ainhoa herriarekin bat egin eta bi herrietako biztanleak elkarrekin Ainhoako kaperarat igatea. Aurten, ezin izan da usaia hori bete. Gerrak itxi ezin izan zuen muga pandemiak itxi du lehen aldiz eta bi herrietako auzokideak ezin izan dira elkartu urteroko zita berezi horretan.

Ezagunak dira ere egun horretan egiten diren Dantxarineko bestak. Azken urte hauetan indarra hartzen joan den egun berezia aurten isilean gelditu da. Dantxarinean herri-kirolez eta euskal dantzez gozatu ondoren, Ainhoarat joaten ziren bi herritako bizi-lagunek aurten etxean geratu behar izan dute. Mugaren inposatze hau inoiz baino



Pentekoste ez dute ospatu aurten.

gehiago nabaritu dute urda-zubiar zein ainhoarrek.

### Azaroan eroritako argiaren posteak berrituak

Azaroan izan ziren eurite eta haizeteek hainbat kalte eragin zituzten herrian zuhaitz anitz erori baitziren. Argindarraren kableak dituzten bi poste ere erori ziren. Hala, hainbat hila-betetan lanean ibili ondoren, poste hauek konpondu dituzte, berriak ezarri.

**Giltzak eta aginteak**  
**AUTOA - MOTOA - KAMIOIA**  
 Giltzak galdu badituzu, guk lagunduko dizugu

**IBARGOYEN**  
 SUMINISTROS CARROCEROS

**www.ibargoyen.net** 943 616 587  
 Molino Errepidea, 21 - 20305 - IRUN



Ezkerretik: Ludo Estebeteguy, Alaia Berhonde eta Charlotte Maingé. UTZITAKOIA

## Jour de Fête antzerki taldeak erakustaldi bat sortu nahi luke

Astebete iragan dute Larraldean, gerorako egitasmoaren ontzeko. Hazil hondarrerako erakustaldia egin nahi dute

### PIERRE BASTRES

Baionako antzerki elkarteak da Jour de Fête (Besta Eguna), bainan usaia dute bertze lekutan elkarretaratzea, xede berriak sortzen hasteko. Honetakoan Senpereko Larraldea hautatu dute, Andoni Iturrioz etxeko jaunarekin harremanetan zirela aitzinetik ere.

Alaia Berhonde (Baiona, 1984) elkarteko sortzaileetako bat da, antzerki mundurat jina ibilbide itzulikatsu baten ondorenik. «Tolosan zinemarako teknikaria bilakatzeko ikasketak burutu ondorenik, Bartzelonan bizitzerat izan naiz. Gero Tolosarat itzuli naiz, soziologia eta antropologia ikasketari lotzeko. Azkenean Eskual Herriratu naiz, eta zango bat eman dut bertako kultur munduan, ekoizpenean bereziki. Lanbide hau maite dut han-

diki: ez da bakarrik logistikaz eta dirulaguntzez arduratzea, baizik eta egiazko harremanen eraikitzea eta iraunaraztea bertze elkarte eta erakundekin» zehaztu du Baionako neskek. «Beraz, garai hartan, aspaldiko Baionako lagunak janeko aritzen ziren artista gisan. Suharki elgar akuilatzen genuen maiz, antzerki tropa behar genuela sortu, eta honetarik bizi. Azkenean menturatu gara eta erdietsi dugu, Jour de Fête sortuz, 2015 hain zuzen. Eta engoitik, ez gara gelditu. Lau sortzailetarik hiru gara jarraitzen dugunak: Ludo Estebeteguy, Charlotte Maingé-rekin eta hirurok». Horrek ez du tratatzen bertze erakunde edo erakustaldietan parte hartzea, «zeren eta batzuetan bertze artistekin aritzen gara, gure elkartetik kanpo, edo

alderantziz bertze artistak gurekin aritzen dira Jour de Fêtekin».

### Ingurumenari egokitzuz,

kanpoko antzerkia lehenetsiz Gainerateko berezitasuna daukate hirurek: kanpoko antzerkia lehenesten dute, izan dadin gune zabal-zabaletan edo hirietan. Berhonden erranetan «antzerkia herrikoia izan dadin lan egiten dugu. Jendearekin hurbiltzen gatazka. Adibidez, gure lehenbiziko erakustaldia alegiazko Baiona hiriarren bisita bat zen, jende ainitzek ez zekiten alegiazkoa zela. Honenbertzez, kanpoalde izigarri garrantzitsua zaigu, galdera batez hasten gara erakustaldi baten sortzen: zer nolako tokitan iragan daiteke? Eta ingurumenari egokitzen gaitzaikio».

### Hazil hondarrerako egin nahi dute

Preseski, hortarako Senperen bildu dira hirurak, Sebastien Desgrand Uztaritzeko musikariarekin batera, musika sartzen dutela erakustaldi gehienetan.

Gaia karriketako jendeak izanena da, eta adin guzietako behatzaileentzat. Hortaz gainerat, ez da deusik finkatua denik, asmatzekoa dute. Gaia-ri lotutako komiki eta liburu zombait irakurrita hasten zaie sortzeko bidea: «jantzi, gauzaki ainitz ekarri ditugu hunat, Larralderat.

Entseguak eginez lan egiten dugu, eta hola agertzen da erakustaldiaren bizkar hezurra, urratsez urrats, aitzin-gibelkaganez. Hala nola, jantziak entseatsen ditugu usaiaz kanpoko tokietan, mendian... eta sortzen diren emozio edo irudipenen arabera hautatzen dugu jantzi mota edo tokia. Berdin soinuarekin: toki batean, izan dadin eremu zabaletan edo hertsian, behatzen dugu nola ateratzen diren ahotsak eta musika».

Hazil hondarrerako erakustaldia nahi lukete burutu.

## Iparaldeko Bertsolari Gazteen Txapelketa uztailean

### TTIPI-TTAPA

Bertsolari eta bertsozaleak Larraldean bilduko dira uztailearen 4an eta 11n, lehendabiziko bi larunbatetan. Izan ere, Iparaldeko Bertsolari Gazteen Txapelketa uztailean egiteko asmoa dute.

### Finala uztailearen 11n

Hilaren 4an izanen da lehendabiziko kanporaketa, 10:00etan eta finalerdia eta finala uztailearen 11n izanen dira. Bertsolari andana bilduko da, eta horien artean izanen dira Haira Aizpurua eta Laida Etxeberri saratarrak eta Onintza eta Garikoitz Agirre.

### Parte-hartzaileak

Lerro hauek idazterakoan parte-hartzaileen behin-betiko zerrenda adostekoa zuten arren, honakoak ziren aurreikusiak zituztenak:

- Josu Txoperena Iribarren
- Naia Etcheverry-Larçabal
- Garikoitz Agirre Soto
- Ellande Larrondo Apendisteguy
- Oihan Perez Harispe
- Itzal Aranzabal Adin
- Lore Salaberria-Larre
- Aertz Etxart Sarasola
- Haize Blanco Lekuona
- Irati Aizpurua Ubeda
- Irantzu Idoate Funosas
- Haira Aizpurua Ibargarai
- Laida Etxeberri Pacheco
- Daia Harlouchet Barreto
- Mae Lascaray Barreto
- Asier Arbelaitz Tolosa
- Unai Harlouchet Barreyo
- Oneka Arteaga Olasagasti
- Ximun Sansonetti
- Ibai Lekuona Darceles
- Luken Aramburu
- Onintza Agirre Soto
- Aiantze Lannes-Butron
- Loreila Ithursarry
- Xanti Lacroix Etcheverria
- Meli Etcheverri-Larçabal.

## Axuanten ardurak banatu ditu kontseiluak

Euskal Hirigune Elkargoan Baitit Laborde auzapezak eta Maritxu Arizkorreta bigarren axuantak parte hartuko dute

### GANEX

Maiatz hondarrean osatu zuten kontseilua eta iragan ekainaren 5ean bildu zen lehen aldikoz kontseilu izendatu berria. Alde batetik, Euskal Hirigune Elkargoan Sarako ordezkariak zein izanen diren erabaki zuten eta horren arabera, Zergatik Ez taldeko Baitit Laborde auzapeza eta Maritxu Arizkorreta axuanta izanen dira parte hartuko dutenak.

Bertzetik, sei axuanten karguak ere banatu zituzten, guztiak Zergatik Ez taldekoak. Stéphane Barneix lehen axuanta herri lanez eta hirigintzaz arduratuko da. Bigarren axuanta Maritxu Arizkorreta izanen da eta herriko ikastetxeekin zerikusia duten gaien ardura bere gain izanen du. Jean Michel Jauregi, hirugarren axuanta, diruzaina izanen da

eta berak eramanen ditu herriko etxeko eskuarteoak. Laugarren axuanta, Sophie Garbisu, gizarte gaietaz eta komunikazioaz arduratuko da. Patxi Jauregi bosgarren axuanta izanen da eta kultura, euskara, kirolak eta elkarteak izanen ditu bere gain. Seigarren axuanta, azkenik, Carmen Errandonea da eta laborantzaz, ekologiaz eta ingurumenaz arduratuko da.

### Oposizioa komisio guztietan ariko da

Axuanten karguak udal ordezkari guztien artean bozkatuak izan ziren, erran nahi baita, Zergatik Ez eta Har Hitzza taldeak akort zirela. Har Hitzako hiru ordezkariak, beraiek eskatuta eta bertzeek hala onartuta, komisio guztietan parte hartuko dute.



ARTXIBOKOA

## Lezeak asteburuan irekiko dituzte

Covid-19a tarteko, hainbat neurri hartuta, astelehenean, ekainak 29, irekiko dituzte lezeak eta buruilaren 30era arte hala izanen dira. Sarrerak online salduko dituzte eta maskara janztea baitezpadakoa izanen da. Bisitari kopurua mugatuko dute eta metro bateko tartea mantendu beharko da.

## «Iparraldean bertsoa ez da Hegoaldean bezainbat segitua»

LAIDA ETXEBERRI PACHECO SARAKO BERTSOLARIA

### N. BAZTERRIKA

Pala, euskal dantzak, errugbia eta bertsoak zaletasun dituen 16 urteko saratarra da Laida Etxeberri Pacheco (Sara, 2003). Zortzi bat urte zituelarik eman zuen bertso eskolan izena, «ahizpak ikastolan egiten zuen eta nik ere nahi nuen...». Ahizpak eman zion gogoia, eta halaxe eman zuen pausoa. Hasi bazen hasi, «orain beti bertsoan aritzen naiz».

Normalki, Baionako Lizeoan elkartzen da bertso eskola baina, ezohiko egoeran, etxetik, konferentzia bidez, aritu dira. Etxeberri ez du saio horiek jasotzerik izan, «etxean Wifirik eta horrelako konexiorik ez dugulako». Bere aldetik, «pixka bat» landu duela aitortu arren, «bertze okupazioak nituen eta ez naiz usaian bezain bertze aritu» argitu du. Etxetik «biziki zaila» egin zaio lantzea, «irakaslerik ez dugulako eta bertze bertsolarien maila zertan den ikusten ez dugulako».

Aurten uztailean izanen den Iparraldeko Bertsolari Gazteen Txapelketan eta irailean, Bertsozale Elkarteak antolatu ohi duen Iparraldeko Bertsolari Txapelketan ariko da saratar gaztea. Berarentzat ez da kontu ezezaguna, «orain bi urte parte hartu nuen» eta joan den urtean «ez nintzen izan Herri Haitada izan zelako». Ongi oroitzen du zer sentitu zuen taula gainean: «beldurra». Jende aitzinean «egiazki zaila gertatzen da gure maila erakustea». Beldur hori, ordea, «denborarekin usatuz, plazera» bihurtzen da eta «hori da inporta duena».

Bertsotan hastean «bertsoa egitera» bideratzen du indarra, baina «plazetan eta txapelke-



Laida Etxeberri.

tetan presioa ez da bera». Izan ere, «plazan ez dugu norbait gibelatik puntuak kontatzen ari delako beldurra, eta irri eginarazteko askatasun handiagoa dugu...».

Bertsoa «maitatuz gero eta zinez gustukoa izanez gero, plazetan erakutsi» behar dela uste du Etxeberri. Iparraldean bereziki garrantzitsua ikusten du pauso hori. Izan ere, «Iparraldean bertsolaritza ez da Hegoaldean bezainbat segitua». Dena den, ahalegina egingen dute: «Xilaba egin genuen eta bikain pasatu genuen...». Giro «bikaina» izan zuten arren, «gero ohartzen gara ez dela Hegoaldean bezalakoa...». Hori aldatzeko gogoia dutela ere aitortu du: «badugu gogoia bertsozaleatasunak segitzeko».

Bertsolari batzuetan, gaitzaitzaile bertzeetan. Herriko bestetan «bertsolari handiak» izaten dituztenean gaia ematen aritzen da Etxeberri. Aurten, bestarik ez denez izanen, ez dute saiorik izanen eta «penagarria» bada ere ongi pasatzeko «bertze modu batzuk» atzemanen dituztela gaineratu du.



Jon Rekondo leitzarrak larunbatean izanen du finalerdietarako txartela jokoan. RAKEL RICO

## Urrezko Banakako Aizkolari Txapelketa larunbatean abian

Jon Rekondo eta Iñaki Azurmendiren arteko lehia irabazten duenak Iker Vicente izanen du esperoan finalerdietan

### TTIPI-TTAPA

Ekainaren 27an abiatuko da XXIII. Urrezko Banakako Aizkolari Txapelketa. Dauden osasun arazoak direla eta,

ekainean, uztailean eta abuztuan egingen dute aurtengo edizioa eta bederatzi aizkolarik hartuko dute parte: Iker Vicente, Mikel Larrañaga,

Julen Alberdi *Txikia IV.a*, Jon Rekondo, Ugaitz Mugertza II.a, Eneko Otaño, Ruben Saralegi, Iñaki Azurmendi eta Jexux Mari Mujika.

Final-laurdenetan, finalerdietan eta finalean jokatuko da. Finalerdietako fasean, 2019ko XXII. edizioeko lehen hiru sailkatuak sartuko dira zuzenean. Hauek dira: Iker Vicente, Mikel Larrañaga eta Julen Alberdi *Txikia IV.a*, final-laurdenetako irabazleen aurka lehiatuko direnak, zozketaren aurreko hurrenkerari jarraituz.

Honela, ekainaren 27an Jon Rekondo leitzarra eta Iñaki Azurmendi ariko dira aurrez aurre nor baino nor gehiago eta irabazleak Iker Vicente izanen du aurkari finalerdian. Uztailearen 4an, Ruben Saralegi eta Ugaitz Mugertza II.a lehiatuko dira eta irabazleak *Txikia IV.a* izanen du esperoan finalerdian. Uztailearen 11n, Eneko Otaño Jesus Mujikaren kontra ariko da eta irabazleak Mikel Larrañagaren kontra jokatuko du finalerdian.

Finalerdietako hiru irabazleek finala jokatuko dute abuztuaren 1 edo 2an.

### Gizonezkoek eta emakumeak harri-jasotzen

Urrezko Banakako Aizkolari Txapelketaz gain, gizonezkoek Hiru Hamarreko harri-jasotze txapelketa eta emakumezkoen harri-jasotze txapelketa ere jokatuko dituzte, baina ez da eskualdeko kirolaririk ariko. Gizonezkoetan, Xabier Peña, Mikel Lopetegi *Urra*, Imanol Albizu *Goikoetxe*, Beñat Telleria, Inhar Urruzuno eta Urdax Magunazelaia ariko dira eta emakumezkoetan, Virginia Finol eta Karmele Gisasola 63 kiloko harriekin eta Udane Ostolaza 50 kilokoekin.



UTZITAKO ARGAZKIA

### Iker Vicentek marka egin du

Kanaerdiko hamalau enbor 26 minutu eta 46 segundotan moztu zituen Iker Vicentek ekainaren 14an Iruñeko Nafarroa Arenan. Donato Larretxeak 1995eko txapelketa batean egindako marka 31 segundotan hobetu zuen eta bildutako dirua CIMA zentroari emanen dio Otsagabikoak.



UTZITAKO ARGAZKIA

### Emakume Master Cup finalak Irunen

Emakume Master Cup pilota txapelketako finalak jokatuko dituzte igandean Irunen. Pilota mistoarekin, Arrizabalaga eta Aldai, Garai eta Olatz Ruiz de Larramendiren kontra ariko dira. Pilota goxoan, Irantzu Etxebeste edo Iera Agirre finalean izanen dira, elkarren kontra jokatzea baitzuten finalerdia.

## MERKATU TTIKIA

### ETXEBIZITZAK

#### SALGAI

**Irunen** pisua salgai edo **Sunbillan** etxebizitza baten truke egiteko prest. ☎687 83 28 44.

#### ERRENTAN EMATEKO

**BERA.** Legia karrikan pisua errentan emateko: 3 logela, 2 komun, sukaldia, egongela eta ganbara. Gasoliozko berokuntza. ☎678 36 33 98 / 678 30 52 50.

**BERA.** Etxea salgai edo errentan emateko. 3.500m<sup>2</sup>ko partzelarekin. ☎616 24 35 30.

#### ERRENTAN HARTZEKO

**LEITZALDEA.** Hiru gaztek Leitzia inguruan baserria errentan hartu nahi dute. ☎630 22 39 49.

**DONEZTEBE INGURUAN.** Informeak dituen bikoteak pisu bat errentan hartu nahi du. 500 euro arte ordaintzeko prest. ☎657 65 04 43.

**LESAKA.** Familia batentzat moduko pisua errentan hartu nahi dute udarako. ☎699 04 05 08.

### ANIMALIAK

#### OPARITZEKO



**Katakumeak opari.** Etxe bila gaitza. Ama ehiztari bikaina dugu, eta gu goxoak eta jostalariak gara oso. Eramanen gaituzu zurekin ☎652 75 08 17 / 948 61 50 05.

### LANA

#### ESKARIAK

Haurrak eta adinekoak zaintzen eta etxeko lanetan esperientziadun neska langilea lan bila. ☎644 68 96 44.

Lesakako neska gazte bat udan **haurrak zaintzeko** prest. Esperientzia duena eta Lehen Hezkuntzako gradua ikasten. Auto propioa. ☎648 65 79 81.

Adinekoak zaintzen, sukaldari laguntzaile eta garbitasunean esperientziadun emakumea lan bila. ☎632 50 78 36

#### ESKAINTZAK

**BORTZIRIAK.** Aholkularitza bulego batean aritzeko langile bat behar dute. Lan-arloan aditua. Bidali curriculum: [laneskeintza31@gmail.com](mailto:laneskeintza31@gmail.com).

## IRAGARKIA JARTZEKO:



948 63 54 58



[www.erran.eus](http://www.erran.eus)



744 48 43 61



[info@ttipi.eus](mailto:info@ttipi.eus)

Sail honetan **IRAGARKIA** jartzeko **10 €** ordaindu behar da **ARGAZKIAREKIN** jarri nahi izanez gero **12 €** iragarki bakoitzeko **GEHIENEZ 25 HITZ** onartuko dira

TTPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta [ERRAN.EUS](http://ERRAN.EUS) webgunean hilabete batez agertuko da

Ordainketak Rural Kutxako **ES86 3008 0080 5607 0330 4329** kontuan

Ttipi-Ttapak ez du bere gain hartuko argitaratu diren iragarkien ondorioz sortu ahal diren operazio bidegabeen erantzukizunik

**BERA.** Pagola harategian harakina behar dute egun osoz aritzeko. ☎948 63 00 54.

### MOTORRAK

#### EROSI

50cc edo 75cc bigarren eskuko **mendiko motorra** erosi nahi dut. ☎676 96 53 94.

### DENETARIK

#### SALEROSKETAK



la-ia erabili gabeko **eguzkitakoa** edo parasola salgai. ☎948 58 02 22.

## IRAGARKIAK INTERNETEN

Sail honetako iragarkiak gure webgunean ere argitaratzen ditugu hilabete batez.

Ikusi iragarki guztiak Interneten:  
<https://erran.eus/sailkatuak>

## BASERRIA

#### BEHI-AZIENDAK

##### Aretze gizenak:

<b>Idixkoak: €/kg kanal</b>	
• Extra	4,02
• 1.koa	4,90
• 2.koa	3,75

##### Urruxak: €/kg kanal

• Extra	4,13
• 1.koa	3,99
• 2.koa	3,85

Oharra: prezioak 180-220 kg kanalean pisatzen duten aretzeenak dira

##### Aretze ttiak

• (15 egun ingurukoak).

##### Aretze mestizoak

• Urruxak	130,00
• Idixkoak	170,00

##### Aretze nabarrak

• Urruxak:	150,00
• Idixkoak	170,00

#### ZALDI-AZIENDAK

##### Zaldikoak: €/kg

- Sortu berriak: 3,26/3,36
- Zaldi-behorrak 1,87/2,04

#### ARDI-AZIENDAK

##### Bildotsak

- 6-8 kilokoak: 6,15/6,75
- 8-10 kilokoak: 4,90/5,40

#### ZERRI-AZIENDAK

**Zerrikumea** (19 kilo): 45 €

**Zerri gizona** 1,303 €

**Zerramak** 0,460€ kg/bizirik

Datu iturria: Nafarroako Gobernua (ekainaren 5etik 12ra bitarteko prezioak)



**Hiru lanpara** salgai, 110 eurotan. ☎685 76 44 00.

**SANTESTEBAN TAILERRAK**

**RENAULT MEGANE IV 1.5 dci 110 CV**  
13.950 € - 54.300 kilometro

**DACIA DUSTER 1.5 dci 110 CV 4x4**  
11.900 € - 36.800 kilometro

[www.talleressantesteban.com](http://www.talleressantesteban.com)

DONEZTEBE - T. 948 450 282 - [info@talleressantesteban.com](mailto:info@talleressantesteban.com)

**BAZTANGOZA TAILERRA**

**Citroen Berlingo**  
76.000 km - 100 CV

**Citroen Berlingo**  
Kilometro guttirikin

**Citroen Berlingo**  
4x4

**Ordoki ind. - Arizkun - BAZTAN**  
T.Fax 948 453 493 - 617 969 847  
[baztangoiza@yahoo.es](mailto:baztangoiza@yahoo.es)



744 484 361

**ttipi-ttapa**

URTEURRENA

**Alejandro  
OTXOTeko MARTIARENA**

Lesakan, 2019ko ekainaren 26an hil zen,  
85 urte zituela  
**I. urteurrena**



Argi bat itzali da hemen lurtean  
berri bat biztu da han zeru ederrean  
gure oroimenean izanen zara betiko ez  
agurrik, ez adiorik,  
gero arte baizik.

Bere aldeko meza ekainaren 28an izanen da, 11:30ean, Lesakako San Martin elizan.

ZURE EMAZTEA, SEME-ALABAK, BILOBAK ETA BIRBILOBAK

URTEURRENA

**Aitor  
DANBORIENA  
ALZUGUREN**

Etxalarren, 2016ko ekainaren 13an  
**IV. urteurrena**

Umorez eta alaitsu  
egoten ginen elkarrekin,  
eta oroitzapen ahaztezin horiek  
beti geldituko dira gurekin.



ZURE FAMILIA


URTEURRENA

**Jon  
ETXANDI KARRIKABURU**

Oronoz-Mugairin, 2019ko ekainaren 15ean  
**I. urteurrena**



Mendi kaxkoan  
irrintzia aditzen segitzen dugu.



Maite zaitugu!

ETXEKOAK

URTEURRENA

**Jesus Mari  
ARGAIN LARREGI**

Narbarten, 2016ko ekainaren 6an.  
**IV. urteurrena**

Gure gau ilunak  
argituko dituen izarra  
buruari bueltaka dabilen,  
irriaren oihartzunaren islada.  
Zu gure bihotzean beti  
altxatuko dugun Jesus Mari,  
aita eta ataxi maitea izanen zara.




ZURE FAMILIA

**ESKELAK JARTZEKO edo OROIGARRIAK EGITEKO:**  
948 63 54 58 edo [info@ttipi.eus](mailto:info@ttipi.eus)

OROIGARRIA

**Alejandro  
JUANIKOTENA HITA** †

Iruñean hil zen maiatzaren 25ean,  
74 urte zituela



Ez agurrik,  
ez adiorik,  
gero arte baizik.



ZURE FAMILIA



**BEILATOKIAK**  
ELIZONDON, BERAN ETA DONEZTEBEN

Zerbitzuak Baztanen, Bortzirietan,  
Bertizaranan eta Malerrekan

**IZARRA**  
HEMEN, ZURE ONDOAN  
AGÜ, A TU LADO

Hurbiltasuna eta begirunea

T. 948 05 90 90 [www.izarratanatorio.com](http://www.izarratanatorio.com)



**BAZTAN  
BIDASOA**

Ehorzketaz Zerbitzuak

BAZTAN: **ELIZONDO**n Santiago kalea, 79  
BORTZIRIAK: **BERA**n San Jose Beilatokian  
MALERREKA: **DONEZTEBE**n Aparan ind. 1-3

web: [funerariabaztanbidasoa.com](http://funerariabaztanbidasoa.com)

Baita BERTIZARANA, BORTZIRIAK, URDAZUBI ETA  
ZUGARRAMURDIKO ETXEETAKO ZERBITZUAK ere

**24 ORDU** | **948 48 95 50**  
**365 EGUN** | [info@funerariabaztanbidasoa.com](mailto:info@funerariabaztanbidasoa.com)

*Betiko taldea zu laguntzeka*

**IRACHE**  
tanatorioak

Nafarroako familien zerbitzura 1976tik

BERA (Kanttonberri, 14) | DONEZTEBE (Amezti, 13)  
ELIZONDO (Santiago, 52) | LESAKA (Zarandia, 18)

ETXEETAKO ZERBITZUA

Trasladoak Iruñea, Donostia eta Irungo ospitaleetatik edozein herritarra

**948 63 74 04 / 948 19 70 70**



## GOITI ETA BEHEITI



## Akatsak zuzenduz



Oinezkoendako aski toki aproposa da Bidasoaldeko trenbidea. Oinezkoendako, bai, eta ez Doneztebetik Sunbillarako bidean dagoen kartelean ageri den bezala ohinezkoendako. Oin hitzak ez du 'h'-rik. Bidasoa-Berroaran Mendietako Biltzar Administrazioak egina da kartela, bai, mendietako biltzarrak (eta ez kartelean ageri den bezala, menditakoak 'e' gabe). A! Eta abiadura eta gainerakoak gogoan hartu!

## Goiti eta beheiti

Zerbait txalotu edo salatu nahi duzu? Erakunderen bati galderaren bat egin nahi diozu? Atera argazki bat, idatzi mezu labur bat azalpenak emanez eta bidali dena 744 484 361 whatsapp zenbakira edo [info@ttipi.eus](mailto:info@ttipi.eus) helbidera. Aldizkarian eta [ERRAN.EUS](http://ERRAN.EUS) web orrian egingen diogu tokia!

## HERIOTZAK

- **M<sup>a</sup> Josefa Gaztelekutte Etxeberria**, Elizondokoa, ekainaren 3an, 67 urte zituela.
- **Pedro Urdaniz Jaimerena**, Azpilkuetakoa, ekainaren 4an, 90 urte zituela.
- **M<sup>a</sup> Jesus Agirre Arribillaga**, Berakoa, ekainaren 8an, 67 urte zituela.
- **Juan Miguel Ormart Alfaro**, Elizondokoa, ekainaren 11n, 81 urte zituela.
- **Serafina Elizalde Deskarga**, Eratsungoa, ekainaren 13an, 92 urte zituela.
- **Noelia Garzon Elvira**, Leitzakoa, ekainaren 14an, 42 urte zituela.
- **Joxe Agirre Arregi**, Oronoz-Mugairikoa, ekainaren 16an, 82 urte zituela.
- **Manolo Sanzberro Equioiz**, Arizkungoa, ekainaren 16an, 71 urte zituela.

## URTEBETETZEAK



**Beñat Goñi Errandoneak** 7 urte bete ditu ekainaren 3an. Zorionak eta aunitz urtez Arantzako eta Berako familia guziaren partetik.



Zorionak **Uxue Bikondo** eta **Julen Sarratea**, ekainaren 29an 13 eta 6 urte beteko dituzuelako. Oso ongi pasatu eguna eta merienda goxo baten zain egonen gara. Muxu handi bat familia guztiaren partetik, baina bereziki Aritz eta Oinatzaren partetik.



**Kattalin Agara Hernandezek** 4 urte beteko ditu ekainaren 29an. Zorionak gure printzesari! Nola ari zaren haunditzen pottoka! Ongi-ongi pasa zure egunean!!



**Fernandak** 24 urte bete ditu ekainaren 21ean. Aunitz urtez eta zorionak.

## Aunitz urtez!

Zorion itzazu zure inguruok!  
**Internetez** <http://erran.eus/zorionagurrak> helbidean sartu.

**Bulegoan eta postaz**

Etor zaitez **TUPI-TAPAREN** bulegora edo bidali argazkia eta testua: Koskontako bidea, 7-1-31770 LESAKA.

**Ordaintzeko:**

**(1)** Bulegoan, dirutan (5 edo 10 €)  
**(2)** Hegoaldetik postaz 0,65 €ko 10 edo 20 seilu. **(3)** Iparraldetik postaz 5 edo 10 €ko txekia. **(4)** *ERRAN*.  
*EUSEN* bitartez.

## SORTZEAK

- **Izadi Legarra Gartzia**, Doneztebekoa, ekainaren 2an.
- **Adei Urroz Erasun**, Doneztebekoa, ekainaren 6an.
- **Eva Isabella Stefan**, Igantzikoa, ekainaren 11n.

## EZKONTZAK

- **Xabier Plez** eta **Elodie De Carvalho Ferreira**, ekainaren 6an, Saran.
- **Johnny Hiriart** eta **Sarah Hoarau**, ekainaren 6an, Saran.
- **Igor Mindegia Goñi** eta **Eneritz Aioroa Mindegia**, Aurtizkoak, ekainaren 12an.

## SORTZEAK ETA EZKONTZAK

Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 63 54 58 telefonora deitu edo [info@ttipi.eus](mailto:info@ttipi.eus) helbidera idatzi beharko du. Nahiago duenak Whatsappez ere idatz dezake: 744 48 43 61.


# PLAZAN BAZAN



## ZEIN DA ZEIN


Ea asmatzen duzun zakur bakoitzaren izena.

- Tximistek eta Piratak belarriak tente dituzte.
- Bihurriren eta Feldespatoren isatsak luze eta iletsuak dira.
- Alaitzek eta Bihurrik bibote luzeak dituzte.
- Pitxitak bibote motzak ditu.
- Feldespatok eta Tximistek mihia agerian dute.



## PAI

Idatzi maitasun gutun bat zure buruari. Gero, apaindu orria eta gutun-azala.



# ITZALA

Zein da trogloditaren itzal zuzena?



1



2



3



4



5



8



6



7



**INTERNETEN ERE BAI!**

<http://plazanbazan.eus/>



Kontsultatu soluzioak  
[www.PlazanBazan.eus/kioskoa/soluzioak](http://www.PlazanBazan.eus/kioskoa/soluzioak)



**Ttipi Txartela** rekin  
beti irabazten da!

DESKONTUAK, ZOZKETAK...  
TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA  
MUSUTRUK

-%80ko DESGRABAZIOA  
ERRENTA AITORPENEAN

Eskatu zurea: 948 63 54 58

Informazio gehiago:

TTIPI-TTAPA

Koskontako bidea, 7 LESAKA

T. 948 63 54 58 | M. 744 48 43 61

info@ttipi.eus | erran.eus

[www.ttipitxartela.info](http://www.ttipitxartela.info)

**760** aleko  
irabazleak >



## ZOZKETAK

**DONOSTIAKO AQUARIUMA**

[www.aquariumss.com](http://www.aquariumss.com)



2 sarrera

**ONDDO TA PUNTO**

[www.onddotapunto.com](http://www.onddotapunto.com)



Kamiseta bat

**LA RHUNE**

[www.rhune.com/eu](http://www.rhune.com/eu)



2 sarrera - Heldu bat eta gazte bat

**Wow Park**

[wowpark.fr](http://wowpark.fr)



2 sarrera

**IRRISARRI LAND**

[www.irisarriland.com](http://www.irisarriland.com)



2 sarrera

**ZUGARRAMURDIKO LEZEA**

[www.turismozugarramurdi.com](http://www.turismozugarramurdi.com)



2 sarrera

**LI  
BU  
RU  
AK**



1. lotea

- Txomin Ipurdi
- Etsai zaharra eta mendiko lehoia
- Zomorroen kluba



2. lotea

- Siberia treneko ipuinak
- Miren eta erromantizismoa
- Oier

**erein**  
argitaratzea

[www.erein.eus](http://www.erein.eus)

**LA  
GUN  
TZAI  
LEAK**



[www.ibaizabal.com](http://www.ibaizabal.com)



[www.arkupegozotegia.com](http://www.arkupegozotegia.com)